

# Marka uzten diguten istorioak

TERRORISMOAREN BIKTIMAK  
BAKE HEZKUNTZAN



**Bigarren hezkuntzan  
erabiltzeko  
gida didaktikoa**

SUSANA HARILLO, JESÚS PRIETO  
ETA JOSU UGARTÉ (KOORD.)

**bakea**  
Z  
↑

© Ricardo Arana, Susana Harillo eta Jesús Prieto, 2006, lehenengo argitalpenerako

© Bakeaz, 2006, lehenengo argitalpenerako

© Bakeaz, 2010, berrikusitako eta zabaldutako bigarren argitalpenerako, euskarri elektronikoan

Arriquirar plaza, 3-1. esk.  
48008 Bilbo  
Tel.: 94 4790070  
Faxa: 94 4790071  
Posta elektronikoa:  
escueladepaz@bakeaz.org  
<http://www.escueladepaz.org>

Diseinua: Cryn Creativos, S. L.

Lan honetan azaltzen diren iritziak ez dira nahitaez bat etorriko Bakeaz erakundeak dituen iritziekin.

**Bakeaz** 1992an sortutako gobernu kanpoko erakundea da eta ikerketan aritzen da. Unibertsitateekin, bakezaletasunarekin, giza eskubideekin eta ingurumenarekin lotutako pertsonak sortu zuten, eta haren helburua hainbat gairi buruzko gogoetarako eta gizalegezko ekintzarako irizpideak ematea da; hala nola, nazioarteko harremanen militarizazioari buruz, segurtasun politikei buruz, armen ekoizpen eta salerosketari buruz, ekonomia eta ekologiaren arteko lotura teorikoari buruz, politika hidrokologikoari eta uraren kudeaketari buruz, tokiko Agenda 21eko prozesuei buruz, kooperazio politikei edo bakerako heziketari buruz eta giza eskubideei buruz. Jarduerak horiek garatzeko, liburutegi espezializatu bat du; aditu sare zabal baten parte hartzeari esker, azterketak eta ikerketak egiten ditu; hainbat liburu eta berripaper teoriko sortatan, bere ikerketak eta nazioarteko erakundeen ikerketak argitaratzen ditu —besteak beste, Worldwatch Instituterekin, ICLElrenak eta Unescorenak—; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; elkarte, erakunde eta komunikabideei aholkuak ematen dizkie; egunkarrietan eta aldizkari teorikoetan artikuluak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta biltzarretan parte hartzen du.

**Bake eskola** elkartzeko eta elkarriketarako aritzeko toki bat da, bai eta prestakuntzarako eta ikerkuntzarako institutu bat, informazioko eta dokumentazioko gune bat, hezkuntza-arloan aholkularitza, bitartekotza eta esku-hartzeko lanak egiteko talde bat, azterketa kritiko eta jendaurreko salaketarako tresna bat ere. Bake eskolaren helburua bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza da, betiere, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak, garapen iraunkorra, herritartasun demokratikoa eta kosmopolita, eta tolerantzia eta kultura arteko elkartzasunean oinarritutako herritar etika abiaburutzat hartuta.

Gida didaktiko hau berrikusi eta zabaldu dugu, eta, orobat, euskarri elektronikoan argitaratu dugu, gaztelaniaz eta euskaraz, honako hauek emandako finantziarioari esker: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren **Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza**, eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren **Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza**.

# Aurkibidea

3

or.



|  |    |
|--|----|
| ▶ HITZAURREA, Xabier Etxeberria                                      | 05 |
| ▶ SARRERA  | 13 |
| <b>Gidaren edukiak</b>   | 15 |
| <b>Kasuak hautatzeko irizpideak</b>                                  | 17 |
| ▶ HELBURUAK, EDUKIAK, GAITASUNAK, GALDETEGIA, IBILBIDEAK ETA ALDIAK  | 19 |
| <b>Helburu orokorrak</b>   | 19 |
| <b>Edukiak</b>   | 19 |
| <b>Oinarrizko gaitasunak</b>   | 20 |
| <b>Galdetegia eta ibilbideak</b>                                     | 20 |
| <b>Proposatutako aldiak</b>  | 21 |
| ▶ GIROAN SARTZEKO JARDUERAK  | 23 |
| 1. <b>Galdera-sorta</b>  | 24 |
| 2. <b>Balioen barometroa</b>   | 26 |
| 3. <b>Xingola horia</b>  | 28 |
| 4. <b>Lankidetzan aritzeko arazoa</b>                                | 30 |
| 5. <b>Desberdina denari buruzko estereotipoak: egia edo fikzioa?</b> | 32 |

|   |  |     |
|---|--|-----|
| ▶ | TERRORISMOAREN BIKTIMEN KONTAKIZUNAK LANTZEKO JARDUERAK                                      | 39  |
|   | 1. <b>Bizitza berregitea</b>   | 42  |
|   | 2. <b>Hezetasuna eta isiltasuna tortura gisa</b>   | 56  |
|   | 3. <b>Heriotza eta kalumnia</b>  | 62  |
|   | 4. <b>Ezin dut gorrotatu, ez dut gorrotatu behar</b>   | 66  |
|   | 5. <b>‘Un grito de paz’ (Bake-oihu bat): ETAren biktima baten hil ondoko autobiografia</b>   | 72  |
|   | 6. <b>Nork hil zuen nire senarra?</b>  | 82  |
|   | 7. <b>Jazarpeneko indarkeriaren eta beldurra sozializatzearen ondorio ezkutak</b>            | 86  |
|   | 8. <b>Indarkeria arbuiatzeak dakarren ordaina</b>  | 92  |
|   | 9. <b>Ideologiaren gainetik pertsonak daude</b>  | 98  |
|   | 10. <b>Zorigaiztoko halabeharra</b>  | 102 |
|   | 11. <b>Inoiz ez dugu jakin nork egin zuen, ezta zergatik egin zuen ere</b>                   | 106 |
|   | 12. <b>Kalumnia eta zurrumurrua mehatxu gisa</b>   | 110 |
|   | 13. <b>Oihuka eskatu nuen laguntza..., baina inork ez zigun eman</b>                         | 114 |
|   | 14. <b>Nahaste bat, hutsegite bat, zorigaiztoko errakuntza bat</b>                           | 118 |
|   | 15. <b>Estatuaren terrorismoaren gaiztakeria</b>   | 122 |
|   | 16. <b>Sufrimenduaren sozializazioa deitutako laztura</b>                                    | 126 |
|   | 17. <b>Nire aitaren hilketak sentiberago bihurtu nau era guztietako sufrimenduen aurrean</b> | 132 |
| ▶ | KONPROMISOAK   | 141 |
| ▶ | ERANSKINAK   | 145 |
|   | 1. <b>Testuinguru historikoan kokatzea</b>   | 146 |
|   | 2. <b>Zinema-foroko jarduerak</b>  | 150 |
|   | 3. <b>Soziodrama</b>   | 162 |
|   | 4. <b>Rol-jokoak</b>   | 164 |
|   | 5. <b>Argitalpenak eta baliabide didaktikoak</b>   | 168 |

## HITZAURREA

Lan honetan eskaintzen den gida pedagogikoak bi helburu ditu: 1) Indarkeriaren biktimak hartu nahi ditu bake-hezkuntzaren ardatz gisa; hala, bada, bake-hezkuntzak biktimak izango ditu abiaburu gisa, baina biktimekin batera garatuko da. 2) Onartu nahi du, gure artean, terrorismoaren biktimak —gizartean oso gertu egon arren— ez direla azaldu bakea xede gisa zuten hezkuntzako ekimenetan, eta, hortaz, jarraibide batzuk mahairatu nahi ditu biktimia zehatz horien agerpena bultzatzeko eta sustatzeko. Bi helburu horiek ondo argitu behar ditugu, haien irismena behar bezala uler dadin. Horretarako, galdera hauei erantzun-go diegu: **zergatik izan aurrean biktimak, zein biktimia, nola eta zein ikuspegi pedagogikorekin.**<sup>1</sup>

**1.** Has gaitzen, bada, lehen galderarekin: **zer dela-eta izan behar duten biktimek bake-hezkuntzako lanaren ardatza.** Oinarrizko hiru arrazoi nabarmenduko ditugu, gure ustez, horiek izan baitira gida hau ekarri dutenak; hala ere, ez dira tartean dauden arrazoi bakarrak.

Lehenik eta behin, biktimek *hezurmamitzen* dute hala indarkeriak dakarrena, nola bakeak eskatzen duena. Hezkuntzako lanean biktimazio generikoez hitz egiten badugu, bakeari lotutako balioetan bakarrik oinarritzen bagara, arriskua izango dugu indarkeriak dakarren suntsipen gizagabeaz *bizitasunez* ez arduratzeko eta abstrakzioan geratzeko. Indarkeria zer den ez da definizio soil baten bidez ikasten. Indarkeriaren biktimen aurrean *begiak zabaltzen* ikasten da, eta, horretarako, aurrean izan behar ditugu. Bestalde, bakeak zer esan nahi duen sakon eta errotik adierazi nahi badugu, zaurtutako biktimia horien aurrean egon behar dugu. Haiek

1. Gogoan ditut aurrez egin diren lan pertsonal batzuk —bertsio berrien bidez—, bereziki hauek: *La educación para la paz vertebrada por las víctimas*, Bilbo, Bakeaz, 2009 (Escuela de Paz, 21); *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz, 2005 (Galo Billaorekin); «Las víctimas del terrorismo: quiénes son, qué implica serlo», hemen: Antonio Duplá eta Javier Villanueva (koord.), *Con las víctimas del terrorismo*, Donostia, Gakoa, 2009, 15-32.



aurrean egonik, ezin izango dugu bakea indarkeriaren desagerepenarekin berdindu besterik gabe. Haiek aurrean egonik, bakea, dena delakoa, indarkeriarik gabeko etorkizunari begira dagoen zer baita da, jakina; baina onarpen eta justiziako orainaldian kokaturik dago, eta iraganen errotzen gaituen memoriarekin uztartzen da. Itxaropena izan dezakegu adiskidetzeko prozesuak lortzeko, horrelakoak klasikoak baitira bakerako hezkuntzaren proposamenean. Gure erronka bide horretatik doa. Alabaina, prozesuak onarpen, justizia eta memoria horren bidez egongo dira modulaturik; eta, aldi berean, adiskidetzaren aldeko erronkak onarpen, justizia eta memoriaren moldeak modulaturik ditu.

Bigarrenik, biktimen aurrean egonik, abstrakzioaren arriskuetatik askatzeaz gain, gurasokeriaz ere askatuko gara. Haiek *benetan* hor badaude —fisikoa ez den era batean ere hor badaude—, ezin izango dugu haien izenean hitz egin. Aurpegira botako digute, arrazoi osoz. Unea iristen denean, *haiekin* hitz egin beharko dugu, *haiei buruz* ere hitz egin beharko dugu, baina, batez ere, *entzun* beharko ditugu. Hala, bada, bake-hezkuntzan, funtsezkoa da hasieratik jarrera irekia izatea —hau da, begirada alderdikoi guztien aurreiritziak gaineratik kentzeko gai den pertsonak baizik ez duen jarrera hartzea—. Eta hori hezkuntza-prozesuetan dauden biktimek eskatzen digute, biktima diren aldetik, beren oinarritzko eskubideak nola urratu ditzaketen sufritu duten pertsona gisa.

Azkenik, biktimak bake-hezkuntzan agertzen badira, eta ikasle orok hezkuntza horretan parte hartu behar badu, horrek esan nahi du eskolak egoki ematen duela biktimek eskubidez jaso behar duten onarpen *eraginkorra* eta *benetakoa*, dagokion zatia eman ere. Gizarteko eztabaidan kritikatu den baieztapen hori ondo ulertzeko, alde hauek hartu behar ditugu aintzat:

- Eskolak onarpen horren alde batzuk baizik ez ditu bere gain hartu behar, guztiz erabakigarriak diren beste alde batzuk beste toki batzuetan gauzatuko baitira.
- Onarpen horiek ondo egokituta egongo dira hezkuntza-lanera, eta, beraz, hezkuntza-lana desitxuratu beharrean, areago indartuko dute.
- Era horretan, lasai adierazi ahal izango dugu eskola lankidetzan aritzen dela biktimei zor zaien ordaina emateko lanetan. Ez hitzaren zentzu judizialean, hori ez baitagokio eskolari, baizik eta beste zentzu batean: alde batetik, ikasleak ohartuko dira biktimei ordain hori zor zaiela justiziari jarraiki, eta, bestetik —bigarren zentzuan—, «zauriak sendatu» ahal izango dira, eta, ildo horretan, eskoletan harrera ona eskainiko zaie biktimei (ez da harrera bakarra izango, baina).
- Bestalde, horrez gain, eskolan emango den ordainaren alderdi batek hurbil du «zor bat kitatzeko» zentzua, eta hori ondo gogoan izan behar dugu: biktimak aurrean egonik, azkenik konponduko da hezkuntzan denbora luzez egin zaien ez ikusia.

Orain arte esandakoa laburbiltzeko:

- Biktima eskolan egoteak, hasteko, zera esan nahi dio biktimari: «Hemen ere biktima gisa onartzen zaitugu, eta, orain arte behar adinako sakontasunez eta egokitasunez onartu ez zaitugunez, hori konpondu nahi dugu».
- Biktima eraginkortasunez eskolan egoteak —fisikoki edo birtualki— zera gaineratu nahi du: «Gainera, ekimen bat duen biktima gisa onartzen zaitugu; ekimen hori hezkuntza-prozesuan txertatzen da, eta zuk oinarrizkoa den zerbait eskaintzen diozu hezkuntza-prozesuari».
- Zentzu judizialek hurbilen dagoen bigarren zentzu horren alderdi konpontzaileari dagokionez, eskolak oso zeregin garrantzitsua egiten du, biktimen kontakizunari harrera egiten dionean. Gutxi gorabehera, zera esaten die biktimei zeharka: «Eskolan, gure errealitatearen ikuskizuna eta kontakizuna eraiki ahal izan ditugu zuei ez ikusiarrena eginez; orain, berriz, entzungo zaituztegu, eta, horrela, barneratuko zaituztegu, eta, era berean, bultzada emango dugu gizarteko memorian egon zaitezten».

Jakina, hori ez diete nerabeek esango biktimei, hori gizarteak esango die, hezkuntza-prozesuak antolatuko eta garatuko dituzten pertsonen bidez. Eta, batez ere, ekintzen bidez esango diete, biktimak haien artean sarriago egon daitezzen bultzatze aldera. Eta era horretan adierazteak oso ondorio ona du, ez bakarrik biktimentzat, ikasleentzat ere bai, ikasleak herritar bihurtzeko prozesuan eta heltzeko prozesu moralean. Hala, bada, eginkizun pedagogikoa ez da itxuraldatuko, eta, gainera, bete egingo da.

**2.** Biktimak aurrean egoteko dagoen arrazoia argitu ondoren, bigarren galderara joko dugu: **zein biktima egongo den aurrean.** Hasteko, hezkuntzako eginkizuna osotasun baten gisa hartuta, mota guztietako indarkeriaren biktimek egon behar dute aurrean, behar den moduan egon ere. Gure ustez, biktimak dira beste gizaki batzuen esku-hartzea bidegabekeriak sufritzen dutenak —zuzenean edo zeharka, zapaltzeko egituren bidez—, eta, hortaz, duintasuneko subjektu gisa dagozkien eskubideak urratzen dira. Eskolak biktima batzuei harrera egiten badie eta beste batzuei, berriz, ez, bereizkeriaz jokatu du. Ez du beteko lortu behar den bake onuragarria, justizia eta elkartasuna unibertsal bihurtzeko eskakizun morala.

Zoritxarrez, biktimen espazioa indarkerien espazioa bezain zabala da. Nola egongo dira denak aurrean? Nola egongo dira aurrean, gainera, oraintxe kritikatu dudak abstrakzioa jo gabe? Bada, indarkeria-mota handiak aintzat hartuta, eta indarkeria-mota bakoitzeko pertsona *eredugarriak* ekartzeko ahalegina eginez. Indarkeria-mota horietako bat hautatuko dut dena hobeto azaltzeko, hain zuzen, genero-indarkeria: eskolan harremana eduki ahal izango dugu pertsona zehatz batzuek pairatu duten mota honetako biktimazioekin, hartara, kasuaren berezitasunak indarkeria hezurmamitu dezan, baina, aldi berean, era horretan,

pertsona guztiek —eta, bereziki, indarkeria-mota hori pairatu duten emakume guztiek— beren burua islatuta ikusi ahal izango dute bertan. Hortik aurrera, kopuruak jarri ahal izango ditugu, kopuru horiek ez baitira zenbaki hutsak izango: zenbaki abstraktu horietan nahasitako pertsona bakoitzak «bestearen begiekin» begiratuko digu, Levinas-ek zioenez, hunkitu gintuen biktima jakin horren begiekin.

Ikuspegi horiekin bat etorrita, esan liteke aurkezten dudan lan honek ez duela baldintza hori betetzen, terrorismoaren biktimak baizik ez baititu kontuan hartzen. Hala ere, lanaren egileek ikuspegi unibertsalista hori dute —haien ibilbideari begiratuta ikus daitekeenez—. Izan ere, lan honen bidez, kontu garrantzitsu bat erakutsi nahi digute: unibertsalismo hori lortzeko, absentziarik nabarmenenak aurkitu eta zuzendu behar ditugu ardura handiz. Eta, gure artean, Euskal Herrian, gure errealitateari loturiko terrorismoaren biktimena izan da absentziarik deigarriena. Hurbil-hurbilenak diren biktimak, gure eskolen barruan ere izan direnak. Onartu behar dugu, haiei loturik gizartean zegoen giroa ikusita, ez zela erreza hezkuntzarloan aurrean izatea. Alabaina, aldi berean, nolabaiteko utzikeria historikoa egon da, hala hezkuntzako instituzioen aldetik, nola talde hezitzailearen aldetik, biktima horiekiko enpatia oso urria baitzen. Zailtasuna inhibizio bilakatu zen —sektore batek justifikatu zuen eta oraindik ere justifikatzen du—, adiskidetasunez gainditu beharreko erronka bilakatu beharrean. Hargatik, honen moduko gidak ezinbestekoak dira: hutsune hori hartu nahi dute beren gain, eta ekimenak eskaini nahi dituzte, absentzia zegoen lekuan biktimak agerrarazteko.

Etorkizun unibertsalista horretan, Euskal Herriari lotutako terrorismoaren biktimak hezkuntzan ager daitezen proposatzen hasita, jakina denez, arlo horretako indarkeriaren biktima guztiak hartu behar ditugu barne. Gizartean badago eztabaida bat, terrorismoaren biktima zer den zehazteko; oin-oharrean aipatu dudan azken lanetako batean jaso dut, eta kontzepzio zabalago baten alde egin dut. Hala ere, neure iritzia alde batera utzita, nire ustez, zein biktimari buruz ari garen ondo zehaztu ahal izateko, aski baliagarria izango zaigu Eusko Legebiltzarrean 2007. urtean terrorismoaren biktimei osoko laguntza emateko legea proposatu zenean egin zen bereizketa: ETAren eta kale-borrokaaren biktimak, kontrol-gabeko taldeek, eskuin muturreko taldeek eta GAL taldeak egindako terrorismoaren biktimak, eta arrazoi politiko egindako indarkeriaren ondoriozko giza eskubideen urraketen biktimak (hau da, Estatuaren instituzioei berariak loturik dauden horiek sorrarazitakoak). Bereizketa horretan, lehenengo bi taldeak, behintzat, terrorismoaren biktimak dira; eta, horrez gain, Bakearen Aldeko Koordinakundeak «jazarpeneko indarkeria» deitu duena ere gaineratu behar dugu. Eta hirugarren taldea sailkapen honetatik ateratzen badugu, beste nonbait sartu beharko dugu, indarkeria-mota bat den aldetik.

Biktimen ikuspegi horri aurre egiteko, hezitzaileek, hezitzaile garen aldetik, alderdi hauek izan beharko ditugu kontuan: 1) Biktima guztiak enpatiaz barne hartzeko gai den ikuspegia-



ri eman beharko diogu lehentasuna. 2) Hortaz, ez gara hasiko zenbait logika erabiltzen —jakinaren gainean egonda edo jakinaren gainean egon gabe—, hain zuzen, gutarren artean dauden biktimak aipatuz, gutarrek eragindako biktimak zuritzeko. 3) Horren ondorioz, ez ditugu nahastuko berez biktima diren horiek, eta Estatuaren legezko eta beharrezko indarkeria sufritzen dutenak, hau da, haiek sortu duten indarkeriak eragin duen eta giza eskubidearen parametroak betetzen dituen indarkeria sufritzen dutenak. 4) Litekeena da hiltzaile-biktimaren irudia agertzea, eta irudi hori oso konplexua da pedagogian onartzeko.<sup>2</sup>

**3.** Hasieran egin dugun hirugarren galdera hauxe zen: **bake-hezkuntzan** —edo, hala nahiago bada, herritartasunerako hezkuntzan— **biktimek nola agertu behar duten**. Erantzunaren funtsa aurreko gogoetetan aurreratu dugu: biktimek subjektu aktiboak izan behar dituzte. Nire ustez, funtsezko iritzi hori ondo kontuan izan behar da, hitzurre honi dagokion gida liburua irakurtzerakoan. Zehaztu dezagun baieztapen horren irismena.

Biktimek prozesuan eraginkortasunez jokatzeko badute, jakina, biktima horiek ez dira pasiboak izango. Hau da, ez dira hor egongo behatu eta aztertu behar den «zerbait» bezala, haiek abiaburutzat hartuta —baina haiek gabe—, erreakzio moral jakin batzuk pizteko, nahiz eta zenbait arreta ere eskaini bitartean. Alderantziz. Hezkuntza-prozesuak sustatu behar duena, hain zuzen, biktimaren interpelazio *aktiboa* da. Biktimak harrera egin diezaioten eskatuko duenez, bidea zehaztu eta finkatuko du, eta guk ez dugu aurrez horren kontrol erabatekorik edukiko. Badugu haren lehenengo bertsioa, hitzetan mutua baina sakona, bera aurrean egote hutsak ekartzen diguna, bidegabekeria ikaragarri larri baten aztarnaren isla bezala «hor egoteak» dakarrena. Hala ere, hori erabakigarria izan arren, ez da aski. Biktima hil ez badute, oinarritzko mezu horri jarraipena eman behar diote nahitaez haren bera-riazko hitza adierazten dutenek, elkarrizketako prozesuei ekinez.

Biktimaren agerpen aktiboaren modurik nabarmenena biktima hezkuntza-prozesuan fisikoki egotea da. Oso garrantzitsua da hari zabalik egotea. Hala ere, ikasgelara joaten den biktimak argi jakin behar du *hezitzaile* gisa joaten dela, eta koherentzia izan behar du horrekin. Biktima dinamika jakin batean txertatuko da, eta dinamika horrek duen izaera errespetatu beharko du. Biktima hor aurrean fisikoki egoteak dakarren abantaila «aurrez aurre» dagoe-la da, eta, era horretan, adierazkortasuna eta aurrez antolatu gabeko elkarrizketak zabal-tzen direla. Nolanahi ere, batzuetan biktima ez dago fisikoki aurrean, baina hezitzaileak haren aurkezpena egingo du eta era zehatz batean gidatuko du, haren agerpena eraginkorra izan dadin. Ikasleek idatzizko, entzunezko edo ikus-entzunezko euskarritan dauden lekukotasu-nen eta kontakizunen bidez izango dute biktimen berri. Hala ere, kasu horietan, nola edo

2. Ikusi Galo Billaoren lan iradokitzaila hau: *Jano en medio del terror. La inquietante figura del victimario-victima*, Bilbo, Bakeaz, 2009 (Escuela de Paz, 17).

hala lortu behar dugu «testu» horiek *aginpide morala* izan dezaten ikasleen aurrean, era horretan, interpelazioa egin dezaten. Bestela esanda, agerpena aktiboa izango da, interpelazioaren oinarritzko ekimena biktimarengandik sortzen bada, berdin dio biktima fisikoki aurrean dagoen edo haren agerpena «objektibatzen» duten euskarrietan dagoen —objektu bilakatu gabe—. Agerpen-modu bakoitzak baditu bere abantailak eta mugak, eta, beraz, prozesurik aberasgarrienak bi moldeak barne hartzen dituztenak dira. Horixe da, hain zuzen, gida didaktiko honek egin duena, nahiz eta gero, normala denez, fisikoki ez dauden moldeak ere eskaini.

Biktima aktiboa eta hezitzailea izan arren, horrek ezin du inola ere ordezkatu hezitzaile profesionalaren lana. Izan ere, hezitzaile profesionala izango da beti prozesua koordinatzeaz arduratuko dena. Berak zehaztuko ditu helburuak eta gaitasunak, aldiak, metodologiak, ebaluazioak eta bestelakoak, eta, era horretan, egokiak diren praktikak bideratuko ditu. Hemen proposatzen duguna, hala ere, zera da: biktima molde jakin batean ager dadin, eta, horrela, diseinu oso hau eta gauzatzeko moldea modu erabakigarri batean kutsa dezan. Izan ere, neurri handi batean, gida hau hezitzaileek egindako diseinu pedagogiko hori da, eta orain beste hezitzaile batzuei eskaintzen diegu askatasun sortzailez balia dezaten. Biktimak prozesu osoan egin beharreko zeregin nagusia sufritu duen indarkeriaren *lekuko morala* izatea da, horrek ekartzen duen guztiarekin, guztiz erabakigarria baita.

**4.** Orain, azken galdera baizik ez dugu aztertu behar: **zein diren biktimak ardatz gisa hartzen dituen bake-hezkuntzari dagozkion ikuspegi pedagogikoak.** Nire ustez, hiru ikuspegi nabarmendu behar dira, eta —hau ohar garrantzitsua da— era *egituratuan* edo dialektikoan onartu behar dira. Nire iritziz, gida hau elikatzen duten atzealdeko ikuspegiak dira.

Lehenik eta behin, *harmenaren* pedagogia izan behar du, lehen iradoki dugunez. Beharbada, horrek pasibotasuna ekarriko digu gogora. Eta, ildo, horretan, beharbada, hezitzaileak arbuia egingo du. Izan ere, eredu pasibo klasikoei aurre eginez —eredu horiei jarraiki, maisuak irakasten baitzuen eta ikasleak ikasten baitzuen—, agian hezitzaileak eredu eraginkorrek hautatu ditu, eta eredu eraginkorretan ikaslea bera da bere ikaskuntza prozesuaren protagonista. Hala ere, kontuak ez doaz hortik. Hemen aztertu nahi dugun kontua da ikasleek eta irakasleek egingo duten lehenbiziko «jarduerak» alde batera utzi behar dituela aurreiritzi guztiak, biktimak biktima gisa ikustea galarazten duten aurreiritziak. Modu horretan, biluzik egongo dira biktimen aurrean, eta, horrela, guztiz hunkitu ahal izango dira. Hala, bada, jarduera hau harmena lantzeko da. Izan ere, harmena «ikaskuntza konprometituaren» akuilu nagusia da. Eta, jakina, zintzotasun moralez harrera egiteko prest egon ondoren, eta harrera egin ondoren, elkarrizketa ekingo diogu; eta elkarrizketa, berez, ez da itxita egongo biktimak esaten dituzten kontuekiko desadostasunei. Era berean, hausnarketa-prozesuetan sartuko gara, azterketa egokiak egiteko, jarrera hartzeko, biktimizekiko ekintza solidarioa sustatzeko.


Bigarrenik, *sentimenduko* pedagogia izan behar du. Hau da, sentimenduak hezi nahi dituen pedagogia izango da, eta batez ere irismen morala landuko du. Hemen ere gardentasuneko prozesuak egin beharko dira, hala behar izanez gero, biktima aurrean izan aurretik. Aurreikuspenen arabera, litekeena baldin bada ikasleek biktimen aurkako mespretxuzko, arbuiozko edota gorrotozko sentimendu nabarmenak izatea, «etsai» gisa hartzen edo identifikatzen dituztelako, orduan, hezitzaileak aurretiazko lan bat egin beharko du, ikasleak egoera horretatik ateratzeko, biktimei deitu aurretik. Batez ere, aurrean fisikoki izan aurretik. Bestela, berriz bihurtuko dira biktima, eta arazoak ageriko dira berriro beren dolu-prozesuetan. Ikasleen artean oldarkorra ez den axolagabetasuna edo antzeko sentimenduak nagusitzen badira, orduan biktimak aurrean izateko moldeak prestatu ahal izango ditugu, sentimendu horiek desagerrazteko. Eta, azkenik, eta beti, galderak, jakin-mina edo lausotutako enpatiak baldin badaude, prozesu zehatz batzuk eratu beharko ditugu, justizia, elkartasuna, enpatia irmoa bezalako sentimenduak azalarazteko, garatzeko, ondo sendotzeko, eta, azkenean, ekintzak sorrarazi ahal izateko.

Azkenik, biktimak aurrean izateko, pedagogia *narratiboa* behar dugu, prozesuaren erdiko aldietan. Gogoan izan behar da egindako indarkeria kontakizunen bidez ematen dela aditzera. Gogoan izan behar da biktimaren lekukotasuna, sufritu duen indarkeria islatzen duena, kontakizunetan islatzen dela. Gogoan izan behar da memoriari eusteko, onarpena eta justizia lortzeko, eta adiskidetzera zabalik egoteko egin behar diren eraldaketak kontakizunetan agertzen diren ekintzen eta konpromisoen proiektzioa direla. Pedagogiak hori guztia hartu behar du bere gain, hori, gainera, oso egokia baita arreta erakartzeko. Gaitzaren eta ongiaren kontakizunak daude, eta haietako bakoitzari ereduak eman behar dizkiogu, behar den eran. Ondo dakigu geure kontakizuna eraiki behar dugula, geure istorioa kontatuz. Izan ere, pedagogia narratiboaren bidez, gertatutakoari buruzko kontakizunak interpretatuko ditugu, eta egiteko moduko kontakizunak irudikatuko ditugu —hitzaren zentzurik jatorrean—. Biktimak kontatzen duen kontakizunak biktimaren bizipenean barneratzeko atea izan behar du ikaslearentzat; baina ikaslea errealitate horretan barneratzen denean, bera den moduan sartuko da hor. Biktimaren «mundua» eta ikaslearen «mundua» era horretan aurrez aurre jartzean, eraldaketa izan behar da, neurri batean biktimaren baitan, eta, era berean, ikaslearen baitan —bere erara— izango den eraldaketa.

Nahiko nuke orain arte aipatutako iritziak argigarriak izatea, hitzaurre honi dagokion gidak dituen hatsapenei eta oinarriei dagokienez. Era berean, nahiko nuke argigarriak izatea gida —sormena baliatuz— erabili nahi duen hezitzailearentzat. Nolanahi ere, garrantzitsuena zera izango da: biktimen agerpenak adoretuta, hezitzaileak eta bere ikasleak egiten duten hori.

**Xabier Etxeberria**

Bilbo, 2010eko azaroaren 2a



## SARRERA

Orain dela gutxi arte, Euskal Herrian landu den bake-hezkuntzak ia ez du kontuan hartu terrorismoaren biktimak gure hezkuntza-sisteman zuzenean agertzeko aukera. Hutsune nabarmen horrek, besteak beste, argi erakusten du biktimekin dagoen enpatia eza, koldarkeria morala, nahasmen teorikoa, miseria politikoa edo, besterik gabe, beldurra. Ezaugarri horiek guztiak ondo aztertu beharreko gaitz sozial baten zantzuak dira.

Gure iritziz, bake-hezkuntzak, bere zentzurik sakonenean, ezin uko eginezko helburu pedagogikoak eduki behar ditu biktimei dagokienez. Bake-hezkuntzak indarkeriazko egoerei egin behar die aurre, bereziki indarkeria horren biktimei eta haien biktimazio-esperientziari; eta, horretarako, indarkeria pairatu dutenen lekukotasuna jaso behar du. Bestetik, biktimei zor zaizkien eskubideen artean, besteak beste, onarpena egin behar zaie gizarteko hainbat arlotan, bai eta hezkuntza-arloan ere. Eta zein onarpen izango ote da hobe, rol nagusia ematea baino? Hirugarrenik, bake-hezkuntzak helburu hau izan behar du: justiziaren eta, ahal dela, adiskidetzearen bidez, baketutako gizartea eraikitzea. Alabaina, justizia horren irismen zehatza zentzuz ulertzeko, eta adiskidetzeko prozesuetarantz era zuzenean bideratzeko, elkarrizketa enpatikoa egiten hasi behar dugu eragin gehien jaso duten horiekin, hau da, biktimekin. Hortaz, arrazoi berri hori dela-eta, aurrean egon behar dute eraginkortasunez.

Aurrekoa egia bada ere, hezitzaileak —saiatzen baldin bada— oztopo handiak aurkituko ditu, ingurune eta pedagogia aldetik, biktimak hezkuntza-sisteman agerian jartzeko lan zail horretan. Ezin dugu patuaren mende utzi. Erantzukizun argia du, baina taldeka egin behar dio aurre besterenezina den ekimen eta rol nagusi horri. Era berean, eskubidea du horretarako dauden laguntza zehatzak jasotzeko.

Gida didaktiko honek, berrikusitako eta zabaldutako bigarren edizioan, laguntza horietako bat izan nahi du. Azken batean, proposamen pedagogiko hau bere garaian «La presencia de las



víctimas del terrorismo en la educación secundaria. Propuestas teóricas y pedagógicas» izenburupean atera genuen proiektu orokor baten barruan dago. Proposamen honen oinarri teorikoa *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco* izeneko azterketan dago jasota.<sup>3</sup> Azterketa horretan, hiru aldi finkatu ziren, hausnarketaren izenburuan adierazitako xedea lortzeko. Lehen aldian, argi zehaztu nahi zen *zein* ziren gure herrialdeko bake-hezkuntzan ezinbestez azaldu behar ziren terrorismoaren biktimak. Bigarren aldian, biktima horiek *zergatik* azaldu behar zuten argitzen zen, eta argudio etikoak eta pedagogikoak ematen ziren horretarako. Eta, hirugarren aldian, biktimek *nola* agertu behar zuten aipatzen zen, eta zenbait jarraibide pedagogiko eskaintzen ziren ildo horretan.

Azterketa horretan egiten den biktimaren definizioa eta biktimak hezkuntzan azal daitezzen ematen diren argudioak oinarritzat harturik, gida didaktiko honen bidez areago zehaztu nahi ditugu azterketan aipatzen diren jarraibide pedagogikoak, eta material pedagogiko berriak aurkeztu nahi ditugu, hezitzaileek —sormenerako baliabide eta pizgarri gisa— erabiltzeko prest izan ditzaten.

Gida honetako proposamen guztien dinamizatzailer nagusia biktimen *kontakizunak* edo *istorioak* dira. Hori dela-eta jarri diogu izenburu hau gidari: «*Marka uzten diguten* istorioak». Ez dute modu generikoan markatzen; *gutako* bakoitzari uzten *digute* marka: gida honek hezitzaileei egindako dei bat izan nahi du, dagokigun erantzukizunaren zatia hartu behar baitugu gure gain, herritarrei istorio hauen marka hartzea galarazten dien koraza babesle hori kendu ahal izateko. Horrez gain, istorio hauek markatzen gaituzte, markatu behar gaituzte, hitz horrek dauzkan hiru zentzuetan. Alde batetik, markatzen gaituzte, haien aztarna —marka— uzten digutelako: biktimen kontakizunak beren inpaktuaren aztarna utzi behar dute gudan, enpatia, harrera eta elkartasun bilakatuta. Bigarren ikuspegitik, istorioek markatzen gaituzte, halako erruduntasun-dosi batekin identifikatzen gaituztelako: biktimazioaren istorioek berriz aztertzen dute guri dagokigun erantzukizuna, maiz, eta batez ere, gure jokabideen bitartez parte hartu ez dugulako eta horrek indar gehiago eman dielako indarkeria erabiltzen dutenei. Azkenik, hirugarren ikuspegitik, istorioek markatzen gaituzte, zerbaitek edo norbaitek «jarraitu beharreko bidea» edo norabide egokia markatzen digulako: kontakizun hauek aipamen bazterrezinak izango dira, indarkeria pairatu duten pertsonen eskubideak aztertzen ditugunean (persona horien eskubideak onartzeko, memoria, onarpena, ordaina eta justizia hartu behar ditugu aintzat), eta baketutako gizarteak eraikitzeko orduan.

Gure ustez, eskaintzen dugun gida hau eredu bat da —gehiago behar ditugu—. Izan ere, gida honek argi adierazten digu zein bidetatik joan behar den bake-hezkuntza bultzatzeko,

---

3. Galo Bilbao eta Xabier Etxeberria, *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz, 2005.

betiere, terrorismoaren biktimak era nabarmenean agerraraziz, biktimek berek dituzten eskubideei jarraiki, eta hezkuntza-prozesuak berak dituen eskakizunak betez.

## Gidaren edukiak

Gida didaktiko hau 2006. urtean prestatu eta ezagutzera eman genuen gidaren bertsio berria da.<sup>4</sup> Bigarren edizio berrikusi eta zabaldu honetan, Xabier Etxeberriaren hitzaurre luzea, girotzeko jarduera berriak, eta biktimen kontakizun berriak jaso ditugu. Gainera, aldaketa batzuk egin ditugu eranskin batzuetan, eta testu osoa berrikusi eta gaurkotu dugu.

Gidaren bertsio berri honek tresna egokia izan nahi du, aurreko hitzaurrean azaldutako oinarriak gauzatzeko. Lehenengo bertsioaren egileek eta bigarren argitalpen honetan parte hartu dugun Bakeaz erakundearen Bake eskolako taldeko kideek<sup>5</sup> ondotxo dakigu lan hau ez dagoela amaituta. Izan ere, hezitzaileekin eta biktimekin batera egin beharreko ibilaldia- ren hasiera baizik ez da. Hortaz, bada, lan honen jarraipena eta ebaluazioa egiteaz gain, berriz elikatu beharko dugu, behar bezala doitze aldera.

Gida honetako aktore nagusiak bi hauek dira: hezitzailea eta terrorismoaren biktima. Biek ala biek aurkituko dituzte zailtasunak, eta ezaugarri jakin batzuk eduki beharko dituzte:

- Lekukotasuna ematen duten biktimek, batez ere aurrez aurre egiten duten horiek, ezaugarri hauek eduki beharko dituzte: a) adorea eta ausardia, bereziki ikasle batzuek hiltzaileekiko enpatia izan dezaketela aurreikus daitekeenean; b) sendotasun pertsonala, horrelako baldintzetan bizipen horiek berpiztea haientzat suntsigarria izan ez dadin; c) beren hautu pertsonalak isilean uzteko gaitasuna; eta d) komunikazio eta pedagogiako dohainak.
- Hezitzaileak, berriz, ezaugarri hauek eduki beharko ditu: a) egoera desegokiak onartzeko adorea, horrela behar baita harmena erraztu eta sor daitezkeen gatazkak era onuragarrian bideratu nahi duen esku-hartzean; b) bere hautu pertsonalak alde batera uzteko gaitasuna; c) neutraltasuna, talde zehatzek egindako proposamenen aurrean;

4. Ricardo Arana, Susana Harillo eta Jesús Prieto, *Historias que nos marcan. Las víctimas del terrorismo en la educación para la paz. Guía didáctica para educación secundaria*, Bilbo, Bakeaz, 2006 (Escuela de Paz, 11).

5. Gida didaktikoaren lehenengo bertsioa Ricardo Aranak, Susana Harillok eta Jesús Prietok prestatu zuten, hausnarketa-talde baten esparruan; eta talde horretan Xabier Etxeberriak, Galo Bilbao, Teo Santosek eta Josu Ugartek ere esku hartu zuten. Hasierako gida hori berrikusteko eta gaurkotzeko lana Bakeaz erakundearen Bake eskolak egin du; Susana Harillok, Jesús Prietok eta Josu Ugartek koordinatu dute lana, eta honako hauek parte hartu dute: Martín Alonso, Galo Bilbao, Vicente Carrión, Xabier Etxeberria, Javier Merino eta Jesús María Puente.

eta d) beligerantzia, giza eskubideetan oinarritutako funtsezko balio unibertsalen aurkako aukeren kontra, hezitzaileak guztiz engaiatuta egon behar baitu giza eskubideekin.

Gida didaktiko honen oinarria den liburuan —*La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco* izenekoan—, Galo Bilbaok eta Xabier Etxeberriak pedagogia jakin bat eskaintzen digute biktimen agerpena bideratzeko, sentimendu eta harmenaren pedagogia izenekoa. Pedagogia horrek estrategia narratiboa erabiltzen du, hau da, kontakizunak biltzen ditu, eta, kontakizun horien bidez, biktimek beren nortasuna eratzten dute biktima gisa eta aditzera ematen digute gainerakoei. Horrez gain, pedagogia horrek biktimekiko enpatiako ekintzak eta keinuak baliatzen ditu.

Proposamen pedagogiko honen bidez, jarraibideak eskaini nahi dizkiegu hezitzaileei, terrorismoaren biktimak bigarren hezkuntzako ikasleen artean ikusgai jartzeko, biktimen begirada onartzeko, haiekiko elkartasuna eta onarpena sustatzeko, eta justiziaren eskakizuna indartzeko.

Horretarako, era askotako materialak erantsi ditugu, lagungarriak izan ahal baitira —hori baita gure asmoa— gure hezkuntza-erkidegoentzat erronka handia izango den zeregin honetan:

- Lehenik, giroan sartzeko bost jarduera daude (galdetegi bat, balioen barometro bat eta hiru jarduera: «Xingola horia», «Lankidetzan aritzeko arazoa» eta «Desberdina denari buruzko estereotipoak: egia edo fikzioa?»). Jarduera horien bidez, aurreiritziak eta aurretiazko iritziak azaleratu nahi ditugu, eta kontzientzia harrarazi nahi dugu biktimei loturik agertzen diren gaiei buruz.
- Gero, kasu batzuk agertzen dira, denak benetakoak. Biktimek berek edo haien ingurune hurbileko norbaitek (eta, beraz, biktima ere badenak) emandako lekukotasunean oinarrituta daude, edo biktimaren agerpen objektibatuaren bidez ematen dira ezagutzera (ikus-entzunezko moduan, biktimari eginkizun nagusia emanda).

Aurrez, zinema-foroko jarduerak egitea proposatzen dugu, prestakuntza gisa, terrorismoaren biktima aurrez aurre zuzenean izatea barne hartzen duten jarduerak egin baino lehen. Bigarren eranskinean, dagokigun gaiarekin zerikusia duten film batzuen lan-fitxak jaso ditugu.

Azkenik, kasuak testuinguru historikoan kokatu ditugu, hori beharrezkoa izan baitaiteke gure ikasleak kokatzeko, eta Euskal Herriko indarkeriaren arazoa sortu eta garatu zen esparrua azaltzeko (ikusi 1. eranskina).

## Kasuak hautatzeko irizpideak


Terrorismoaren biktimen esperientzia askotarikoa denez, errealitate horretara hobeto hurbiltzeko, era askotako kasuak hautatu ditugu. Aintzat hartu ditugun egoeretan, joera desberdinetako indarkeria terroristek sorrarazi dute pertsona baten heriotza, edo ondorio larriak ekarri dizkiote. Era berean, honelako kasuak izan ditugu kontuan: bahiketak, xantaiak, xaxatzeak, mehatxuak, jazarpenak, maiteen eta adiskideen bazterketa pairatu dituztenak, eta, azken batean, Euskal Herritik joan behar izan dutenak.

Hautatu ditugun kasuen bidez, ahalik eta erarik egokienean onartu nahi izan ditugu indarkeria terrorista larruazalean pairatu duten pertsonen egoera eta izaera. Biktima guztiek izaera bera dute —indarkeria terroristaren subjektu pasiboak baitira—. Hala ere, indarkeriak eragin desberdina izan du haiengan, eta, era berean, eragin desberdina izan du biktima horien eta hurbilekoen bizitzan.

Bestalde, biktimen lagin txiki honen bidez, indarkeria terroristaren helburuen zabaltasuna islatu nahi izan dugu nolabait. Hala, bada, aukeratu ditugun pertsonen artean, honelakoak ditugu: ideia politikoengatik hautatutakoak, indar armatuetako edo segurtasun-indarretako kideak izateagatik hautatutakoak, edo pertsona horien ingurunean egoteagatik kaltetutakoak —adibidez, atentatua izandako lekutik hurbil zeudenak edo leku jakin batean lanean ari zirenak—. Era berean, gida honetan jaso ditugun kasu batzuetan, ustez terroristekin zuten loturagatik hautatu dute biktima (Estatuaren indarkeria terroristaren biktimak), edo gaztigu gisa aukeratu dute, militantzia alde batera utzi nahi duten horiek birgizarteratzeko eskubidea erabil ez dezaten. Horrez gain, hautetsi askok pairatzen duten jazarpeneko indarkeria jaso dugu. Azkenik, sartu ditugun zenbait kasuren eragile nagusia estortsioa edo mehatxua izan da, eta, heriotzaren ondoren, hildakoa iraintzeko eta haren izen ona belzteko prozesua zabaldu da.

Kasu guztietan, biktimek aditzera ematen digute nola jokatu duten samina gainditzeko, eta zenbat desiratzen duten justizia egin dadin —hitz horren zentzu demokratikoa hartuta—. Hala, beraz, haietako inork ez du gorrotoaren edo mehatxuaren apologiarik egiten. Gainera, batzuk barkamena emateko prest agertzen dira, nahiz eta —bidezkoa denez— zenbait baldintza jarri aurretik horretarako.

Ikuspegi horrexetatik aztertu behar ditugu jarraian eskaintzen ditugun jarduerak. Nahiko genuke haien emaitza emankorra eta lagungarria izatea, baketze eta adiskidetzeko prozesuak gure gizartean zabaltzeko.





## HELBURUAK, EDUKIAK, GAITASUNAK, GALDETEGIA, IBILBIDEAK ETA ALDIAK<sup>6</sup>

### Helburu orokorrak

- Hausnarketa egitea indarkeria terrorista erabiltzeak Euskal Herrian dituen ondorioei buruz, eta pertsonengan eta gizartean bertan dituen ondoreei buruz.
- Eztabaida eta elkarrizketa bultzatzea, gure euskal gizartea hainbat hamarkadez isilarazi duen beldurra kanporatzeko.
- Gure ikasleak bakea, tolerantzia, elkartasuna, justizia eta desberdinak diren pertsonen arteko elkarbizitza bezalako balioetan heztea.
- Barneratzeko guneak kudeatzea ikasgelatik, eta aniztasun ideologikoari buruzko ikuspegi ona eta aberasgarria bultzatzea.
- Indarkeria terroristaren ondorioak pairatzen dituzten pertsonen bizipenekin mina eta poza enpatikoki sentitzen ikastea, eta haien sufrimendura eta beharrianetara hurbiltzea.
- Biktimei zor zaien onarpena eta elkartasuna erakustea, eta justizia eta ordaina jasotzeko duten eskubidea bultzatzea.

### Edukiak

- *Terrorismoaren biktima* kontzeptua azaltzea.
- Terrorismoa epaitzeko eta hari aurre egiteko baliatu behar diren irizpide moralak argitzea.
- Terrorismoak gure ingurunean sorrarazi duen biktimizazioaren irismenera hurbiltzea eta aztertzea.

6. Gida didaktiko hau garatzeko, lehenik, derrigorrezko bigarren hezkuntzako (DBH), lehen eta bigarren zikloko, eta, orobat, derrigorrezkoa ez den hezkuntzako mailetara egokitu behar da.

- Terrorismoaren biktimei enpatia adieraztea, biktima izate hutsagatik.
- Biktimen eskubideak agerian jartzea.
- Era guztietako idazkiak eta ikus-entzunezkoak interpretatzea, banaka edota lankidetzan arituta.
- Hausnartzea eta idazlanak egitea.
- Elkarrizketan oinarrituta dauden ikasketa-prozesuak ezagutzea eta gauzatzea; ildo horretan, elkarrizketarako behar diren jardueren multzoa lantzea, eta biktimak eragin-kortasunez entzuteko gaitasuna (harmena) bereziki bultzatzea.
- Biktimei elkartasuna, laguntza, onarpena eta ordaina emateko jokabideak gauzatzea.
- *Biktimekiko justizia* kontzeptua ezagutzea, eta etorkizunean gizartean izan daitekeen adiskidetze-prozesuari zabalik egotea.

## Oinarrizko gaitasunak

Gida didaktiko honetan azalduta dauden jardueren bidez, oinarrizko gaitasun hauek landu ahal izango ditugu:

- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Hizkuntzazko komunikazioa garatzeko gaitasuna (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Informazioa eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna.
- Gaitasun humanistikoa eta artistikoa.
- Autonomia eta garapen pertsonala lortzeko gaitasuna.

## Galdetegia eta ibilbideak

Gida didaktiko honetan jasotako jarduerak egin aurretik —denak edo egokitzen jotzen direnak— eta, halaber, jarduerak egin ondoren, aurrerago, giroan sartzeko 1. jarduera gisa aurkituko duzun galdetegia egitea proposatzen dugu. Helburua erraza da: hemen azalduta dauden jardueren bidez gaia landu aurretik ikasleek terrorismoaren biktimekin duten sentiberatasun-maila ezagutzea, eta jarduerak egin ondoren ea aldaketarik izan den behatzea.


Jakina, ikasgelako kideek errealitatearen berri badute, ikastetxean eztabaidak egin badira, edota ikasleen edo irakasleen artean terrorismoaren biktimen senideren bat badago, aukera gehiago egongo da lan egiteko. Aurretiazko lan horren emaitzen arabera, beharbada beste jarduera batzuk egin ahal izango ditugu, hemen proposatutako jarduerak gainditzen dituztenak.

Hala ere, beste kasu batzuetan, eskola batzuetako ingurune zehatzetan, beharbada, aurre-rapauso handia izango da jarduera bakar bat egitea. Kasu horietan, proposatutako urrats edo ariketa zehatz batzuk hautatuko ditugu, hain zuzen, aurreikusitako helburuak azaltzeko eta garatzeko batasun eta adierazkortasun aski duten horiek.

Hortaz, nolabait esan genezake badirela bide luzeko eta bide laburreko bi lan-ibilbide. Zalantzarik gabe, jarduera hau dinamizatzear arduratzen den pertsonak jakingo du hobeto noraino iritsi ahal den bere ikasleekin, Euskal Herriko indarkeria terroristaren errealitatera hurreratzeko eta indarkeriak pertsonengan eta gizartean bertan dituen ondorioetara hurbiltzeko proposamen honi dagokionez.

## Proposatutako aldiak

- Parte hartzea bultzatzen duten jardueren bidez, ikasleek dituzten pertzepzioak, aurreiritziak, eta uste osoak azalaraztea.
- Ikasleak indarkeria terroristaren errealitatearekin harremanetan jartzea, biktimen lekukotasun zuzenaren bidez, ahal dela biktimak bertara eramanda edo, bestela, hemen proposatzen ditugun kontakizunak erabiliz.
- Lekukotasun hori hausnartuz onartzea, behar bezala koordinatutako taldeko elkarrizketa baten bidez, eta idatziz paratutako hausnarketa pertsonal baten bidez.
- Ikastetxean proposamen bat egitea biktimei omenaldia egiteko edo onarpena emateko; ikasturte bukaerako jaiarekin batera, edo indarkeria ezaren eta bakearen eskola-egunarekin batera (urtarrilaren 30ean) antolatu ahal da.
- Biktimen lekukotasuna abiaburutzat hartuta, geroagoko konpromiso bat lortzea haien errealitatearekin, haien existentziarekin, eta haien beharrezanekin eta interesekin.



## GIROAN SARTZEKO JARDUERAK

Jarduera hauen bidez, ikasleen aurreiritziak eta aurretiazko iritziak azaleratu nahi ditugu, eta kontzientzia harrarazi nahi diegu biktimei loturik agertzen diren gaiei buruz.

- 1 Galdera-sorta
- 2 Balioen barometroa
- 3 Xingola horia
- 4 Lankidetzan aritzeko arazoa
- 5 Desberdina denari buruzko estereotipoak: egia edo fikzioa?



# Giroan sartzeko jarduerak

1

## Galdera-sorta

Jarduera honen bidez, aztertu nahi dugun errealitatearen aurrean kokatu nahi ditugu ikasleak eta irakasleak. Hasiera (pre-test) gisa erabiltzea proposatzen dugu, gure ikasleek terrorismoaren aurrean eta terrorismoaren ondorioz zuzenenean aurrean duten pertzepzio subjektiboa abiaburutzat hartzeko. Era berean, amaiera (post-test) gisa baliatzea proposatzen dugu, gida honetan dauden jarduera guztiak edo haietako batzuk egin ondoren. Aurretiazko eta ondoko galdera-sortaren artean sortuko den kontrastea baliagarria izango zaigu ikasleak eta, orobat, ezarritako helburuak ebaluatzeko.

## Metodologia

1. Ikasleek bana-banan irakurriko dituzte galdetegiko esaldiak; esaldi horiek era jakin batean jokatzera bultzatzen gaituzten buruko eskemen isla dira.
2. Ikasleek zirkulu bat egingo dute haien pentsaerarekin gehien bat egiten duen zenbakiaren inguruan; horretarako, kontuan izango dute 5 zenbakiak esan nahi duela neurri handi batean bat egiten dutela esaldiarekin, eta 1 zenbakiak, berriz, adostasun-maila txikiagoa dela.

|  | Adostasun-maila |   |   |   |   |
|--|-----------------|---|---|---|---|
| 1. Bakea indarkeriarik ez egotea da.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 2. Gatazkak borroka esan nahi du, eta, beraz, beti da txarra.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 3. Gizaki modura nire burua gauzatzea galarazten didan guztia indarkeria da.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 4. Egoeran batzuetan pertsonok ondo edo gaizki jokatzeko dugu.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 5. Pertsona batzuk onak dira eta beste pertsona batzuk txarrak dira.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 6. Helburuak bitartekoak justifikatzen ditu.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 7. Indarkeriaren zuzeneko erabilerak haserretzen nau.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 8. Helburu politiko bat lortu nahi izatea indarkeria erabiltzeko justifikazioa izan daiteke.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 9. Beharrezkoa da pertsonen artean begirunea izatea.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 10. Pertsona batzuek begirune gehiago merezi dute beste batzuek baino.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 11. Estatuak ez du indarkeria erabili behar eraso bati erantzuteko.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 12. Atentatu bat dagoenean gaizki sentitzen naiz.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 13. Atentatuak norik egin duen jakin ondoren, atentatua hobeto edo okerrago dagoela pentsatzen dut.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 14. Pertsona edo talde batzuek benetan merezi dute gertatzen zaiena.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 15. Nire ustez, terrorismoaren biktimek arrazoirik gabeko indarkeria ankerra jasan dute, eta jasaten ari dira.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 16. Terrorismoaren biktimek gure elkartasuna merezi dute.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 17. Atentatu batzuk ulertu edo azaldu ahal ditut.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 18. Nire ustez, indarkeria baliatuz erantzuteak indarkeria gehiago sortzeko baizik ez du balio.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 19. Zaila egiten zait terrorismoaren biktimei den pertsona baten lekuan jartzea.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 20. Nire ustez, garrantzizkoa da pertsonak haien lanbidearen arabera epaitzea.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 21. Nik uste dut pertsona guztiok jaso behar dugula tratu bera.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 22. Batzuetan, justifika dezaket pertsonak baliatzea lortu nahi dudana helburua erdiesteko.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 23. Nire ustez, terrorismoaren biktimei justizia zor zaie.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 24. Nire ustez, terroristak modu horretan jokatzeko duenean, beste hautabiderik ez duelako jokatzeko du horrela.   | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 25. Nire ustez, terrorismoa da hala Estaturenak ez diren taldeek egiten dutena, nola Estatuak berak egiten duena.  | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 26. Nik pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko dudana moduan jarduten ez duten pertsona guztiak nire aurkariak dira eta, neurri batean, nire etsaiak ere bai. | 5               | 4 | 3 | 2 | 1 |

### Balioen barometroa

Komunikazioa lantzen duen joko honetan, hasierako proposamen batzuk azaltzen ditugu, eta, hasiera batean, jarrera zorrotza hartu behar dugu horien aurrean. Balio-epai horiek zuzeneko harremana dute gida didaktiko honetan aztertuko ditugun jokaerekin eta edukiekin. Horrez gain, esaldi batzuk paratu ditugu, gure hasierako jarrera zehazteko edo pixka bat aldatzeko.

### Metodologia

Jardueraren dinamizatzailleak abiaburuko esaldia esango du. Ikasleek fisikoki jarri beharko dute esaldi horren alde edo aurka (aurrez, argi adieraziko diegu non kokatu behar duten batzuek eta besteek). Horren ondoren, beste esaldi batzuk esango ditugu; beharbada, ikasleek hasieran zuten jarrera aldatuko da.

1. Hasierako esaldia honako hau izan liteke: «Indarkeria oro bidegabea da». Hona hemen gure hasierako jarrera alda ditzaketen esaldi batzuk:

- Indarkeriaren bidez lortu denari indarkeriaren bidez baizik ezin zaio eutsi.
- Bestelako irtenbiderik ez badago, bidezkoa da indarkeria erabiltzea.

- Pertsona guztiak izaki bakarrak eta errepikaezinak gara.
  - Helburuak bitartekoak justifikatzen ditu.
  - Helburu oro dago bitartekoetan, zuhaitza hazian dagoen bezalaxe.
  - Demokrasiak hiltzen badu, demokrazia hilko da.
  - Beste gizaki guztiei gertatzen zaiena ikusita mina eta poza sentitzen ikasi behar dugu.
  - Batzuetan gizakiak trukerako txanponak besterik ez dira.
2. Hauxe izan liteke abiaburuko beste esaldi bat: «Zerbait bidegabeba dela iruditzen bazait, oldartu egiten naiz». Hona hemen gure hasierako jarrera alda ditzaketen esaldi batzuk:
- Belaunaldi hau ez da gogoratuko pertsona maltzurrek egindako ekintza maltzurak oroituta, baizik eta jende onak egindako isilune harrigarriak gogoan hartuta.
  - Zailtasunak aukera bilakatu behar ditugu.
  - Beldurrak izaki modura ezabatzen gaitu.
3. Honako hau ere izan liteke hasteko esaldi egokia: «Aniztasunak aberasten gaitu». Hona hemen nire hasierako jarrera alda ditzaketen esaldi batzuk, besteak beste:
- Ohikoa denak indartzen nau, desberdina denak akuilatzen nau.
  - Oroz gain, nire herrialdekoa sentitzen naiz.
  - Beldurra ematen dit beste pertsona batzuen ideiek eta jarrerek nire pentsaera, sentiera eta jokaera alda ditzaten; hargatik, nahiago dut pertsona horiei ez entzutea.
  - Nire erlijioa besterik ez dut ulertzen; gainerakoak berdina zaizkit.
  - Beste hizkuntza eta beste ohitura batzuk ezagutzea lagungarria da nire burua hobeto prestatzeko, eta mundua eta gizakia hobeto ulertu ahal izateko.

### Xingola horia

Dinamika honen bidez, ahalegina egingo dugu gizarteak desberdina balitz bezala hartzen duen pertsonaren larruazalean jartzeko. Pertsona bat ezagutzen ez badugu, eta berari buruz asma dezakegun zera bakarra bere fisikoak adierazten diguna edo talde jakin bateko kide gisa nabarmentzen duen bereizgarriren bat bada, orduan, talde horretan kokatzeko joera izango dugu, eta, besterik gabe, talde horrek dituen ezaugarriak leporatuko dizkiogu, gizaki bakar eta errepikaezina den alde-tik bera benetan ezagutzeko kezkarik hartu gabe. Prozesu horri *orokortzea* esaten zaio. Desberdin gisa jotzen ditugun horiei, gure ustez bestelakoak diren horiei, etiketak jartzen dizkiegu, eta sartu dugun taldeak jokatzen duen moduan jokatuko dutela uste dugu. Horren ondorioz, aukera txikia dago komunikazioa eta elkar ulermena lantzeko. Izan ere, ez gara pertsona horrengana hurbiltzen, eta, beraz, gizaki gisa duen aberastasuna eta berezitasuna galtzen ditugu. Gainera, gure artean dauden desberdintasunak sakondu egiten ditugu eta, horrela, areago urrutiratzen gara harengandik, batera ditugun gauzak ikertzen gelditu gabe. Jarduera honen bidez, pertsona horren larruazalean jarriko gara, bere mokasinak jantziko ditugu. Hala, bada, jarduera hau egiten duenak hobeto ulertu ahal izango du zer sentitzen duen pertsona batek, arrazoi bat edo bestela tartean dela, gainerakoek desberdina izango balitz bezala hartzen dutenean. Eta, bereziki, honen bidez, zera lortu



nahi dugu: ikasleek hobeto uler dezaten zer sentitu duten indarkeria terroristaren biktimek, seinalatu, etiketatu eta desberdinak balira bezala hartu dituztenean.

## Metodologia<sup>7</sup>

La actividad consiste en llevar una cinta amarilla en el brazo, todo el rato (dentro y fuera del centro), durante un determinado tiempo.

1. *Materiala*: xingola horia eta ohar-liburuxka bana, parte-hartzaileek erreakzioak jaso ditzaten.
2. *Abiaturuko aginduak*: ez kendu inoiz xingola horia ariketak irauten duen bitartean, eta ez erakutsi ariketa egiten ari dela.
3. *Garapena*: denbora zehatz batez (adibidez, aste batez), ikasleek xingola horia eramango dute besoaren inguruan lotuta, era nabarmenean. Parte-hartzaile bakoitzak liburuxka batean jaso beharko ditu gertaera horrek sorrarazten dituen erreakzioak.
4. *Ebaluazioa*: nola sentitu dira xingola horia eramán dutenak? Zein motatako erreakzioak izan dira? Zuen ustez, zer sentitzen eta bizitzen dute beste arraza batekoak diren edota azala beste kolore batekoa duten pertsonak?

---

7. Seminario de Educación para la Paz-Asociación Pro Derechos Humanos, *La alternativa del juego II. Juegos y dinámicas de educación para la paz*, Madril, Los Libros de la Catarata, 1994, 85.

### Lankidetzan aritzeko arazoa

Jarduera honi esker, parte-hartzaileek kontzientzia har dezakete desberdina dena edo haiekin bat ez datorrena onartzeak duen garrantziaz. Era berean, ohartuko dira zein garrantzitsua den gizakiek eratutako talde guztiak elkarren artean lankidetzan aritzea —nahiz eta desberdina izan— guztion helburua lortzeko.

### Metodologia

1. Irakasleak edo dinamizatzaileak orri bat jarriko du aretoaren mutur batean paratutako mahaian. Orri horretan matematikako problema errez bat egongo da (hezkuntza-aldi edo -maila bakoitzari egokituta). Problemaren ondoan, puntarik gabeko arkatza eta zorrozkaile bat egongo dira.
2. Lau neska-mutilen talde bat antolatuko dugu; horiek mahaian (aretoaren beste muturrean) jarritako problema argitu beharko dute. Erraz ken daitekeen zinta bat erabiliz, hiru parte-hartzaileen eskuak eta oinak lotuko ditugu. Era horretan, nekez moldatuko dira ondo ibiltzeko, nekez erabili ahal izango dituzte eskuak gauzak hartzeko.
3. Taldeko laugarren kideak aske izango ditu hankak eta eskuak. Horri zinta beltz bat jarriko diogu begietan, ezer ikus ez dezan.
4. Taldeko kideek elkarrekin ibili beharko dute mahairaino dagoen tarte. Hara iritsi ondoren, matematikazko

problema irakurri beharko dute, eta erantzun zuzena eman. Erantzuna orrian bertan jasoko dute.

5. Taldeko kideek elkarri eman beharko diote laguntza mahairaino iritsi ahal izateko. Izan ere, haietako hiruk ez dute ibiltzerik, eta laugarrenak, berriz, ezin ditu oztopoak ikusi. Mahairaino iritsi ondoren, batzuk problema irakurtzeko gauza izango dira, baina ezin izango dute idatzi, ez eta arkatzari punta zorroztu ere. Idatzi ahal duenak, berriz, ezin izango du irakurri. Hortaz, irakurri ahal dutenek problema irakurriko dute, eta itsu dagoen kideari azalpenak emango dizkiote, erantzuna non idatzi behar duen jakin dezan.
6. Problema argitu ondoren, lau kideek hasierako tokira itzuli beharko dute; adiskideak eta dinamizatzailea hantxe egongo dira zain.

## Eztabaida eta ondorioak

Taldeko kideei begietan, oinetan eta eskuetan zituzten lokarriak askatu ondoren, eztabaidatzeko saioa antolatuko dugu. Nahi izanez gero, galdera hauek erabil ditzakegu eztabaida pizteko:

- Zer sentitu duzu oinez ezin zinela ibili ikustean? Zer sentitu duzu ezin zenuela ezer ikusi nabaritzean? Zer sentitu duzu ezin zenuela idatzi sumatzean?
- Egoera horietan, nola moldatu zarete problema arrakastaz burutzeko?
- Zein izan dira proba zuzen bukatu ahal izateko gakoak?
- Dinamika honen bidez ikasi duzuen hitz bakar baten bidez laburbildu beharko bazenu-te, zein hitz aukeratuko zenukete?

Bukatzeko, lortutako hitzak horma-irudi batean idatz ditzakezue, eta, gero, horma-irudia ikasgelan jarri. Horrela, gogoan izango dugu jarduera egitean desberdinak diren pertsonen artean lankidetzan aritzeko hartutako konpromisoa.

### Desberdina denari buruzko estereotipoak: egia edo fikzioa?

Lan egiteko bi fitxa desberdin aurkeztuko ditugu. Lehenengo fitxan, estereotipo fisikoak eta jarduerekin zerikusia duten estereotipoak landuko ditugu. Bigarren fitxan, berriz, giza talde jakin bati lotutako guneei eta paisaiei dagozkien estereotipoak aztertuko ditugu.

Jardueraren helburua hauxe da: pertsona bat ezagutu gabe hari buruzko balio-epai bat egiten dugun bakoitzean, egiten ari garen hutsegiteaz hausnartzea. Estereotipoak oso kaltegarriak dira desberdinak diren pertsonak hurbil daitezen, zapuztu egiten baitute kultura, ikuspegi, ideologia eta erlijio desberdinak elkartzeko aukera.

### Metodologia

1. Dinamizatzaileak neska-mutilei eskatuko die arretaz begira ditzaten 1. eta 2. fitxak. Neska-mutilak taldeka jarrita egongo dira.
2. Hausnartzeko minutu batzuk utzi ondoren, ikasleek izen bat jarriko diote argazki bakoitzari, haien ustez dagokien izena.
3. Irakasleak edo dinamizatzaileak erantzun zuzenak dituen fitxa banatuko die taldeei (edo ikasgelako pantaila digitalean proiektatuko du, orriak aurrezteko), eta azalpena emango du. Esate baterako, ikasle gehienek

pentsatuko zuten arrantzalea galiziarra dela, hango itsaskiengatik eta arrantzaleengatik baitu sona Galiziak. Aitzitik, ohartuko dira fitxan agertzen dena Huelvako andaluza dela, hor almadraba izeneko moldea baliatzen baitute arrantzatzeko: hegaluzea harrapatzeko antzinako arrantza-molde bat da.

4. Ikasgelako batzarrean edo talde handian jarrita, bateratze-lana egingo dute; eta aditzera emango dute lan-taldeetan emandako erantzun batzuek eragin dieten harridura edo txundidura. Azkenik, ikasleei eskatuko diegu hausnarketa egin dezaten, zerbaiti edo norbaiti buruz dauden estereotipoei edo aurreiritzien gainean.

## 1. fitxa. Estereotipoak: pertsonak

Hauetatik zein da...?

Andaluza

Gaztelarra

Galiziarra

Euskal  
herritarra





## 1. fitxa. Estereotipoak: pertsonak

## Erantzuna

Hona hemen erantzun zuzenak



Gaztelarra (Guardo, Palentzia)



Euskal herritarra (Araba)



Andaluza (Huelva)



Galiziarra (Lugo)

## 2. fitxa. Estereotipoak: paisaiak

Non daude aterata argazki hauek?

Andaluzia · Etiopia · Maroko · Nafarroa · Segovia · Valentzia





## 2. fitxa. Estereotipoak: paisaiak

## Erantzuna

Hona hemen erantzun zuzenak



Andaluzia (Cazorla mendilerroa)



Valentzia (Onteniente)



Maroko (Nador)



Etiopia (Gondar)



Nafarroa (Errege Bardeak)



Segovia (Duero ibaia)



## TERRORISMOAREN BIKTIMEN KONTAKIZUNAK LANTZEKO JARDUERAK

Terrorismoaren biktimen lekukotasuna objektibatu ahal da, biktimen kontakizunak hainbat euskarritan jarriz —testuak, audioak, bideoak eta abar—, hezkuntza-esparruan beste era bateko indarkeriekin egin den bezala. Hala ere, batzuetan egokia izan daiteke biktima aurrean izatea zuzenean, ikasleekin lor daiteken elkarrizketa aberasgarria izan daitekeelako.

Kasu zehatz batzuk hautatu ditugu, biktima aurrean egon gabe lantzeko modukoak direnak. Horiek azaldu aurretik, baina, oso egokia iruditzen zaigu oinarritzko uste eta pista batzuk finkatzea, biktima bat aurrean izatea errazagoa izan dadin, hezitzailea harekin harremanetan jar dadin,<sup>8</sup> eta biktimarekin egin daitekeen hezkuntza-jarduera bideratu dezan. Izan ere, ez dugu ahaztu behar ekimen hau bereziki labaina dela, baina aldi berean komenigarria ere badela. Hala, beraz, ahal den guztia egin behar dugu ekimen hau gauzatzeko, betiere, behar den guztia ondo bermatuta, hezkuntza aldetik emankorra izan dadin eta —oinarritzkoena— biktimarentzat berarentzat ere onuragarria izan dadin.

Indarkeria terroristak eragindako biktimen esperientziak talde baten aurrean zuzen adierazteko, alde batetik, biktima bera izan dezakegu aurrean —hau da, indarkeriazko ekintza hori pairatu duen eta bizirik iraun duen pertsona bera—, eta, bestetik, biktimarengandik hurbil dagoen pertsona bat ekar dezakegu, hau da, biktimazioa bertatik bertara ikusi duen eta elkartasuna erakusten duen pertsona bat, edota biktimazioa aurrez aurre ikusi ez badu ere benetan sentitzen duen eta laguntzen ahalegintzen den pertsona bat. Zuzeneko agerpen horiek, bata zein bestea, pedagogikoki ondo bideratzen badira, akuilu onak izan daitezke hezkuntza aldetik. Nolanahi ere, ondotik datozen oharrak hezitzaileari zuzenduta daude

---

8. Lekukotasuna emateko prest dagoen biktima batekin harremanetan jartzeko, Eskola Bakeguneri deitzea da onena: Eskola Bakegune, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).



gehienbat, lehenengo bi motatako pertsonen aurrean suertatzen denean kontuan izan ditzan; hain zuzen, hauekin: indarkeriaren biktima zuzenak edo hurbilekoak —hurrekoak direnez, biktimatzat ere har ditzakegu—. Talde baten aurrean zuzenean egotea guztiz baliagarria eta onuragarria izan dadin, ahalegina egin behar da biktima bere kasuaren berri emateko gai izan dadin —baina hori suntsigarria izan gabe berarentzat—, eta behar den komunikazio-gaitasuna izan dezan hori kontatzeko. Proposamen hauek diseinatu dituen taldeak bere burua eskaintzen du zuzeneko agerpen hori lortzen saiatzeko, hala egitea bideragarria dela erabakitzen bada.

Terrorismoaren biktimak indarkeria sufritu du bere larruan, edo oso hurbil sentitu du, leku-gisa. Hortaz, adeitasun handiz hartu behar da, eta, lehenik eta behin, ahalegina egin behar da hurbilpen enpatikoa lortzeko. Horrenbestez, giro hurbila sortzen saiatu behar dugu, hala alde fisikoan (biktima urrutiratzen duten oholtzak edo plataformak baztertuz, eta argi eta zarata desegokiak saihestuz), nola adimen aldetik (biktimazio-kasua aurretiaz eza-gutuz) eta moral aldetik (elkartasunezko giroa piztuz). Hala ere, zuzeneko harreman horretan, biktimak euskarri fisiko bat izan behar du (mahai bat); horren bidez, errazago eta erosoago erantzungo die iruzkinei, eta lasaiago eta seguruago sentituko da. Era berean, komenigarria da elkarrizketa bideratuko duen moderatzaile bat egotea (ahal dela, hezitzailea), eta taldeko beste pertsona bat egotea, biktimaren aurkezpena egin dezan eta une oro bere ondoan egon dadin, sartzan denetik irteten den arte. Onuragarria izango litzateke biktimari argi uztea zer lortu nahi den bere kontakizunaren bidez: gertaera testuinguruan kokatzea; gertaera (atentatua, bahiketa, estortsioa, torturak...) eta haren ondorioak (pertsonalak eta familiarrak, fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak...) deskribatzea; ekintza terroristak biktimarengan eta bere hurbilekoengan piztu zituen sentimenduak; jasotako sostengu, laguntza eta elkartasunaren balioespena; esperientziari buruzko hausnarketa gaurkotua... Gai horiek guztiak ez dira ezinbestez ageriko hasierako kontakizunean. Biktimari egoki iruditzen bazaio, ondoko solasaldirako atzeratu ahal dira. Horrela erabakiz gero, ondo antolatu beharko dira gai horiei buruzko galderak egingo dituzten parte-hartzaileak eta hori egiteko unea.

Azkenik, garrantzizkoa da amaieran biktimarekiko keinu bat egotea, adibidez, taldearen eta kide guztien enpatia adierazten duen adeitasun-seinale bat, hausnarketaz beteriko isilaldi bat edo esker ona erakusteko txaloak.

## Jardueraren gidoia

Hona hemen finkatu dugun gidoia, terrorismoaren biktima baten zuzeneko lekukotasunari begira aintzat hartzeko modukoa:

- Aurretiazko jarduerak eginez, taldeak terrorismoaren biktima bati elkartasunez harrera egiteko duen gaitasuna egiaztatzea.
- Biktimaren lekukotasuna hautatzean, irizpide hauek aintzat hartzea: adorea, gainditzeko kemena eta komunikatzeko gaitasuna.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakeguneri deitzea biktimarekin harremanetan jartzeko (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxa: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).
- Biktimari aurrean izango duen taldearen ezaugarriak ematea, eta, era berean, esperientzia onuragarria izan dadin berak biktima gisa bete beharko lituzkeen baldintzak zehaztea.
- Toki egokia hautatzea —isila, abegitsua, hurbila eta biktimaren edo lekukoaren lekukotasuna aurkezteko baliabide fisiko aski duena—, eta aurretiaz iraupena mugatzea.
- Biktimari eskerrak emateko formulak eta amaierako seinalea aurretiaz presatzea (edo lekuko baten bidez zeharka helaraztea).
- Biktimaren ondoan une oro egongo diren pertsonak (edo pertsona) hautatzea eta presatzea.
- Biktima edo lekukoaren ibilbideari dagokionez, ondo saihestea hiltzaileei laguntza emateko dauden erakusgaiak edo elkartasun ezaren erakusgaiak, horrelakorik bada.
- Biktimaren aurkezpena egitea, lekukotasuna entzungo duten entzuleen aurrean.
- Hala behar denean, lekukotasuna eta elkarrizketa antolatzea, eta, jarduera bukatzean, aurretiaz finkatutako esker oneko seinalea adieraztea.

Bukaerako jarduera gisa, giroan sartzeko jardueren artean paratu dugun galdetegia atzera berriz egitea proposatzen dugu (ikus «Helburuak, edukiak, gaitasunak, galdetegia, ibilbideak eta aldiak» atala eta «Giroan sartzeko jarduerak», galdetegia aurkitzeko). Biktimen kasuei lotutako jarduerak egin ondoren, galdetegia lehenengo aldiz egitean lortutako emaitzak eta orain ateratakoak erkatuko ditugu. Hori ebaluazioko tresna egokia izango da, ikasleek beren burua azter dezaten, eta, orobat, aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren jakiteko.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

1

## Bizitza berregitea

### Helburuak

- Ohartaraztea atentatu terrorista batek eragin larria izan dezakeela pertsona batengan eta pertsona horren bizitza-itxaropenetan.
- Ikustea ekintza terroristek biktimak sorraraz ditzaketela, heriotzarik ez eragin arren.
- Bizipenak eta emozioak partekatzea terrorismoaren biktima batekin.
- Elkartasun pertsonala mugiaraztea.

### Metodologia

1. Kartoi mehe edo paper zurrun baten gainean plastifikatutako sei karta banatuko ditugu, DIN A5 edo antzeko tamaina batekoak. Kartaren gainaldean testua ageriko da, eta zailtasunik gabe irakurri ahal izango dugu. Atzealdean, berriz, irudi bat azalduko da binilo batez estalita, eta binilo hori erantsita egon arren, erraz askatu ahal izango da. Gazteek testua irakurriko dute,<sup>9</sup> eta, gero, ezkutatuta dagoen atzealdea aurkituko dute. Bertan, istorio honetako protagonistaren argazki bat egongo da.

Irene Villa González-en kasua: ETAk atentatu batean zauritu zuen, 1991ko urriaren 17an, María Jesús González Gutiérrez bere amarekin batera zegoela. Bere kontakizuna jaso dugu.

9. Txarteletako testuak eta irudiak liburu honetatik jaso ditugu: *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Irene Villa (Madril, Martínez Roca, 2004). Bakanketa egin dugu, jatorrizko testua zainduz, eta haien hurrenkerari jarraitu diogu.

Testuek erraz azaldu nahi dute kasua, lehen pertsona erabiliz, bizitzan astindua jaso duen pertsona baten ikuspegitik; eta biktimarekiko empatia sorrarazteaz gain (jardueran parte hartzen duten gazteen adintsukoa baita), harekiko elkartasuna ere piztu nahi dute (biktimak hautematen duen laguntzaren garrantzia).

Irudiak lagungarriak dira biktima ikusgai jartzeko, baina testuak irakurri ondoren ikusi behar dira beti. Bestalde, ez dugu kasuari buruzko datu zehatzik eman behar, fitxa guztiak irakurtzen bukatu arte.

2. Sei kartak irakurri ondoren, hezitzaileak kasua laburbilduko du, aurkeztutako testuetan ulertu ez den zalantzaren bat ba ote dagoen galdetuko du, eta ikasleak akuilatuko ditu haien sentsazioak, emozioak, iritziak eta abar adieraz ditzaten.
3. Jarduera bukatzeko, ikasle bakoitzak idazki labur pertsonal bat prestatuko du (bost eta hamar lerro bitartekoa). Eztabaida dinamizatzen aritzen den pertsonak testu horiek bilduko ditu, hitzaurrea jarriko die, eta, gero, biktimari bidaliko dizkio.

## 1. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

Ikastetxean, urtero egiten ziren jokoak maite nituen gehienbat, ikastetxe osoak parte hartzen baitzuen horietan. [...]

Hiru talde zeuden. [...]

Ikasleek genuen xederik handiena taldeko kapitaina izatea lortzea zen. Hala ere, horretarako, zortzigarren mailara iritsi beharra zegoen [gaur egun, DBHko bigarren maila den horretara]. [...] Abantaila handia. Eta ilusio horrekin hasi nintzen zortzigarren mailan, 1991. urte hartan. Nire taldeko kapitaina izan nahi nuen.

[...]

Era berean, urte hartan, saski-baloiko liga irabazteko ideia piztu zitzaidan. Azkenik, bihotzean nuen arantza kendu ahal izango nuen. Izan ere, aurreko ligan, azken partidua bukatzeko segundo gutxi falta zirela eta markagailuan berdinketa zegoela, falta bat egin nuen, eta horren ondorioz, talde arerioak bi puntuko jaurtiketa bat lortu zuen. [...]

[...] Opor gehienak saski-baloian jolasten emanak nituen, neure burua gogor prestatzen. [...]

Urte horretan bereziki pozik nengoen, azkenik pibot modura jokatuko bainuen. Horixe izan zen nire ametsa, taldean sartu nintzenetik. Uda hura erabakigarria izan zen: bat-batean luzatu egin nintzen, eta, hala, taldeko kiderik garaiena nintzen.

[...]

Urriaren 17a iritsi zen azkenean: egun horretan jokatu behar genuen ligako partidurik garrantzitsuenetako bat. Osteguna zen, eta gimnasia neukan. [...]

Ohetik jaiki nintzen jauzi batez, iratzargailuak jo aurretik. [...]

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 31-32.



## 1. fitxa: irudia



Europako mendietan, 1991ko uda hartan.

## 2. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

[...] Goizeko ordu horietan ohiz kanpoko den energia batez, sukaldera jo nuen korrika amari egun on esatera. [...] Zurrustan ateratzen ari zen energia horri minutu gutxi batzuk geratzen zitzaizkion. Izan ere, gosaltzen nuen bitartean, goiz hartako lehenbiziko leherketa entzun nuen [...].

—Ama, zer izan da hori? [...]

—Badirudi atentatu bat izan dela, alaba —hotzikara batek hartu ninduen goitik behera. Une batez, beldurrez egon nintzen. [...]

—Baina... guri inork ez digu kalterik egin nahi, ezta?

—Bai zera, nola pentsa dezakezu hori? Hori jende garrantzitsuari baizik ez zaio gertatzen, eta gu ez gara horrelakoak.

[...]

—Eta guri ere lehergailu bat jarri baldin badigute? —galde egin nuen, atea zabaltzen nuen bitartean, autora igo aurretik.

—Alaba, ez esan lelokeriarik eta igo autora, berandu iritsiko zara-eta.

[...]

Gogoratzen dudan hurrengo gauza argi gogaikarri batzuk dira, eta aurpegi osotik nituen hodiak. [...]

Esan zidatenez, hiru egun eman nituen koman. [...]

[...]

Hainbat urte igaroak ziren gurasoak banandu zirenetik, eta, hortaz, Virginia ahizpa eta biok amarekin bizi ginen, Aluche-ko betiko pisuan. Aitak, berriz, apartamentu bat partekatzen zuen alokairuan, auzoan bertan. Udazkeneko ostegun eder bat zen, metrailaz eta odolez tindaturik, goiz hartan bi lehergai gehiagok egin baitzuten eztanda: teniente bat hil zen, eta beste bat ni bezala gelditu zen, hankarik gabe. [...]

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 32-38.

## 2. fitxa: irudia



Madrilgo igerileku batean, 1991ko urte hartan.

### 3. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

Gaur egun ere, Portellano doktorea ikusten dudanean, zera esaten dit, mirari bat naizela. [...] Dioenez, «hezur eta haragizko nahaspila bat eginda» iritsi nintzen, hitzez hitz. Eta ipurmasailean dudan zauria ea zer moduz dagoen galdetzen dit. Zauri horrek bai baitu bere istorioa. Lehergailua eserlekuen azpi-azpian zegoenez, eserlekuaren zatiak sartu zitzaizkidan ezkerreko ipurmasailean, eta The Beatles-en kasete-pusketa batzuk ere bai. Pentsa, amaren talderik gogokoena: «Imagine all the people living life in peace».

Txertaketei esker, alde hori berreraiki ahal izan zidaten... eta beste hainbat gauza.

[...]

[...]

Kontua da medikuek modu eredugarrian jokatu zutela. Nire ustez, modu ezin hobean [...]. Halako baldintza txarretan egon arren, medikuek zehaztasunez aztertu zuten nola jokatu, besterik ez bazen ere, belaunetako bat gorde ahal izateko. [...]

[...] Oso zaila izan zen belauna gorde ahal izatea.

Eskuineko hankako zaurien jarraipena egiten zidaten egunero, edo, hobeto esanda, hanka horretaz geratzen zenaren jarraipena. Horrez gain, makina bat laser-saio hartu behar izan nituen, hura ez baitzen inoiz ixten. Atzealdean txertaketak ez ziren itsasten, eta aurrealdea nekez birsortzen zen.

[...] ezin nituen gainetik kendu minak eta erremina. [...]

[...] Azalak denbora luze behar izan zuen birsortzeko, bazirudien zauriak ez zirela sekula itxiko. Baina azkenean itxi ziren.

Gero, aldirik mingarriena heldu zen, ez gogorrena baina: errehabilitazioa. [...]

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 59-61.

### 3. fitxa: irudia



Bere adiskideekin, lehen bisitak izan ondoren.



#### 4. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

Gelara lekualdatu ninduten egunean jakin nuen «berria» [hankak moztu zizkidate-la]. Ordurako inork ez zuen uste nire bizitza arriskuan zegoenik. Une hura oso tristea izan zen. Beharbada, nire bizitzako unerik mingotsena, sekula bizi izan dudan —eta, ziurrena, inoiz bizi izango dudan— unerik gogorrena.

[...]

Ohean eserarazten ahalegindu nintzen, eta zerbait arraro sumatu nuen. [...] Hobeto mugi nezakeen eskua luzatu nuen hainbeste erretzen zidan gorputz-atal hori ukitzeko, baina han ez zegoen ezer. Larrituta eta nahastuta, berriz saiatu nintzen. Alferrik, baina. Azkenean burua altxatzea lortu nuenean, zerbait falta zela ikusi nuen. [...]

Une hartan nire gorputzaz jabetu ziren sentsazioak hain izan ziren sakonak, non ziur nago nire gogoak txikiagotu zituela, bizirik iraun nezan. Ziur nago nire burmuinak oinazearen zati bat ezabatu zuela, erabat suspertu ahal izan nendin, bestela ezin izango bainuen hainbesteko minik jasan. Nire gogoak eraldatu behar izan zuen, eta hain gogorra ez zen zerbait bihurtu, bizirik iraun ahal izan nezan. [...]

[...]

Negar eta oiuhu egin nuen ahal izan nuen gehiena. Negar egin nuen, malkorik gabe gelditu nintzen arte. Ezin nuen sinetsi nire gorputza betiko aldatuta egongo zenik. Eta are gutxiago halako era basati batez aldatuko zenik. [...]

[...]

Burura etorri zitzaidan lehenengo kontua zera izan zen [...] ezin izango nintzen eskolara joan. Ezta saskibaloian jokatu ere. [...]

[...]

Gutziz aztoratuta eta amorratuta nengoen. Oihuka hasi nintzen etsi-etsian, ea non ote zeuden nire hankak.

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 62-65.

#### 4. fitxa: irudia



Ospitalean, atentatuaren ondoren.

## 5. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

[...] Jende asko nuen ondoan, laguntza emanez; eta egin behar nuenaren adibide bat nuen oso gertu. Ibiltzen ikasi behar nuen, nire amak egin zuen bezalaxe. Baina, ziurrena, denbora luzeago eman beharko nuen. Artean, goizegi zen prote-siak probatzen hasteko. Eta oso larriak ziren zauriak sendatu behar nituen.

[...]

[...] amak esandakoa bete nuen. Hark zera esan zidan:

—Irene, bi aukera ditugu. Lehenengo aukera da beti mikaztuta bizitzea, sufritzen, hau egin digutenak madarikatzen, eta gelan ixtea negar egiteko. Bigarren aukera, berriz, aurrera begiratzea da, eta ausardiaz eta baikortasunez borrokatzea geure bizitzak berreskuratzeko.

Ez nuen bi aldiz pentsatu ere egin, eta [...] zera erantzun nion:

—Ama, bigarrena aukeratuko dut. Nire bizitza hemen hasiko dela erabaki dut. Hankarik gabe jaio naizela.

[...]

Uste dut jendea batez ere harritzen zela beti irribarre egiten genuelako. [...]

Horrez gain, uste dut aski harrigarria egin zitzaizela ez genuela negarrik egiten. Nahiz eta negar egiteko eskubide osoa eduki. Ezin genituen indarrak era horretan alferrik galdu. [...] Geure buruaz errukitzeko ere ez genuen denborarik. Lan asko genuen egiteko. Ibiltzen ikasi behar genuen. [...]

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 72-77.

## 5. fitxa: irudia



Amarekin berriz elkartu eta handik egun gutxira.

## 6. fitxa: Irene Villaren lekukotasuna

Hau ere entzun nuen behin: «Orain, oso indartsu dago, baina etxera joaten deanean, han, bisitek ematen duten laguntzarik eta oparirik gabe, eta hankarik gabe, ez du irribarrerik egingo». Ez dakit, bada; beharbada horrekin nolabait prestatu nahi ninduten hel zitekeen egoerarik makurrenari aurre egiteko, baina nik hondoratzeko ahalegin gisa sentitu nuen. [...]

[...]

Beste senide eta lagun batzuek ere asko akuilatu ninduten ohar gogor horien aurrean. Berriz egin ahal izango nuen guztia esaten zidaten. [...]

[...]

Bultzadarik handiena nik bezalaxe anputazioak jasan zituzten pertsonak eman zidaten. Era guztietako ebakitzeak jasan zituzten lagunak etorri zitzaizkidan bistan. [...]

[...]

Horrez gain, harrituta geratu nintzen, «Irene Villa neskaren alde» dirua biltzeko zenbat eta zenbat futbol-partida, antzezlan, jai, maratoi, zozketa, loteria eta bes-telako ikuskizun egin ziren ikusita. Jakina, nire senideek dohaintzan eman zioten diru hori Terrorismoaren Biktimen Elkarteari (Asociación de Víctimas del Terrorismo). Orduetik aurrera, ohartu ginen biktimei laguntza emateko bide bat ginela. Alabaina, inoiz ere ez genuen gainerakoek baino diru gehiago izango, ez genuen nahi. Ezin ziguten abantailarik eman inola ere ez. Kontu bat argi zegoen: jendeak osorik eman zuen bere burua terrorismoaren biktimen alde. Izan ere, guk pairatu genuen atentatua zuzenean izan zen, eta alderik alde korritu zuen mundua. Hala ere, ezin genuen inola ere abantailarekin jokatu, ez genuen horretarako eskubiderik.

Biktima guztiak berdinak gara, beti errepikatuko dut hori, nekatu gabe. Denek izan behar ditugu eskubide berberak. [...] Bagenekien guk betebeharrak bat genuela, gainerakoek ez zutena. Izan ere, une horretatik aurrera, biktima guztien begi-tartea eta ahotsa islatu beharko genuen. Konprometituta geunden, biktimen bandera eramango genuen. Eta bakearen bandera ere bai.

Irene Villa, *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004, 79-91.

## 6. fitxa: irudia



Irene Villa, atentatua jasan ondoren egindako lehen irteeretako batean.



# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

2

## Hezetasuna eta isiltasuna tortura gisa

### Helburuak

- Bahiketara, eta bahitutako pertsonengana eta haien familiengana hurbiltzea; eta jardute hori indarkeria terrorista eta tortura-mota bat dela onartzea.
- Bahitutako pertsona batek gatibu eman dituen egunetan izan dituen sentimenduei buruz hausnarketa egitea, haren sufrimendura hurbiltzeko asmoz.
- Ikasgelan eztabaida piztea, eztabaida egitea eta polemikan aritzea, betiere, nireak bezalakoak ez diren jarrerekin begirunea eta tolerantzia izanda.
- Beren borondatez kontra, maite dituzten pertsonengandik urruti suertatu diren pertsona horien sufrimenduarekiko enpatiazko jarrerak sustatzea.

### Sentibera bihurtzea

Ikasle batek, edo jardueraren dinamizatzaileak, gainerako kideei eskatuko die ahalegina egin dezaten bahitutako pertsona baten larruazalean jartzeko. Gogoratu behar dute pertsona hori gogoz kontra atera dutela maite dituen pertsonen artetik. Beharbada, emaztearen edo seme-alaben begitarte izutua ikusi du, negar artean agurtzen zuten bitartean. Gero, anestesiatzeko substantzia baten bidez logaletu dute, eta gelaxka heze eta txiki batean esnatu da. Gogoan izan behar da, Jaime Caballerok gatibu eman

Jaime Caballero  
Urdanpilletaren kasua:  
ETAk bahitu zuen 1986ko  
abenduaren 10ean. Bere  
lekukotasuna jaso dugu.

zuen denboraldiaz egin zuen deskribapenari jarraiki, zuloaren tamainak klaustrofobia larria sorrarazi ahal diola gatibu dagoenari:

Zabalera aldetik, doi-doi ukitzen nuen ukondoekin bi alboetan; luzerari dagokionez, bi metro inguruko lastaira bat sartzen zen; eta, garaiera aldetik, bi metro inguru zituen toki hark: kaxoi bat.<sup>10</sup>

## Metodologia

1. Dinamizatzailleak lankide bati eskatuko dio ahots ozenez irakur dezan bahitutako pertsonaren lekukotasuna (dinamizatzailleak gogora ekarri ahal du, gainera, hori borondatezko ekin-tza bat dela, eta bahitutakoak, aldiz, ez duela aukerarik hautatzeko, gogoz kontra dagoela gatibu toki horretan). Grabatutako zinten bidez, soinuak erreproduzitu ahal ditugu, hala nola, zabaltzen diren ateak, erortzen diren tantak, ahopean hitz egiten duten bi pertsona..., eta etengabe berritzen den musika errepikakor bat.
2. Ahots ozenez egindako irakurketa bukatu ondoren, ikaskide guztiek beren kabuz eta isilean irakurri beharko dute Jaime Caballerok kontatzen duen esperientzia, jarduera honen bukaeran azaltzen dena.
3. Ikasle guztiek testua entzun eta irakurri ondoren, eta minutu batzuk utzi ondoren bakoitzak berez kabuz hausnarketa egin dezan, galdera hauek egingo dizkiegu:
  - Zer sentitu duzu lekukotasun hau entzutean? Azaldu hitz baten bidez, hain zuzen, bi hilabete leku horretan itxita eman dituen pertsona batek sentitzen duena azaltzeko ego-kia izan daitekeen hitzaren bidez.

10. Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 143.

- Sarritan, torturak soilik min fisikoari lotuta daudela uste dugu, eta ez gara ohartzen kalte psikikoa dela tortura edo tratu txarren zati garrantzitsu bat. Zuk zer uste duzu? Tankera horretako zulo batean egotea, beharbada, ez da hain txarra izango? Hilgarria izan liteke? Zer izango zen gogorrena? Azaldu erantzun hori emateko arrazoiak.
- Gogoratzen al duzu bahitutako pertsona ezagunen baten izena? Prentsako ebakietan, liburuetan edo Interneten bila dezakezu.

Jarduera hau banaka edo lankidetzako lan moduan egin daiteke, ikasleak lau lagunekoko taldeetan banatuta. Bestalde, 1-2-4 izeneko jarduera gomendatzen dugu: ikasleek galderei erantzungo diete, lehenik banaka (1), gero binaka (2) eta azkenik taldean erantzuna adostuz (4); gero, talde handiari jakinaraziko diote.

### Nire leihotik nire zuloa ikusten dut

1986ko abenduaren 10ean bahitu ninduten, eta 1987ko otsailaren 7an askatu ninduten: 59 egun eman nituen bahituta. Hamabi urte igaro dira harrez geroztik, eta ondo nago, suspertuta, ez dut batere traumarik. Geratu zaidan ondorio bakarra lo falta da; loaldia hankaz gora jarri zidaten. Medikuek pilulak hartzeko esan zidaten, eta noizean behin kasu egiten diet. Bahiketak nerbio-sistema nahastu zidan. Nik lasai eta ondo nagoela uste badut ere, beharbada ez da horrela. Gainerakoan, ez dago bestelako ondoriorik, guztiz gaudituta daukat.

Ez naiz talde bateko kidea, herritar arrunt bat naiz, egoera berezi batean suertatu zena. Tarteka, gogoeta egiten dut horretaz, eta kito. Orain dela gutxi izan da nire bahiketaren urteurrena, eta oharkabean joan da. Nire familia eta ni ia ez gara ohartu ere egin. Alabari galdetu nion ea gogoratzen zen, eta baietz esan zidan, baina ez zidala ezer esan nahi. Bahitu nindutenean, berak 13 urte zituen.

[...]

Egunero igarotzen naiz nire zulo aurretik. Nire enpresaren parean dago, nire

bulegotik ikusten dut. Santi Potros harrapatu zutenean, 1987ko irailaren 30ean, zuloa non zegoen jakin genuen, eta bahitzaileak zein izan ziren ere bai. Zur eta lur gelditu nintzen. Harritzekoa zen enpresatik hain gertu egotea bahituta. Itxita egon nintzen lokalaren jabea atxilotu zuten. Garbiñe Biurrun epaileak deitu zidan, ikustera joan gintzan, eta, egia

- **Zuloa non zegoen jakin nuenean, zur eta lur gelditu nintzen. Harritzekoa zen enpresatik hain gertu egotea bahituta**

esan, gogoan nuena baino askoz ere txikiagoa iruditu zitzaidan. Ematen duenez, hor barruan sartuta egonda, nonbait, etxekotuta nengoen tokiarekin. Zabalera aldetik, doi-doi ukitzen nuen ukondoekin bi alboetan; luzerari dagokionez, bi metro inguruko lastaira bat sartzen zen; eta, garaiera aldetik, bi metro inguru zituen toki hark: kaxoi bat. Ez nintzen oinez ibiltzen. Ni bezala egon ziren beste batzuek, berriz, egin zuten. Niri ikaragarri gustatzen zait



ETA erakundeak 1986. urtean bahitu zuen Jaime Caballero, eta 59 egunez eduki zuen bahituta, Caballerok lan egiten zuen enpresaren aurrean zegoen zulo batean.

mendirra joatea eta ibiltzea, baina han barruan, ez. Julio Iglesias eta Emiliano Revilla, berriz, oinez ibiltzen ziren beren zuloen barruan. Argia gau eta egun egoten zen piztuta. Egunez bonbilla zuria, eta gauetz bonbilla berdea. Eta musika neukan jarrita, eguneko hogeita lau orduetan. Han eman nituen berrogeita hemeretzi egunetan, musika, gau eta egun. Ez zidaten kentzen, fabrikako zarata entzun ez nezan. Ebakitako egunkariak, gurutzegramak eta irakurketaren bat ematen zizkidaten, baina ezer gutxi. Hasieran, beldur handia izan nuen. Urduri jartzen nintzen nitaz zer gertatuko zen

gogoeta egitean. Gero, denbora luze izan nuen horretaz pentsatzeko: eguneko hogeita lau orduak. [...] Hiru lagunek

- Argia gau eta egun egoten zen piztuta. Egunez bonbilla zuria, eta gauetz bonbilla berdea. Eta musika neukan jarrita, eguneko hogeita lau orduetan. Han eman nituen berrogeita hemeretzi egunetan, musika, gau eta egun. Ez zidaten kentzen, fabrikako zarata entzun ez nezan

zaintzen ninduten. Denetik zegoen, bizitzan bezalaxe. Bahitzaileetako batek ondo jokatu zuen nirekin, beste batek hala-hola, eta hirugarrenak oso gaizki, mespretxuz erantzuten baitzidan. Batek lagun egiten zidan, mendiari eta kirolei buruz hitz egiten zidan. [...]

[...]

Denboraren nozioa galdu nuen. Han, ehun eta lau egun igaroak nituela uste nuen; baina berrogeita hemeretzi izan ziren. [...]  
[Egun batean] kontuak ondo zihoazela esan zidaten, edozein unetan joateko moduan

egongo ginela. Horrek konfiantza eman zidan. Krudelegi iruditzen zitzaidan kontuak konponduta zeudela esatea, eta gero horrela ez suertatzea. Botila bat xanpain ireki zuten, eta kopa bat eskaini zidaten, baina ez nuen hartu. [...]

Zuhaitz bati lotuta utzi ninduten [...].

Anbulantzia bat etorri zen Donostiatik etxera eramateko. Nire familiak ez zekien ezer. [...]

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 142-144.



# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

3

## Heriotza eta kalumnia

### Helburuak

- Biktimen errealitatera hurbiltzea, Olaciregui familia-  
ren oinazearen bidez.
- Gure aita edo lagun bat izan zitekeen herritar bat  
hiltzea zein absurdoa den hausnartzea.
- Pagaburuaren irudiaz eztabaida egitea. Pertsona  
kutun baten heriotza bortitzak saminetan uzten du  
familia, baina oraindik bero dagoen gorpu baten  
gainera botatako kalumnia beste sufrimendu gehi-  
garri bat da, biktimek nozitu duten urraketari gaine-  
ratu beharreko beste oinaze bat.

### Metodologia

#### 1. JARDUERA

Proposatzen dugun lehenengo jardueraren abiaburua Miguel Olacireguien lekukotasuna da. Lekukotasun horrek atze-  
rantz eramaten gaitu, bere anaiaren, hau da, Eugenio Olaci-  
reguien atentatu izugarria izan zen 1997. urtera. Hainbat gal-  
dera egingo ditugu, aberasgarriak izan baitaitezke gure  
gizartean dauden oinarri etikoei buruz eztabaida egiteko:

- Ba al du garrantzirik hildakoak Ertzaintzari deitzeak  
edo ez?

Eugenio Olaciregui  
Bordaren kasua: ETak hil  
zuen, 1997ko urtarrilaren  
30ean. Hemen bere  
anaiaren lekukotasuna jaso  
dugu, Miguel  
Olacireguiarena.

- Beharbada, bere dendatik igaro zen ETAko kideak aginduko zuen bere hilketari. Heriotza beti da izugarria, baina, kasu honetan, zer lortu nahi zuten hiltzaileek Eugenioren hilketarekin?
  - Hiltzeaz gain, handik egun gutxira, erakunde terroristak jakinarazpen bat argitaratu zuen, eta, bertan, «estatu espainiarraren zerbitzuan zegoen salatari bat» zela leporatu zion. Nola ulertzen duzu hori? Zer lortu nahi da hori zela leporatuta?
1. Talde txikian jarrita, ikasle bakoitzak erantzuna emango die galderei. Minutu bat emango da esku-hartze bakoitza egiteko.
  2. Erantzun bat aukeratuko dute hiru galdera horietako bakoitzari erantzuteko, ahal bada talde txikiko kide guztien artean adostuta.
  3. Gero, talde handian bilduta, hautatutako erantzunen bateratze-lana egingo dute, eta, dinamizatzaile baten laguntzaz, galderetarako azken hiru erantzunak adosten saiatuko dira.
  4. Erantzunak txartel batean itsatsiko dira, ikasgelako toki agerian.

## 2. JARDUERA

Bigarren jardueraren oinarria hildakoaren familiak argitaratu zuen jakinarazpena da:

1. Ikasle batek jakinarazpena irakurriko du.
2. Dinamizatzaileak ikasleei eskatuko die esaldi bakar bat azpimarra dezaten, haien ustez tes-tuaren mezu nagusia biltzen duena.
3. Txandaka, esaldia hautatzeko arrazoia argituko dute.
4. Azkenean, hausnarketa egingo dute taldean.
5. Boluntario batek azken hausnarketa idatziko du, letra handiz, txartel batean. Denon artean, bakoitzak marra batzuk eginez, irudi bat egingo dute, grafiko baten bidez hausnarketa iru-dikatzeke.

# 1. jarduera: Eugenio Olacireguiren anaia zen Miguel Olacireguiren lekukotasuna

[Eugenio Olaciregui] bizikleten enpresa bateko langilea zen, ezkondua zegoen, eta bi alaba zituen. Apolitikoa zen, txirrindularitza maite zuen, bere auzoan ondo gizarteratuta zegoen, eta ELA sindikatu abertzaleko kidea zen. Ez zen gehiegi kezkatzen bere familiarekin, lagunekin, lanarekin edota bizikletarekin zerikusirik ez zuten gaiez. Eta hau, zergatik? ETAk, atentatua aldarrikatzeko 1997ko otsailaren 19an atera zuen jakinarazpenean, Valentin Lasarte etakidearen atxiloketa leporatu zion Eugenio Olacireguiri: haren laguntzari esker, Ertzaintzak «eragiketa» antolatu zuen, eta, azkenik, Lasarte atxilotu zuen. [...]

[...] Hasiera-hasieratik, espekulazioak izan ziren: beharbada Eugenio izango zen Ertzaintzari deitu ziona, eta Valentin Lasarte alde hartan zegoela salatu zuena. Kazetarien galderei erantzunez, lagunek eta ezagunek zera esan zuten: «Honek nahasketa bat izan behar du». [...]

Beharbada, Valentin Lasartek bizikleta bat erosiko zuen Eugeniok lan egiten zuen dendan. Beharbada, Eugeniok laguntza emango zion bizikleta autoan sartzeko, Lasarte atxilotu zuten egun berean.

Valentin Lasartek nola edo hala mendekua hartu behar zuen, eta, espetxeratuta zegoela, hiltzeko zuen botereaz baliatu zen. Eugenio izan zen antolatutako mendekuaren pagaburua. Sekula ez dugu jakingo Eugeniok Ertzaintzari deitu zion

## ► Eugenio izan zen antolatutako mendekuaren pagaburua. Sekula ez dugu jakingo Eugeniok Ertzaintzari deitu zion edo ez


edo ez. Ziurrena, ez zuen egingo, aski arretagabea eta axolagabea zelako. [...]

Baten batek deitu zion Ertzaintzari alderdi horretatik. Baten batek zerbitzua egin zion erkidegoari, eta, hari esker, hiltzaile bat atxilotu zuten; aurrerantzean, ez zen aske ibiliko, erosketak egiten lasai ederrean. ETA ez dago ohituta Euskadiko herritarrak lankidetzan aritu daitezen, eta Eugeniok ordaindu egin zuen.

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 64-65.

## 2. jarduera: Eugenio Olacireguiren familiaren jakinarazpena

Non daude auzibidezko bermeak? Non dago biktimak defentsarako duen eskubidea? Hau al da herri honi eskaintzen dioten hautabide demokratikoa? Eugeniok egin zuen delitu bakarra hauxe izan zen: ohiz kanpoko pertsona bat zen, bere familiari buru belarri emana, kirolerako



EL DIARIO VASCO

Eugenio Olaciregui bizikletak saltzen zituen enpresa batean ari zen lanean 1997. urtean, ETA erakundeak hil zuenean.

bizitzen ohituta, langile eredugarria izan nahi zuen, geratzen zitzaion asti urria auzorako haur-jarduerak antolatzen ematen zuen. Hala, bada, jakin beza euskal iritzi publikoak ETAk balaz hiltzen duela lehenik, eta kalumniaren bidez gero, ondo baitakite hildakoek ezin dutela beren burua babestu. Era berean, jakin beza iritzi publikoak, erakundeak, Euskal Herria askatu nahi duela esan arren, familia honen sufrimenduaren bidez, errugabe bat erabili duela pagaburu gisa, euskal gizartea beldurrarazteko.

[...] Jende baketsua eta tolerantia gara, tinko babesten dugu bizitzarako eskubidea, baita inguruabar mingarri hauetan ere. Hala ere, justizia egiteko itzaropena dugu, hiltzaileak eta bere lankideek ekintza kriminal honengatik Legeak ezartzen duen zigorra ordain dezaten. Krimen hau euskal herriari egindako eraso zuzena besterik ez baita, euskal herriak berriz galdu baitu bere semeetako bat, armen bidegabekeriaren ondorioz.

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 68.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

4

Ezin dut gorrotatu, ez dut gorrotatu behar

Cipuzkoako gobernadore militarra zen Rafael Garrido Gil-en, Daniela Velasco de Vidaurreta bere emaztearen eta Daniel Garrido Velasco semearen kasua: ETAK hil zituen 1986ko urriaren 25ean. Era berean, María Teixeira Gonçalves-en kasua: handik egun gutxira hil zen, atentatu berean izandako zaurien ondorioz. Kasuaren euskarriak Danielaren neba den Silverio Velascoren eta senar-emaztearen beste semea zen Fernando Garridoren lekukotasunak dira.

## Helburuak

- Gure elkartasuna eta hurbiltasuna erakustea terrorismoaren biktimei, kasu honetan, Garrido jeneralaren familiari.
- Familia bereko hiru kide hiltzea zentzugabekeria eta basakeria bat dela onartzea, eta hausnartzea umezurtz geratutako haurrek beren kabuz atera behariko dutela amesgaizto horretatik.
- Hausnarketa egitea Garrido familiako kideek barkatzeko duten gaitasunari buruz, eta ikustea nola urrutiratzen diren gorrotozko edo mendekuzko jarreretatik, azken batean, maitasunezko irakaspen handi bat emateko: barkamena emateko aukera onartzen baitute.

## Metodologia

1. Zure familiako hiru kide horrela galtzea, lau anaia-arreben ondoan umezurtz geratzea, esperientzia gogor-gogorra izango da, zalantzarik gabe. Hala ere, bigarren zatian irakur daitekeenez, Fernando Garridok laztura gainditu nahi du, ez du nahi laztura gorroto bilaka dadin. Hiru lekukotasunak irakurri ondoren, ikasleek galdera hauei erantzuna emango diete:



- Zure ustez, arrazoi gehiago egon daiteke polizia, guardia zibil edo militar bat hiltzeko, kazetari, enpresaburu edo gidari bat hiltzeko baino? Zergatik?
  - Zaila da Garrido familiaren larruazalean jartzea, baina, zuk zein erreakzio izango zenuke horrelako egoera batean?
  - Hain une zailetan, zer izan liteke lagungarri mina gainditzeko?
  - Barkamena eman ahal izango zenieke zure familia hil dutenei? Zer eskatuko zenuke hainbesteko sufrimendua eragin zizuten horiei egunen batean barkamena eman ahal izateko?
2. Hirugarren zatian, fakultateko pintadaren berri izan dugu, «Garrido familia kandeletako kea bezala joan zen». Ikasleek pintada horri buruz duten iritzia emango dute, beren erantzunak arrazoituta.
  3. Denok ezagutzen ditugu era horretako gertakariak orain dela gutxiko historian. Jarduerak, oihuak, pintadak edo adierazpenak, biktimen eta haien senideen zauriak sakondu baizik egiten ez dutenak. Dinamizatazaileak ikasleak bultzatuko ditu, liburuetan, hemerrotekan, Interneten eta beste leku batzuetan informazioa bila dezaten, eta zerbait idatz dezaten mota honetako ekintzei buruz, hau da, beren ustez biktimekin iraingarriak diren jarduerari buruz.

## Biktimen senideen eta beste lagun batzuen lekukotasunak

Hiltzaileek Gipuzkoako gobernadore militarra zen Rafael Garrido Gil jeneralaren autoan jarri zuten bomba itsatsia. Donostiako Boulevard erdian egin zuen eztanda, eta, horrenbestez, jenerala, Daniela Velasco bere emaztea, 21 urte zituen Daniel semea eta handik gertu zebilen María Teixeira andrea hil ziren.

Seme-alaba gehiago geratu ziren bizirik (beharbada, Fernando Garrido izango da ezagunena, mendizale gisa egin dituen jarduerengatik), baina basakeria hark hondatuta utzi zituen. Zergatik? Rafael militarra zen.

Silverio Velasco, biktimen koinatua, neba eta osaba da, eta ezin du gorrotatu. Bere lekukotasuna maitasunezko kantu eder bat da:

1975. urtetik bizi naiz Euskal Herrian. Hamaika urte neramatzan lurralde honetan bizitzen, nire arreba, koinatua eta iloba hil zituztenean; María ere hil zuten. Une hartan, gidaria ere bazihoan autoan. Hala ere, kanpora atera ahal izan zuen, nire koinatuak ohartarazi baitzion, eta, hola, bizirik atera zen. Oso larri egon zen, baina bizirik atera zen. [...] Rafael oso lasai bizi zen, ez zuen ematen beldur zegoenik. Jakina, bazekien arriskuan zegoela. Gobernu Militarrean hainbat pintada azaldu ziren. ETAk beste gobernadore militar bat hil zuen lehenago: Gonzalo Vallés, emaztearekin Kontxatik pasieran zebilela. [...]

[...] Atentatua izan eta handik ordu gutxira, familiako lehengusu batek zera esan zion gure amari: «Zerbait egin behar dugu. Ezin dugu hilketa hau jasan». Gure amak, ilobari begiratu, eta zera esan zion: «Mendekua hartzea ez da kristauen jokabidea». Harrotasunez esaten dut, horixe izan baitzen gure amak atentatuaren egunean bertan izan zuen erreakzioa [...].

[...]  
[Nik] institutu batean ematen nituen eskolak [...]. [...] Jarrai erakundeko ikasleak nituen [...], eta irribarrezko keinuak ikusi nituen, eta popatik-keinua ere bai; hori ikusi nuen. Amorraioa eman zidan, eta harritu ere egin

ninduen, ez bainuen ikasleengandik horrelakorik espero. [...] Hilabetez, sudur-hemorragiak izan nituen [...]. Hiruhilekoa amaitu nuenean, zerbitzu-

► **Jarrai erakundeko ikasleak nituen, eta irribarrezko keinuak ikusi nituen, eta popatik-keinua ere bai; hori ikusi nuen. Ezin nuen jasan besteen minarekin hain sorgorra zen jende horri eskola ematea, baina argi eta garbi izan nuen beti itzuliko nintzela, Euskal Herria maite dut**



Rafael Garrido Gil Gipuzkoako gobernadore militarra zen, eta ETA erakundeak 1986. urtean hil zuen.

eginkizun bat eman zidaten, Euskal Herritik kanpo. Joan behar nuen, ez bainengoen ondo. Ezin nuen jasan besteen minarekin hain sorgorra zen jende horri eskola ematea [...]. [Baina] argi eta garbi izan nuen beti itzuliko nintzela, Euskal Herria maite dut.

[...] [Nire ilobek] ez dute gorrotatzen, oso ausartiak eta eskuzabalak dira, barkamena eman nahi dute. [...]

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 31-34.

1999ko irailaren 20an Zaragozako egunkari batean argitaratutako elkarrizketa batean, Silverioren iloba zen Fernando Garridok zera esan zuen: «Eskuzabal jokatu beharko dugu». Su-etenaren berri oso era baikorren jaso du, eta txalotzen du, hostasunez bada ere. Aitortzen duenez, bere itxaropenik handienetako bat da haxe da: bere alabatxoari atentatu haren berri eman ahal izatea «naturaltasunez, gertatu zen kontu izugarri triste bat izan zela esanez. Kontatu nahiko nioke iraganeko kontu bat izango balitz bezala, belaunaldi berriei Espainian gerra zibila izan zela esaten diegunean bezala. Gorrotorik gabe, gorrotoa ez baitzait ardura. Horrek esan nahiko luke terrorismoa iraganeko kontua dela, eta gure herrialdeak gainditu duela arazo hori».

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 34.

Garrido jeneralaren senideen lekukotasuna nabarmendu behar dugu. Giro militarrean heziak izan arren, ez dute errebantxa edo mendekua hartzeko asmorik, eta horrek areago handitzen du haien jarrera. Ez Silveriok ez bere bilobek ez dute inoren heriotza desiratzen, ez dute gorroto-izpirik haien bihotzetan. Haien sufrimendua handiegia izan zen, ulertzea hurbildu ahal izateko; eta, hala ere, mugarik gabeko eskuzabaltasuna erakusten dute, eta prest agertzen dira hiltzaileei barkamena emateko. Cristina Cuestak zera esaten du, 1986ko urriaren 25 hari buruz, *Contra el olvido* liburuan:

Familia bat suntsituta, gizartea asaldatuta, zaurituak, kalte materialak eta isiltasun handia. [...] Zorroagako Filosofia

► **Ez zen aski hiltzea, familia bereko hiru kideren eta langile portugaldar baten desagerpen basatiaren aurrean sorgor geratzea. Gainera, besteen minaz egin behar zen barre**

Fakultateko Areto Nagusian [...], denbora luzez, pintada handi-handi bat gailendu zen ekitaldi publikoetan eta pribatueta: «Garrido familia kandeletako kea bezala

joan zen». Alboko atearen aurrean jarrita, gauza beldurgarri hori ikustea ignominiari egindako monumentu bat ikustea bezalako zerbait zen. Ez zen aski hiltzea, familia bereko hiru kideren eta langile portugaldar baten desagerpen basatiaren aurrean sorgor geratzea. Gainera, besteen minaz egin behar zen barre. Besteen minaz beti, jakina. [...]

[...] Pintada hori eta «Ordóñez, itzul iezaguzu bala» oihua izan dira biktimen duintasunaren aurka egon diren gorrotozko adierazpenik lazgarrienak.

**Iturria:** Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 30-31.





# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

5

‘Un grito de paz’ (Bake-oihu bat): ETaren biktima baten hil ondoko autobiografia

## Helburuak

- Begirunezko eta elkartasunezko sentimenduetan sakontzen duten balioak eta jarduerak sustatzea.
- Gure herrialdean terrorismoaren biktimekiko enpatia eza egoteko eragina izan duten aldagaiak edo inguruabarrak aztertzea.
- Enpatiako jarrerak sortzea indarkeria terroristak zuzenean nozitu duten pertsonetikiko, eta eraginkorrez entzutea.
- Indarkeriaren biktimekiko harreman-esparru berriak amesteko gaitasuna sustatzea, behar bezain hurbil sentitu ez zuten gizartearekiko konfiantza berreskur dezaten.
- Gure desberdintasunei erantzuteko indarkeria erabiltzeari uko egitea beharizan bezala bizitzea; ondo aztertzea zein ondorio izango duen horren alde egiteak; eta gatazkak era baketsuan eta sortzailean konpontzeko gaitasunak ikastea eta abian jartzea.
- Kontzientzia hartzea biktimen gaia gure historiarik berrienaren zati gisa hartzeko dagoen beharizanaz.
- Gure proiektu politiko, pertsonal eta erlijiosoetan, legezkoa denaren eta legez kanpokoa denaren artean dagoen muga bereizteko eta zehazteko laguntza ematea.
- Batera duguna zehazten ikastea, eta desberdintzen gaituena aberasten eta bultzatzen gaituela jakitea.

Ramón Baglietto  
Martínezen kasua: ETAK hil zuen 1980ko maiatzaren 12an Azkoitian. Kasu honetara hurbiltzeko, Pedro Mari Baglietto anaiak emandako lekukotasuna jaso dugu, hildakoaren hil ondoko autobiografia modura erabili baitzen.

## Metodologia

1. Irakasleak astiro irakurriko du testua, dramatizazioa eginez ia, eta, bitartean, ikasleek eraginkortasunez entzungo dute kontakizuna. Hobe da ondo aireztatuta dagoen gela batean egitea, zarata eta argi gutxi duen gela batean. Oro har, testuan arreta biltzeko lagungarria izan daitekeen giroa sortzen ahaleginduko gara.
2. Ikasleei testua banatuko diegu, beren kabuz irakur dezaten.
3. Gero, lau edo bost laguneko taldetan banatuko dugu ikasgela. Talde horietan, gai hauek aztertuko dituzte (ez da beharrezkoa hemen paratu dugun ordenari jarraitzea; hobe da lehentasuna ematea sakonago iritsi zaien edo hunkitu dituen horri):
  - Zehaztu eta idatzi, alde batetik, zein unetan nabaritzen den larridura, eta, bestetik, zein unetan nabaritzen den itxaropena. Egin ezazu tristura- eta poz-egoera horiekin lotzen dituzun sentimenduen zerrenda paralelo bat.
  - Zure ustez, zein arrazoi zuen Ramón Bagliettok beldur izateko? Eta zein arrazoi zuen itxaropena eta konfiantza izateko?
  - Une batzuetan, jazarpena nozitzen duen pertsonak giza bereizgarriak ematen dizkie jazarleei. Bila itzazu une horiek, eta eztabaidatu gainerako kideekin: zuen ustez nola ikusten dute Ramón bere jazarleek? Zuen ustez, pertsona gisa hartzen al dute, edo lortu nahi duten helburua betetzeko xede edo bitarteko hutsa al da?
  - Testuko pasarte batzuetan, gero eta nabarmenagoa da protagonistaren ondoeza. Seinalatu une horiek, eta idatz itzazu.
  - Ramón Baglietto 1980. urtean hil zuten. Bila ezazu informazioa hainbat iturri baliatuz: hemerotekak, Internet, liburuak, familia... Nola sumatzen zen urte haietan Euskal Herriko egoera? Kontakizunean bertan, datu ugari aurkituko dituzu. Nola hitz egiten zen garai hartan indarkeriaren biktimei buruz? Gizarteak zein erreakzio izaten zuen giza galera horien aurrean?

- Ramón basatiki hil zuen pertsonaren benetako izena ez da Basilio. Zure ustez, zer lortu nahi du liburuaren egileak goitizen hori sortuz bere anaia hil zuen pertsonari deitzeko? Zure ustez jartzen ari al da krimena egin zuen pertsonaren tokian? Pentsatzen ari al da zein gogorra izan daitekeen pertsona horrentzat markatuta geratzea bizitza osorako?
- Une batzuetan protagonistak arerio gisa ikusten ditu jazarleak; beste une batzuetan, berriz, onartzen ditu haiek eta berak batera dituzten gauzak. Aurkitu pasarte horiek, eta idatz itzazu.
- Egin gogoeta hausnarketa honetaz: «zera galdetzen diot neure buruari: nork esango ote zion Basiliori ni bere etsaia naizela». Idatz itzazu burura etortzen zaizkizun erantzunak.
- Egin hausnarketa Ramónek une jakin batean bere autoaz duen ikuskerari buruz. Nola sentitzen da auto barruan? Zergatik?
- Zein unerekin edo protagonistaren zein ezaugarriekin identifikatu zara gehiago kontaktatzunean barrena? Zergatik?
- Pasarte batean, protagonistak bere buruari galdetzen dio ea zergatik egokitu zaion hori berari, eta ulertzen ez dituen beste gai batzuk aztertzen ditu. Bila ezazu pasarte hori. Zure ustez, ba al dago arrazoirik gizaki batek beste gizaki baten bizitzari buruz erabaki dezan azaltzeko?
- Testuko une askotan, protagonista kexatu egiten da, bere lagun batzuek izan duten patua ikusita. Bilatu lagun horien izenak. Ba al duzu egoera zailtan dagoen adiskidderen bat? Zein neurritaraino ulertzen duzu nola sentitzen den protagonista bere lagun samina ikustean eta sentitzean?
- Zehaztu zein diren protagonistak dituen kezka nagusiak bere familiari, bere herrialdeari eta bere buruari begira.
- Horren ondoren, talde bakoitzak egin dituen hausnarketen bateratze-lana egingo dugu, eta, gero, eztabaida egingo dugu, atera diren ideia nagusiak jasota. Rol joko bat ere egin dezakegu: ikasle batzuek testuko protagonisten rola jokatu dute, eta ikasgelako gainerako kideek behatzaile-lana egingo dute eta, hortaz, idatziz jasoko dituzte besteen jokabideak, jarrerak, jarrera horiek izateko oinarriak...
- Dramatizatu gertatutakoa, eta, soziodramaren teknika baliatuz (ikusi 3. eranskina), asmatu beste irtenbide bat, geure arteko desberdintasunak konpontzeko. Bila ezazue sormenezko hautabide bat, indarkeria eza bultzatzen duena, hartara, ondorioak hain larrik izan ez daitezen, gauzak indarrez egin ez daitezen, alde batek gal ez dezan, eta halako prezio garestia —bizitza galtzea— ordaindu behar izan ez dezan.
- Egin hausnarketa aipu honen gainean: «Gizaki bat hiltzen denean, gizaki hori dena haustez gain, gizaki hori izan zitekeena ere hausten da».

## Pedro Mari Bagliettoren lekukotasuna, ETA erakundearen biktima den Ramón bere anaiak autobiografia modura idatzia

75

or.

Autoa Azkarateko gainerantz zuzentzen dudanean, nire gogo-aldarte ezin hobea da. Badirudi, aldatzeko ditudan asmo on hutsekin, nire bizitza hobetzen ari dela. Mendatearen hasieran dagoen haran ederra begiesten dut, lehenengo aldiz ikusiko banu bezala; eta, erlijio-kantu bat ahopeka kantatzen hasten naiz, zergatik ez dakidala [...]. [...] gogoberotasun ezezagun baten ondorioz, bizitza ederra dela pentsatzen hasten naiz.

Hala ere, bat-batean, nire umore ona desegiten da, eta nire gogo-aldartea lur jota geratzen da: atzerako ispilutik, urruti samar, auto bat begiztatzen dut, eta deseroso sentitzen hasten naiz. Beharbada, obsesio bat besterik ez da izango, baina susmoa dut: Azkoitian dudan etxetik Elgoibarren dudan dekorazioko saltokiraino joateko egunero ezertan aldatu gabe egiten dudan ibilbidean, une batzuetan disimuluan jarraika dudana Renault 4 urdin berbera dela uste dut. [...] Ahaleginak egin ditut horri garrantzia kentzeko, sorrarazten didan beldurra saihesteko, oinarririk gabeko beldurra baita zalantzarik gabe. Hala ere, autoaren irudiak obsesiboki jarraitzen nau, baita ametsetan ere. Sinetsi nahi dut dena

dela Euskal Herrian dagoen kezka eta indarkeriazko giroaren ondorioa. Hala ere, buruan gaiari bueltak ematen jarraitzen dut, eta azkenean susmo harrigarriak hartzen ditut. Jose *Txiki* nire laguna bi atentaturen biktima izan da honezkero. Bi aldi horietan, ni berarekin nindoan. [...] Nire gogotik aldentzen ahalegintzen naizen arren, ezin dut ideia makabro hori burutik kendu. Eta auto madarikatu hori nire atzetik.

- **Atzerako ispilutik, urruti samar, auto bat begiztatzen dut, eta deseroso sentitzen hasten naiz. Auto horren irudiak obsesiboki jarraitzen nau, baita ametsetan ere**

Atzerako ispilutik begiratzen dut berriz, eta ez dut inor ikusten. Horrek pixka bat lasaitzen nau, baina berehala ohartzen naiz bihurgune itxiak daudela etengabe, eta horrek ikuspena zailtzen duela. Zalantzak argitu behar ditut. Abiadura moteltzea erabakitzen dut, eta, ia geldirik nagoela, goragunearen ertzetik, leihatilatik begiratzen dut. Ez dago huts egiteko aukerarik:

oraindik urrun samar, han dator ditxosozko kotxea. Nire egonezinak gora egiten du, bihotza ere aztoratuta dut, eta zakarki azeleratzen dut. Zantzu txarrak etortzen zaizkit gogora berriz, nahasten naiz, eta hurrengo bihurgunean irrist egiten dut ia. Ahaleginak egiten ditut lasaitzeko, laguntza eskatzen diot Jaungoikoari, eta ahots urratuz berreskuratzen dut tonua [lehen gogora etorri zaidan erlijio-kantarena]. [...] Etsia hartuta nago, ezin saihets daitekeena estoikoki jasateko; eta nire buruan zitzu handian doaz pentsamenduak, elkarren ondotik, era antolatu batean, nire bizitza, nire aurrekoak eta nire inguruabarrak berraztertzen egongo banintz bezala. Bitartean, auto urdina hurbiltzen ari da. (34-36 or.)

Nire oroimenetan murgilduta, ia ez naiz ohartzen jarraiki dudan autoa aski atzean geratu dela. Ez dut atzerako ispilutik ikusten. Beharbada, azkar-azkar ibili naiz, edo autokoek amore eman dute; edo, ziurrena, haluzinazio bat izango da dena: Renault 4 horrek nik egiten dudan ibilbide bera egingo du eta normala izango da maiz topatzea, kito, ez besterik. (45 or.)

Orain patxada pixka batekin gidatzen ari naiz, hainbeste kezkatzen ninduen autoa oso atzean geratu baita. Badirudi ez dela jazarle bat, bidaide bat baizik. Lasaitasun horri esker, malenkonia apur batez begiztatu ahal dut inguruan dudan paisaia bikaina, hainbeste aldiz zeharkatu dudana. Ibilbideak berez duen edertasunarekin kontrastea sortuz, pintada askok errepide ertzean dauden baserrietako fatxada zuriak itsusten dituzte. [...]

Berehala joaten zait lasaitasuna: berriz ere errealtatea dut atzean joka, eta bihotza azkar-azkar hasten zait taupadaka. Izan ere, auto urdina nire atzetik metro gutxira edukitzeaz gain, argi ikus dezaket gidariaren begitartea, nire atzerako ispiluan islatuta, eta Basilio da, ez beste inor. Berehala azeleratzen dut, baina Renault-ak, abiadura handiagoz datorrenez, harrapatu egingo nau. (51-52 or.)

► **Etsia hartuta nago, ezin saihets daitekeena estoikoki jasateko; eta nire buruan zitzu handian doaz pentsamenduak, elkarren ondotik, era antolatu batean, nire bizitza, nire aurrekoak eta nire inguruabarrak berraztertzen egongo banintz bezala**

Autoa gainera eror ez dakidan, bolante-kolpe zakar bat jotzen dut eskuinerantz, eta errepidearen arekan sartzen naiz. Hala ere, harritzekoa izan arren, autoak aurreratu egiten nau, eta zitzu bizian jarraitzen du bidean aurrera. Geldiarazita eta nahastuta geratzen naiz, Renault-a —itxuraz, niri batere kasurik egin gabe— nola urrutiratzen den ikusiz.

[...] Zalantza pizten zait berriz ere: egia da ibilbide berbera egiten ari garela biak azken egunetan, eta egia da Basilio dela beste autoa gidatzen duena, baina gainerako ondorioak neuk ditudan susmoak dira. Autoa desagertu da, ezin dut ikusi, eta ez du mehatxuzko inolako jarrerarik erakutsi.



Azkenean, ohartzen naiz zer den benetan kezkatzen nauena: Basilio agertzea. Batez ere nire garajearen ustekabez harrapatu nuenetik zorigaiztoko «Hilko zara!» hura idazten. (61-62 or.)

Hausnarketako une horiek igaro ondoren, abian jartzea erabakitzen dut, astiro-astiro eta arreta handiz jokatu. Alde batera uzten dut nire lehenengo asmoa, hau da, Azkoitira itzultzea. María Pilar Iarritu, ez nuen besterik lortuko; eta ez dut argudio zehatzik koldarkeriatik hurbil dagoen jarrera hau zuritzeko. Gainera, ezin atzeratuzko gaiak aztertu behar ditut bulegoan.

[...]

Oso astiro gidatzen dut. Zehatz-mehatz aztertzen dut bihurtze bakoitza, edozein ustekaberen beldur. Orain arte nire atzean izan dut Basilioaren autoa, baina, hemendik aurrera, bideko edozein tokitan egon daiteke zelatan jarrita. Ez dut ukatuko, beldur naiz. Beharbada absurdoa izango da, baina ezin dut beldurra menderatu. Ramón eta Ciriaco nire semeak eskolatik etxerako bidean egongo dira honezkerok, eta, haietaz gogoratzean, nire kezka gora egiten du. Zer egingo dute niri zerbait gertatuz gero! Eskerrak esku onetan dauden. [...]

Urdailak solidoa den zerbait jateko eskatzen dit. Gailurretik gertu nago, eta mendatearen goialdean dagoen askaldegian bazkatzeko ohitura dut. [...] (64-66 or.)

Gainaldera iritsi aurreko azken bihurtzean nago. Gosegarri bat jateko unea hurbil dago; eta irrikaz nago autoa alde batera uzteko, tarte batez besterik ez bada ere,

orain espetxe-tranpa larrigarria dela iruditzen baitzait. Gailurrera iristen naiz, baina beste frustrazio bat izango dut berehala. Madariagako askaldegia atean bertan, atsekabea eragiten didan autoa dago aparkatuta. Zalantzarik gabe, Basilio eta berarekin doazenek nik izan dudana ideia bera izan dute, eta indarrak berritzen ari dira. Isil-gordean aparkatzen dut, iritsi baino metro batzuk lehenago, arekako zuhaitzen artean erdiezkutaturik. Horrela, nik beren ibilgailua ikus dezaket, baina haiek ezin naute ikusi. Urdailean dudana larritasuna luzatuko dut, haiek bidean aurrera jarraitzen dutela ikusi arte.

► **Benetan kezkatzen nauena Basilio agertzea da. Batez ere nire garajearen ustekabez harrapatu nuenetik zorigaiztoko «Hilko zara!» hura idazten**

[...] Sentitzen dudana tristuraren ondorioz, gehiegi gozatzen dut begi aurrean dudana paisaiaz liluraturik, eta, bitartean, Iparragirre bardo karlistak konposatu zituen ahapaldiak etortzen zaizkit gogora, Marisa nire arrebaren senarrari —Enrique koinatuari— hainbeste aldiz entzun dizkiodanak: *Ara nun dirak / mendi maiteak / ara nun dirak, Selaia / Baserri eder, txuri txuriak...* [...] ... eta, bat-batean, malko lodi ugariak hasten zaizkit masailetatik behera erortzen, eta atsekabe larriz lehertzen naiz, eusteko ahaleginik egin gabe. Ziurrena, nire itxura erdiragarria izango da, baina, negarrari esker, nire aldartea arintzen da; hala,

zuhurtasunik gabe uzten diot negarrari isurtzen.

Basilio eta harekin doazenak askaldegitik ateratzen direnean, errealitate gordinera itzultzen naiz. Autoan sartzen diren bitartean, malenkonia sakon batean murgilduta nagoela, zera galdetzen diot neure buruari: nork esango ote zion Basiliori ni bere etsaia naizela. Nork esango ote zien gazte-multzo horri José Txiki haien etsaia dela. [...]

[...]

[...] Azkenik autoa utzi eta hankak luzatu ahal ditut, eta, hala, askaldegirantz jotzen dut, urrats motelak eta geldiak eginez. (73-78 or.)

► **Bat-batean, malco lodi ugariak hasten zaizkit masailetatik behera erortzen, eta atsekabe larriz lehertzen naiz, eusteko ahaleginik egin gabe. Ziurrena, nire itxura erdiragarria izango da, baina, negarrari esker, nire aldartea arintzen da; hala, zuhurtasunik gabe uzten diot negarrari isurtzen**

Bazkariak ahuldadea kentzen dit, eta indarberritzen nau. Aitortu behar dut txorizo egosiz egindako ogitartekoarekin batera edan ditudan bi edalontzi ardok izugarri lagundu nautela gogo-aldartea hobetzeko. [...]

José Txiki lagunarekin gogoratzen naizen bakoitzean, larritasunezko ziztako bat sentitzen dut, bera Zainketa Intentsiboetako Unitatean makal-makal dagoela jakinda,

bizirik ateratzeko borrokatzen. Gorabehera asko bizi izan ditugu elkarrekin, zaletasun asko ditugu batera, estu-estu lotzen gaituztenak. [...] (87-88 or.)

Autoa Elgoibarreko kaleetatik barruratzen denean, arinduraz hartzen dut arnasa. Uste dut herri barruan ez naizela arriskuan egongo. Izan ere, Basilioren ibilgailuak, jaitsiera osoan orpoz orpo jarraiki izan dudanak, abiadura moteldu du biztanlegunea ikustean, jazarpenarekin amore emanez bezala. [...]

Autoa aparkatzen dut, saltokian sartzen naiz, eta aurpegiera irrikorra jartzen ahalegintzen naiz. Arantxak, dudan enplegatu bakarrak, begikotasunez agurtzen nau. [...] Ohi bezala, bazkaldu aurretik poteo-ibilbidea egitera ateratzen naiz, *poteo* izena erabiltzen baitute gazteek txikiteoari esateko. Jaime Arrese, Elgoibarreko alkate ohia, [ohiko kidea da] errondan; [...] aurki, ETaren beste hildako bat izango da. (102-103 or.)

«Airea behar dut —esaten diot idazkariari—. Buelta bat ematera aterako naiz.» Zalantzak argitu nahi ditut, eta aurrez aurre ikusi nahi ditut Basilioren eta bere lagunen aurpegiak. Ez dut inor ikusten, baina susmoa ziurtasun bilakatu zait ia. Hainbestekoa da sentitzen dudana larridura, non saltokira itzultzen bainaiz eta zera esaten baitiot Arantxari: «Ez zait pasatzen. Atzeratuko naiz pixka batean, itzuli aurretik». Egia aitortzeko zorian egon naiz [...]. [...]

Ahul nago fisikoki, baina indartsu adore aldetik. Giza sakrifizioen Jaungoiko horrekin

hitz egin nahi dut, eta galdetu nahi diot ea zergatik eta zertarako, ea zergatik niri eta ea noiz. [...]

[...]

Arimako indar batzuek kanpora bultzatzen zaituzte, ekintzara, baikortasunera; beste batzuek, berriz, barrurantz uzkuratzen zaituzte, geldirik egotera, ezkortasunerantz bultzatzen zaituzte. Orain, honelaxe ikusten dut neure burua: uzkur, barrurantz bultzatuta, eta, gainera, amildegiaren ertzean, geldiarazita, nola saihestu pentsatzeko ere indarrrik gabe. Argia falta zait; zulo beltz bat baizik ez dut ikusten. [...] (121-123 or.)

Saltokitik ateratzen naizenerako, ilundu du eta etengabe ari du euria. Korrika joaten naiz autoraino. Ikaragarrizko gogoak ditut etxera iristeko; koadrilakoek egiten duten txikiteo-saiora ere ez naiz joango. Nire familiarekin egon nahi dut, eguneko gertaerek nostalgia mugagabea sentiarazi baitidate. Une honetan, buruan dudan asmo bakarra Azkoitira lehenbailehen heltzea da.

Egia esan, behar nuena baino denbora laburrago ematen dut familiarekin, ia asteburuetan bakarrik, bestelako hitzordurik agertzen ez bada. [...]

Erabakitasunez zeharkatzen ditut Elgoibarko kaleak, eta Txarriduna tabernara iristean, Azkoitiko norabiderantz jotzen dut. Hala ere, senetz moteltzen dut abiadura, Basilioaren autoa ikusten baitut tabernako espaloian, aparkatuta eta hutsik dagoela. Ez dakit zergatik, baina buruz ikasten dut matrikularen zenbakia. Une batez gelditzen naiz, orri-pusketa batean

jasotzen dut, eta jakaren eskuineko poltsikoan gordetzen dut. Zehatz-mehatz begiratzen dut inguruetatik, baina ez dut ezer susmagarririk ikusten, eta bidean aurrera jarraitzen dut. Basilioaren irudia agertzen zait gogoan berriz ere. [...]

► **Arimako indar batzuek kanpora bultzatzen zaituzte, ekintzara, baikortasunera; beste batzuek, berriz, barrurantz uzkuratzen zaituzte, geldirik egotera, ezkortasunerantz bultzatzen zaituzte. Orain, honelaxe ikusten dut neure burua: uzkur, barrurantz bultzatuta, eta, gainera, amildegiaren ertzean, geldiarazita. Argia falta zait; zulo beltz bat baizik ez dut ikusten**

Elgoibarretik urruntzen naiz, eta Kalbarioko aldapa igotzeari ekiten diot; barkatu, Azkarateko aldapa esanahi nuen. (Hau da hau inkontzientearen kapritxozko jokoa, paralelismo hori egitera eraman nauena!) Egun eguzkitsua dela, alderdi hau pintoreskoa, ikusgarria eta zoragarri bada ere, honen moduko gau euritsu eta ilunetan goibela eta zorigaiztokoa da. Abiadura ederrean noa, baina arduragabekierarik egin gabe. Azkarateko mendatea benetan arriskutsua da euria ari duenean, eta nik, batez ere, iritsi nahi dut. Ni baino ausartagoak diren bi autok aurreratzen naute, eta izu-ikara eragiten dit haietako bakoitzak.

[...] Harritzekoa bada ere, autoak ez nau aurreratzen; nire atzean jartzen da, ondo-ondoan ezarririk. Begirada zorrozten dut atzerako ispilutik, eta horra nire beldurrak! Basilioen begitartea bereizten dut argi eta garbi. Bakarrik gidatzen du nire atzetik doan autoa; zalantzarik gabe, zorigaiztokoa izango da.

[...] bat-batean azeleratu egiten dut, eta tinko heltzen diot bolanteari. Nire autoko gurpilek kirrinka egiten dute hurrengo bihurgunean, lantu luze bat joz, baina,



ETA erakundeak 1980. urtean hil zuen Ramón Baglietto.

berehala, tarte handia ateratzen diot Basilioen autoari. Keinua uzkurtuta, lasterketa bizian aurrera jarraitzen dut. Gero eta ziurrago nago Basiliok ezin izango nauela ibilbide horretan harrapatu. Gero eta tarte handigoa ateratzen diot, baina ETako kume hauek dena dute kontrolpean haien zeregin odoltsua burutzeko. Gainera, ondo hezita daude... Izan ere, hurrengo bihurgunea oso nabarmena da, eta abiadura moteldu behar dut ezinbestez arriskurik ez hartzeko. Hortxe daude zelatan jarrita, behar bezala armatuta, Basilioen beste bi adiskideak. Basilioen zeregina, oraingoz, hauxe izan da: erbia harrotzea, eta bere adiskideei hasteko seinalea ematea. Hori ez zitzaidan burutik pasa ere egin. Ohartzen naizenerako, bala batzuek talka egiten dute autoan eta haietako bik bularrean sartzen zaizkit. Bat-bateko bolante-kolpea jotzen dut, eta, kontrola galdua, autoak bortxaz jotzen du arroilan dagoen zuhaitz baten aurka.

► **Urrats tinkoak eta irmoak eginez ibiltzen da. Aberriko heroien zerrendan sartuko da azkenik. Hoztasunez jartzen du nire lokia bere pistolaren tirabidean, eta harrotasunezko keinu batez egiten du tiro**

Kordea galtzen dut erabat, ez dakit zergatik; beharbada, jasotako balengatik, edo talkaren bortizkeriagatik. Ez dakit hilda nagoen edo ez. Baina nire erasotzaileek ez



dute zalantzarik izan nahi. Renault 4-a nire autoaren atzean gelditzen da, eta Basilio lasai-lasai ateratzen da bertatik. Pozez gainezka dago. Badirudi nire hitzak dituela gogoan: «Seko hilda utzi beharko nauzu!». Etxeko markako pistola bati heltzen dio eskuarekin: 9 milimetro Parabelum. Urrats tinkoak eta irmoak eginez ibiltzen da. Aberriko heroien zerrendan sartuko da azkenik. [...] Hoztasunez jartzen du nire

loki bere pistolaren tirabidean, eta harrotasunezko keinu batez egiten du tiro. 1980ko maiatzaren 12a da. Gaueko bederatziak dira. Goian behean ari du euria. (133-136 or.)

**Iturria:** Pedro Mari Baglietto, *Un grito de paz. Autobiografía póstuma de una víctima de ETA*, Madril, Espasa Calpe, 1999, 34-136.

Oharra: Jarduera osatze aldera, Pedro Mari Bagliettok Biktimekiko Elkartasunerako IV. Jardunaldietan esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu. Jardunaldi horiek Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatuta zituen, eta Bilbon egin ziren 2005eko ekainaren 22an. Jardunaldietan egindako esku-hartzeak biltzen dituen DVDa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).



# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

6

## Nork hil zuen nire senarra?

### Helburuak

- Indarkeriazko gertakari batzuk onartzea, terrorismo gisa sailkatu behar baitira zalantzarik gabe, giza eskubideen urraketa larria sorrarazi baitute gure herrialdean.
- Biktimen sufrimenduarekiko enpatia bultzatzea, Laura Martínen lekukotasunaren bidez.
- Estatuak egiten duen indarkeriari buruz hausnarketa egitea, eta terrorismoaren aurka borrokatzeko berak erabiltzen dituen baliabide berberak erabiltzea hutsegite larria dela ikustea, era horretan Estatuaren ekintza terrorismo bilakatzen baita.

### Metodologia


1. Lehenik eta behin, dinamizatzaileak dagokion testuinguruan kokatuko du Laura Martínen adierazpena. Horretarako, urte hartako historia berrikusiko du, eta gogora ekarriko du GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación) izenez ezagutzen den zorigaitzoko taldea zein egoeratan agertu zen.
2. Horren ondoren, ikasle bakoitzak bere kabuz irakurriko du testua.
3. Ikasle batek ahots ozenez irakurriko du adierazpena.

Juan Carlos García  
Goenaren kasua: GAL  
taldeak hil zuen 1987ko  
uztailaren 24an. Hemen,  
bere alarguna den Laura  
Martínek emandako  
lekukotasuna jaso dugu.

4. Azkenik, dinamizatzailleak eztabaidari ekingo dio, eta aurrerago agertzen diren galderak egingo dizkie ikasleei. Interesgarria izan daiteke aurrez liburu honen pasarte batzuk irakurtzea: *Estigma*, Erving Goffman (Buenos Aires, Amorrortu, 2003 [jatorrizko argitalpena, 1963]). Iruzkina egiten hasi aurretik, galdera hau egin dezakegu: ba al dago desberdintasunik terrorismo-moten artean?

## Juan Carlos García Goenaren alarguna den Laura Martínen lekukotasuna

Siglek ez dute garrantzi handirik. Nire senarra hil zutenak terroristak direla onartu behar dugu, besterik gabe. GAL taldearen biktimak garenok ezin izango dugu biktima errugabe gisa dugun izaera aldarrikatu, aurrez, ETA talde terroristak egin dituen atentatu guztiak gaitzesteko gauza ez baldin bagara. Izan ere, gizartearen aurrean justizia aldarrikatzen jarraitzeko eduki behar den aginpide moral aski izan



GAL taldeak 1987. urtean hil zuen Juan Carlos García Goena.

► **GAL taldearen biktimak garenok ezin izango dugu gizartearen aurrean justizia aldarrikatzeko behar adinako aginpide moralik eduki, aurrez, ETA erabat gaitzesteko gauza ez baldin bagara**

nahi badugu, ETA zorrotz gaitzetsi behar dugu. Batzuek ETAREN krimenak zurrizko erabili nahi naute; beste batzuek, berriz, nire senarraren heriotza justifikatzen dute, ETAREN existentzia oinarritzat hartuz. Dei hau egin nahi diot Hendaia Presoen eta Errefuxiatuen Aldeko Batzordeari: ETAREN terrorismoa gaitzetsi dezan, anbiguotasunik gabe, eta alde batera utzi dezan datorren larunbatean nire senarrari omenaldia egiteko duen proiektua.

**Iturria:** *El Diario Vasco*,  
1997ko uztailaren 25a.

## Eztabaidatzeko galderak

1. Cristina Cuestaren *Contra el olvido...* izeneko liburuan jasotako lekukotasunean, Laura Martínek —GAL taldeak hildako Juan Carlos García Goenaren alargunak— zera esaten du:

Heriotza guztiak ezin zuritu daitezkeen akatsak dira, baina guri dagokigunean, terrorista bihurtu zuten, eta horrek min handia ematen du.\*

Beste kasu batzuetan bezala, talde hiltzaileak hildakoaren oroimena zikindu nahi izan zuen. Hori bigarren heriotza psikologikoa bezalako zerbait da familiarentzat.

- Hausnarketa egin ahal duzu estigmari buruz?
- Zer da, zer esan nahi du *estigma* hitzak?
- Nola sentitzen dira estigmatizatuta dauden norbanakoak?
- Nork banatzen ditu sonaren eta estigmaren ikurrak Euskal Herrian?

2. Bila ezazu *Estatuaren indarkeria* terminoa hemerroteketan:

- Zer da *Estatuaren terrorismoa*?
- GAL talde terroristari izen hori ezarri ahal zaio?
- Ezagutzen al duzu Estatuaren indarkeriaren edo Estatuaren terrorismoaren beste adibideren bat?

3. Bestalde, Laura Martínek hauxe adierazten du:

Vera eta Barrionuevo indultatu zuten eguna izan zen nire bizitza osoko bigarren egunik txarrena, Juan Carlos hil zuten egunaren ondotik.\*\*

Terrorismoaren biktima askok bat egiten dute era horretako baieztapenekin. Kexatzen dira, indarkeria eragin dutenak nola tratatzen dituzten ikusita: indultuak, zigor arinak, omenaldiak beren sorterrietan, eta abar.

- Zure ustez, mota horretako gertaerak beste umilazio bat al dira biktimentzat?
- Egoera horietan, zure ustez, biktimek zer eskatu behar dute? Mendekua edo justizia? Arrazoitu zure erantzuna.

---

\* Cristina Cuesta, *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000, 87-95, 91.

\*\* Ibidem, 95.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

7

## Jazarpeneko indarkeriaren eta beldurra sozializatzearen ondorio ezkutua

### Helburuak

- Jazarpeneko indarkeriaren biktimekiko enpatia piztea eta eraginkortasunez entzutea.
- Gure gizartean zenbat pertsona edo talde dauden mehatxatuta jakitea.
- ETA erakunde terroristak mehatxatutako pertsonen artean egoteak ekartzen dituen ondorio sozialak eta pertsonalak zehaztea.
- Alderdi eta ideologia politiko jakin batekoak diren pertsonak, ideia horiek bide baketsuak eta demokratikoak erabiliz babesteagatik, hiltzeko mehatxupean egoteak gizarte demokratiko batentzat duen garrantzia jakitea.

### Metodologia

Jazarpeneko indarkeriaren biktima baten kasua. Hemen, Bakearen Aldeko Koordinakundeko kidea den Barse Medina Carballok egindako deskribapena jaso dugu. Benetan jazotako gertaeretan oinarrituta dago.

1. Jardueraren amaieran, jazarpenaren biktima baten kontakizuna agertzen da. Kontakizun hori irakurri ondoren, ikasle bakoitzak bukaera desberdin bat idatziko du testuari amaiera emateko, Koldok laguntza eta maitasuna jaso zituela irudikatuz edo, bestela esanda, gizartearen besarkada jaso zuela pentsatuz.
2. Rol joko bat egingo dugu, Koldok nozitzen duen enpatia eza eta presiopeko egoeretan parte hartzen



дутен pertsonaiekin. Adibidez, ikastetxera seme-alabak jasotzera joaten denean agertzen direnak, edo adiskideek politikan zergatik jarraitzen duen ulertzen ez dutenean azaltzen direnak aintzat hartuta.

Ikasleek kontuan izan behar dute rol jokoetan ondo hausnartu behar direla pertsonaia jakin bat modu zehatz batera jokatzera bultzatzen duten arrazoiak. Kasu honetan, beldurrak garrantzi handia du. Besteak beste, pertsonaia hauek sar daitezke:

- *Koldo*: ETA talde terroristak mehatxatutako pertsona; ETAREN ikuspegiarekin bat ez datozen ideiak dituen alderdi politiko bateko kide izateagatik dago mehatxupean. Gogoan izan behar dugu pertsona horiek, beren ideologia politikoa babesteagatik arriskuan egoteak sorrarazten dien beldurra gainditzen dutenean, kultura demokratikoa bermatzen ari direla.
- *Gurasoak*: Koldorengandik urrutiratzen dira, eta zail egiten zaie egoerarekiko enpatia erakustea, ziurrena, ETAK Koldoren aurkako atentatua eginez gero, horrek haien seme-alabengan eta beraiengan eragina izango lukeelako, eta horrek beldurra ematen dielako. Ezin dugu atzendu, jende askoren ustez, jazarpeneko indarkeriaren biktima diren horiek, nolabait, nozitzen duten egoera sorrarazi dutela, bestela, ez baitzuten beren burua politikan sartuko.
- *Adiskideak*: ezin dute ulertu zer dela-eta jarraitu behar duen Koldok politikan sartuta, bere eta bere senideen bizitza arriskuan jarritz.
- *Emaztea*: urduri eta obsesionatuta dago, gogo menderatuta, testuan aipatu ditugun segurtasun-neurriak betetzeko, eta telefonoaren mende beti.
- *Seme-alabak*: ahal duten heinean aita pairatzen ari den egoera ezkututzen dute, estigmatik ez hartzeko edo etiketatuta ez sentitzeko.

Egokitzat jotzen diren pertsonaia guztiak sar daitezke. Hala, hautatutako pertsonaien rola jokatu, rol-jokoa antzetzeko dugu. Gainerako ikasleek behatze-lana egingo dute.

3. Ikasleei testua banatuko diegu, eta banaka erantzungo diete galdera hauei; gero, galdera horiek baliagarriak izango zaizkigu eztabaida bideratzeko:

- Zer iruditzen zaizu Koldok, laguntzarik ez izateaz gain eta gizartearen elkartasuna ez jasotzeaz gain, bere burua erruduntzat hartzea, ikastetxean bere seme-alabekin batera dauden gainerako neska-mutilak arriskuan jartzeagatik? Zuk zein jarrera hartuko zenuke, aita edo ama horietako baten larruazalean egonez gero? Eta Koldoren larruazalean egonez gero?
- Ba al zenekien zein ziren ETAren mehatxupearan dagoen pertsona batek hartu behar dituen segurtasun-neurriak? Zer iruditzen zaizu?
- Testuaren arabera, zein ondorio nozitu du Koldok talde terroristaren mehatxupearan egozteagatik? Zure ustez, zenbat jende dago egoera horrexetan? Ikertu ezazu.
- Bat egiten duzu esaldi honekin, edo zugandik urruti dagoela uste al duzu?: «Mehatxu egiten badizute, eraso egiten digute». Zergatik?

## Jazarpeneko indarkeriaren biktima baten kasuaren kontakizuna

Koldoren istorioa orain dela hainbat urte hasi zen, berak hogeita hamar urte ere ez zituela. Ordurako ezkondua zegoen, eta bi haurtxoren aita zen. Hala berak nola emazteak lan finkoak zituzten, eta aitita-amamek laguntza ematen zieten haurtxoak zaintzeko.

Orain arte esandakoak antza handia du gure herrialdeko lagun askoren bizitzarekin. Gizartean, urte gogorak ziren haiek, eta indarkeria terroristaren ondorioz norbait hiltzen zenean, Bakearen Aldeko Koordinakundeak kale-agerraldiak egiten zituen hurrengo egunean gure udalerrian. Kale-agerraldi haietan Koldorekin topatzen nintzen maiz, biek gure arbuiorik handiena adierazi nahi baikenuen.

Pixkanaka-pixkanaka, harreman hasi berri hori finkatzen joan ginen. Egun batean, kaletik gurutzatu ginen, eta harritura geratu nintzen, aldamenean bi pertsona zituela ikusita, bere urratsak gertutik jarraitzen zituzten bi pertsona. Bizkartzainak ziren! Arrazoi bat dela edo bestea dela, ETAK areriotzat hartzen zituen pertsonen artean zegoen ordurako. Pertsona horien kopurua gero eta handiagoa zen, eta herio-mehatxupean zeuden.

—Ez nekien PPko zinegotzia zinenik!  
—esan nion.

—Ez zaitez kezkatu, ia inork ez daki-eta —erantzun zidan, ziurrena tristura handiz, bizkartzainak beren urrats guztiei jarraiki ikustean handik aurrera jendea jakinaren gainean egongo zelako, oso nabarmena baitzen.

- **Egun batean, kaletik gurutzatu ginen, eta harritura geratu nintzen, aldamenean bi pertsona zituela ikusita. Bizkartzainak ziren! Arrazoi bat dela edo bestea dela, ETAK areriotzat hartzen zituen pertsonen artean zegoen ordurako. Pertsona horien kopurua gero eta handiagoa zen, eta herio-mehatxupean zeuden**

Ohartzen zen zigor hura ETAK ezarri ziola, baina uste zuen gizarteak ez zekiela zigor horri bidea eragozten. Aitzitik, jendearen axolagabetasunak areago handitzen zuen zigorra, eta horrek ematen zion min gehien.

Haren bidez eta bera bezalako beste batzuen bidez jakin nuen zein egoera mingarriari egin behar zioten aurre egunero: intimitatearen galera, jazarpen etengabea, familiaren presioa. Gizarte gehiena, gainera, ez zen ohartzen egoera horretaz.

Familia osoak ikasi behar izan zituen *bizirik irauteko* oinarrizko arauak, eta, aldi berean, *familia arrunt* baten moduan jokatzeko jarraitu behar izan zuen. Oheak leiho ondotik urrutiratzea, gauero eskuoihal hezeak leiho azpian jartzea, postontzia ez ukitzea, norberaren ibilgailua ez erabiltzea ezinbestekoa denean izan ezik... Zerrenda amaigabe bat: eguneko arretak, txikientzako aholkuak eta aitaren lagun berriei buruzko azalpenak.

Behin Koldok zera esan zidan, guztiz nahigabetuta: gurasoen talde bat kexatu zela, eta seme-alaben bila arratsalde ez joateko eskatu ziola, zentrorra hurbiltzen zenean arriskuan jartzen baitzuen gainerako haurren bizitza. Bestalde, bere lagun, auzoko eta senide batzuek ez zuten ulertzen kargu publikoari eusteko zuen tema, azken batean hori baitzen bere atsekabeen iturria.

Egoera larriagotzen joan zen apurka-apurka. Lagunen eta adiskideen hilketak izan ziren.

Azkenik, gogoz kontra, Euskal Herritik kanpo zegoen beste hiri batera joateko erabakia

hartu behar izan zuen. Lekualdaketa eskatu zuen lantokian, eta bizitza berri bati ekitea erabaki zuen. Berak itxaropen handiak zituen jarriak bizitza horretan, uste baitzuen bizkartzainik gabe ibili ahal izango zela, eta, azkenean, intimitate pixka bat lortu ahal izango zuela familiaren ondoan.

► **Familia osoak ikasi behar izan zituen ‘bizirik irauteko’ oinarrizko arauak, eta, aldi berean, ‘familia arrunt’ baten moduan jokatzeko jarraitu behar izan zuen. Zerrenda amaigabea zen: eguneko arretak, txikientzako aholkuak eta aitaren lagun berriei buruzko azalpenak**

Urte pare bat baizik ez dira igaro, eta orain Koldo bere hiritik kanpo bizi da, bere familiarik gabe.

Inoiz ez zuen lortu ETAk —eta oso lagungarria, atsegina edo ulerkorra ez zen gizarte-inguruneak— triskatu zuen familia berriz osatzea.

**Iturria:** Barse Medina Carballoren kontakizuna (Bakearen Aldeko Koordinakundeko kidea).





# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

8

## Indarkeria arbuiatzeak dakarren ordaina

### Helburuak

- Ekintza terrorista alde batera utzi duten pertsonen berri izatea, eta erakundeak horri eman dion erantzuna zein den jakitea.
- Bizitza babesteak duen balioa nabarmentzea, bizitza kentzearen aurrez aurre jarri.
- Giza eskubideak pertsona guztiei onestea, salbuespenik gabe.
- Hausnarketa pertsonala piztea, gure banakako erantzukizunari buruz gogoeta egin dezagun.

### Metodologia

1. Lehenik eta behin, ikasleei gonbidapena egingo diegu hitz hauek koka ditzaten 0 eta 10 arteko eskala batean (0: oso txarra; 10: oso ona): *atzera egitea, iritiz aldatzea, damutzea*.
2. Gero, solasaldi labur bat egingo dugu, taldearen guztizko balioespenean ateratako emaitzak aztertze-ko.
3. Solasaldiaren ondoren, kontakizuna irakurriko dugu, zalantzak argituko ditugu, beharbada atalen bat ez baita behar bezala ulertu, eta, gero, eztabaida txikia egingo dugu galdera hauen inguruan:

ETAko kidea izan zen Miguel Solaun Anguloren kasua: ETAk hil zuen 1984ko otsailaren 4an. Hemen, hilketa izan baino urtebete lehenago familiari bidalitako gutunak, eta hilketa gertatu eta berehala argitaratu ziren zenbait lekukotasun jaso ditugu.

- Zuen ustez, erakunde terrorista bateko kidea izan den pertsona bat beti egongo al da behartuta erakundearekin lankidetzan aritzera?
  - Mikel Solaun arriskutsua al zen ETarentzat? Arriskutsua bazen, zergatik zen arriskutsua?
  - Mikel Solaunek mehatxuak jaso zituen, jo zuten, eta, azkenean, hil egin zuten. Terrorismoaren gainerako biktimekin erkatzen badugu, zerbaitetan desberdintzen al da?
  - Haren hilketa justifikatuta al dago? Ba al dago salbuespenik, pertsona baten aurkako erasoak edo hilketa justifikatzeko?
  - Ezagutzen al duzue horrelako beste kasuren bat, ETaren barneko desadostasunaren adierazgarri dena?
4. Jarduera bukatzeko, parte-hartzaile bakoitzak idazlan labur bat idatziko du banaka (bost eta hamar lerro bitartekoa). Eztabaida zuzendu duen pertsonak testuak bilduko ditu, hitzaurrea harriko die, eta denon artean banatuko ditu.

## Miguel Solaun Anguloren kasuaren kontakizuna

Miguel Francisco Solaun Angulok lehergailuak lapurtzeko ekintza batean parte hartu zuen 1969. urtean, ETAko beste hiru kideekin batera. Bilboko La Salveko Guardia Zibilaren kuartelaren ondoren zeuden eraikuntza-obretan egin zuten lapurreta. Lehergailu horiek hainbat atentatutan erabili zituzten. Era horretan, erantzuna eman nahi zioten diktadura garaiko poliziak erakundeko hainbat kide atxilotuz egindako ekintzari.

► **50 kilogramoko dinamitako lehergailua jarri nahi zuten habe nagusietako batean. Eraikinaren inaugurazioko ekitaldian leherrarazi nahi zuten**

Geroxeago atxilo hartuko zuten ingeniari hau izan zen ETAREN historian sekula izan den ihesik arrakastatsuenaren arima: ETAko hamar kidek ihes egin zuten Basauriko espetxetik, bost preso arruntekin batera. Bere ezagutza teknikoak baliatzeaz gain (ihes egiteko erabili zuten tunelaren egilea izan zen), iheslari guztiak biltzeaz arduratu zen.

Horren ondoren, demokraziaren garaian, Mikel Solaunek ETA utzi zuen, jendaurrean azaldu gabe. Horri buruzko isiltasuna gordetzearren, Venezuelara erbesteratuta joatea ere onartu zuen. Gero, Euskadira itzuli zen, eraikuntza-arloko enpresa bateko gerente gisa aritzeko. Enpresak jaso zituen enkarguetako bat hauxe izan zen: Algortan etxebizitza-multzo bat eraikitzea Guardia Zibilarentzat.

Solaunek sarritan berrikusten zituen eraikuntza-lanak. 1980. urtean, bere lagun zahar batek, ETAko kidea ere izandakoak, berarengana jo zuen, eta Guardia Zibilaren konplizea izatea leporatu zion. Horren ondoren, erakunde terroristako bi kide azaldu ziren obran, igeltsero-lanetarako kontratatu zitzaizkien. Solaunek ezetz esan zien, baina terroristak ingeniariaren alaben ikastetxeko datuak bilduta itzuli ziren, eta, horiek horrela, ingeniariak sarbidea erraztu zien.

Bi lagun horiek hiru egun eman zituzten lanean, informazioa bilatzeko. 50 kiloko dinamitako lehergailua jarri nahi zuten habe nagusietako batean. Eraikinaren

inaugurazioko ekitaldian leherrarazi nahi zuten. Helburu nagusia Sáenz de Santamaría Guardia Zibilaren jenerala zen, baina ekitaldira joango ziren gainerako guztiak ere bai.

ETAk lehegailua sistema elektrikoarekin lotzeko ardura eman zion Solauni; lehegailua jarri ondoren bete beharko zuen lan hori. «Ez nuen ezer ukitu, zegoen bezala utzi nuen dena, konektatu gabe», adierazi zien senideei. Erakunde terroristak dei egin zion berriz, eta ingeniariak gezurra esan zien, dena prest zegoela ziurtatu baitzuten. Handik aurrera, zenbait zuhurtzia-neurri hartu zituen, lehegailua jarri zuten ETako bi kideek aurkitu ez zezaten.

Gero, indar gutxiko lehegailu batek egin zuen eztanda obretan, eta, hortaz, Solaunek poliziarri adierazi zion komenigarria zela instalazioak ikuskatzea, lehegailuak aurkitzeko trebatutako txakur batekin. Dinamita aurkituko zuela espero zuen. «Zoritxarrez, txakurra ate aurretik igaro zen, baina ez zuen ezer usaindu», azaldu zuen Solaunek berak handik denbora batera. Berriz eskatu zien poliziei dena ikuska zitzaten, baina alferrik izan zen.

1981eko azaroan, lehegailua jarri zuten bi ekintzaileak atxilotu zituen poliziak, eta, azkenean, lehegailua aurkitu eta Solaun ere atxilotu zuen. Soriako espetxean sartu zuten, ETari lankidetza ematea leporatuta, eta han preso zeuden lau terroristek jipoi bat eman zioten: saihets bat hautsi, eta hiru ebaki egin zizkieten buruan.


Espetxetik familiari bidali zizkion bi gutunetan, Mikel Solaunek onartzen zuen herio-mehatxupean sentitzen zela.

1982ko martxoaren 21eko data duen gutuna hitz hauekin bukatzen da: «Gutun hau idazten dizut, bihotza eskuan jarririk. Beldur naiz, beldur naiz! ETA pm-koek\* nolabait babesten naute, eta funtzionarioek eta Polizia Nazionalak gertatzen zaidanaren berri dute, baina ezin dut ideia hau burutik kendu: haietako batek deskuidu txiki bat edukiz gero, hilotz izango naiz».

► **Soriako espetxean sartu zuten, ETari lankidetza ematea leporatuta, eta han preso zeuden lau terroristek jipoi bat eman zioten: saihets bat hautsi, eta hiru ebaki egin zizkieten buruan**

Mikel Solaunek laguntza eskatu zien garai hartan Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua zen Juan Porresi eta gaur egun [2006] senataria eta sailburua den Joseba Azkarragari. Bien artean, Solaun aska zezaten lortu zuten, eta izapideak egiten hasi ziren, pasaporte bat emateko. 1984ko otsailaren 4an, Bilboko taberna batean zegoela, komando batek tiro egin zion ahoan. ETak «traidorea eta poliziaren lankidea» izatea leporatu zion, eta haren hilketa zuritu zuen, «beren egoerari irtenbide pertsonala bilatu nahi dioten presoiei egindako ohar bat» zela esanez.

\* ETaren adar politiko militarreko kideak, hau da, geroxeago armak alde batera utzi zituen adarrekoak.



Miguel Solaun Angulo ETAko kidea izandakoa 1984. urtean hil zuen erakunde terroristak, «traidorea eta poliziaren lankidea izatea» leporatuta.

- ▶ ETAk «traidorea eta poliziaren lankidea» izatea leporatu zion, eta haren hilketa zuritu zuen, «beren egoerari irtenbide pertsonala bilatu nahi dioten presoek egindako ohar bat» zela esanez

Hilketa hori izan aurretik eta horren ondoren ere bai, erakunde terroristak ETAko kide ohi zahar batzuk hil ditu, batzuetan atentatuak saihesteko, eta, beste batzuetan, kide horien ikuspegiarekin bat etortzen ez zelako.

**Iturria:** Ricardo Aranaren kontakizuna (Bakeaz erakundearen Bake eskolako kidea, 2006).





# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

9

## Ideologiaren gainetik pertsonak daude

### Helburuak

- Hausnarketa egitea estortsioak eta xantaiak berez duten indarkeriazko ekintzari buruz.
- Gogoan izatea bizitza salbatzeko dirua eskatzea legezkoa ez den indarkeria erabiltzeko era krudel bat dela.
- Hausnarketa egitea mehatxu terroristaren beldurrak Euskal Herriko industrian eragin dezakeen giza baliabideen galeraz eta izan dezakeen kostu ekonomikoaz.
- Sabinoren diskurtsoa entzunda, adiskidetasunak eta maitasun pertsonalak gorrotoa gainditzeko duten garrantziaz ohartzea.

### Metodologia

1. Dinamizatzailerak Sabino Izaren lekukotasuna banatu-ko die ikasleei; ikasleak taldetan jarrita egongo dira. Testuaren irakurketa dramatizatua egin daiteke.
2. Ikasle bakoitzak bere kabuz irakurriko du Sabinoren lekukotasuna, eta gehien hunkitu duen esaldia hautatu eta idatziko du.
3. Minutu batzuk igaro ondoren, eztabaida hasiko da, jasotako esaldi guztien artetik, benetan garrantzitsuak eta taldeak jasotzeko modukoak zein diren erabakitzeko.

Sabino Izaren kasua. Arabako Enpresarien Sindikatuko burua izan zen hainbat urtetan. Indar handiz bizi zituen ETaren mehatxupeko eta estortsiopeko urterik latzenak. Oso gogorra egin zitzaion Jose Maria Korta lagunaren hilketa gertutik ikustea. Hala ere, ereduzko lekukotasuna eskaintzen digu, adiskidetasunaren eta maitasunaren bidez gorrotoa gainditzeko.

4. Talde handian, bateratze-lana egingo dute, talde txikietan aztertutako esaldiak lantzeko, eta haiei buruzko eztabaidari ekingo diote. Eztabaida dinamizatzeko, hezitzaileak galdera hauek egin ditzake:

- Zuen ustez, xantaia indarkeria-mota bat al da?
- Xantaiak edo estortsioak egoera zailik, eta gaitz fisiko edo psikologikorik eragin al dezakete nozitzen dituztenen baitan?
- Sabinok aitonaren esperientziari buruz esandako hitzak irakurri ondoren, zuen ustez, adiskidetasuna estrategia egokia izan daiteke benetan gorrotoa gainditu ahal izateko?

5. Bukatzeko, dinamizatzailleak galdera hauek egin ahal dizkio taldeari:

- Xantaia edo estortsioren bat jaso al duzue ikastetxe barruan nahiz kanpoan?
- Nola bizi izan duzue; eta, hala bada, nola gainditu duzue?
- Ulertu ahal duzue estortsioa jasotzen duen pertsonaren sufrimendua?

## Sabino Izaren lekukotasuna

Une zailetan gehien mintzen ninduen —eta orain ere mina ematen dit— zera zen: hizkuntza nola gaiztotu dugun ikustea. Zerga iraultzailea hitzak erabili ditugu, xantaia edo estortsio bat zenari deitzeko. Zein zerga iraultzaile! Hori xantaia eta estortsioa besterik ez da. Dei diezaiogun gauza bakoitzari dagokion izena erabilita. Eta natural bezala ikusi ditugu horren moduko kontu asko, baina ez ziren naturalak. Eta askotan irabazi gaituzte. Horretan ere bai: hizkuntzaren eta dialektikaren perbertsioan ere bai. Horrela, gizarteari azpiak jaten joan da, eta egindakotzat eman dugu.

Beste egoeretako bat, zera... Nik bizkartzaina izan nuen, jakina. Jose Mari Korta hil ondoren, bost urte, hiru hilabete eta hemezortzi egun eman nituen bizkartzainarekin, 2000ko irailaren 3tik 2005eko abenduaren 21era arte. Epai bat ematen du, bost urte hiru hilabete eta hemezortzi egun horiek ikaragarri gogorak izan baitziren, horrek zure ingurunean, familiei, adiskideei begira dituen ondorioengatik... Hala ere, bizkartzaina izateak duen alderik gogorrena ez da bizkartzaina hor egotea, ez eta horrek baldintzatzen zaituena ere. Gogorrena zera da: sorrarazten dizun erru sententzia. Une batean, zera pentsatu nuen:

nik neuk bilatu nuela bizkartzaina izatea. Jende gutxi zegoen... Lehenik, Laudion —ni Laudion bizi bainaiz—, normalean, goiz erdian, zerbait egitera ateratzen zinenean, jendea ez zen zurekin gelditzen hizketan aritzeko, beldurra ematen ziolako zure ondoan egoteak. Alde egiten zuten. Eta sententzia hori zen, zera... baina, nik zer egin dut? Azkenean, geratzen zinen... ematen zuen zuk bilatu zenuela egoera hura, eta merezi zenuelako zeneukala bizkartzaina. Oso jende gutxi zegoen... oso jende gutxi... Batzuk, bai, hurbildu ziren, eta esan zidaten... Laguntza eta hurbiltasun hori adierazi zidaten une horietan...

► **Azkenean, jendeak adierazi nahi zizun zuk bilatu zenuela egoera hura, eta merezi zenuelako zeneukala bizkartzaina**

Nire aita gudaria izan zen. Nire aitona Laudioko *batzokía* zuen bere taberna-jatetxean, gerra aurretik. Aitonari hiru seme-alaba hil zizkioten: seme bat Araba gudarostean hil zuten, eta bi alaba bonbardaketa batean. Sei seme-alabetatik, hiru geratu ziren. Gero espetxean egon zen,

eta, gerra bukatzean, Orozkoko kuarterera joan behar zuen. Ez dakit hamabostean behin zen-edo, kuarterera joan behar zuen ikuskatu zezaten, baldintzapeko askatasunean zegoelako. Eta han zegoen guardia zibil bat sarjentua zen, eta Orozkoko kuarterel hartako postuko komandantea zen. Eta nire aitona hamabostean behin han joaten zen, azaltzen zen, sinatzen zuen eta hori guztia. Eta handik bi edo hiru hilabetera, gizon horrek ikusi zuen aitona pertsona arrunta zela, Laudioko nekazari bat, eta zera esan zion: «Ez etorri gehiago hona, Braulio.



EL CORREO

Sabino Iza Arabako Enpresaburuen Sindikatuko burua izan zen hainbat urtetan, eta ETA erakundearen mehatxua eta estortsioa pairatu zituen.

Oharra: Jarduera osatze aldera, Sabino Izak Biktimekiko Elkartasunerako IX. Jardunaldietan esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu. Jardunaldi horiek Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatu zituen, eta Gasteizen egin ziren 2010eko ekainaren 16an. Jardunaldietan egindako esku-hartzeak biltzen dituen DVDa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).

Ni handik, Aretatik, igarotzen naizenean... ni igaroko naiz handik, eta orduan sinatuko didazu. Ez etorri gehiago Orozkoraino». Aretatik Orozkoraino joan behar baitzuen, eta sei kilometro ziren, oinez egitekoak. Tira, ba, bi pertsona horiek, bi pertsona horiek... Bat La Salveko postuko komandantea izatera iritsi zen, eta teniente koronela ere bai... Ba, bere auto ofizialarekin, txoferra eta guzti, Orozkotik igarotzen zenean, alde honetako kuarterelak ikuskatzeko ibilbidean, aitona zenean gelditzen zen. Lagun minak izan ziren biak. Hori kontatu nahi nuen, horrela izan zelako. Ni gogoratzen naiz haiekin askaldu nuela batzuetan, aitona beste taberna bat izan baitzuen Aretan. Eta hona etortzen zen, eta aitona askaltzen zuen, eta elkarrekin egoten ziren biak hizketan. Bat La Salveko kuartereko teniente koronela zen, eta nire aitona, berriz, gudari izandakoa. Eta laguntasuna egon zen haien artean, garrantzitsuena pertsonak baitira. Niri familiak inoiz ez dit gorrotorik irakatsi, kontatu dudak guztia jakinda, oso gaizki pasa baitzuten gerra ondorenean. Baina, hala ere, ez didate gorrotorik helarazi, haiek ez baitzuten gorrotorik, nahiz eta gaizki pasatu. Eta adiskidetasun sakona izan zen bien artean, lagunak izan ziren, pertsonak baitzuden ideia eta pentsamendu politikoen gainetik. Hori gailentzen denean, kontu asko daude aurretik bizitzeko, eta bizitza emateko.

**Iturria:** Biktimekiko Elkartasuneko Jardunaldiak, Bakearen Aldeko Koordinakunde, 2010.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

10

## Zorigaiztoko halabeharra

### Helburuak

- Hausnarketa egitea halabeharrez, bereizi gabe eta apetaren arabera egindako ekintza baten ondorioz indarkeriaren biktima izateak esan nahi duenez.
- Eztabaida egitea indarkeria erabiltzeak berez duen izaera makurrari buruz, eta biktimei eragiten dien minari buruz, haien etorkizuna aldatzen eta baldintzatzen baitu.
- Biktimen sufrimenduarekiko enpatiazko jarrera bultzatzea.
- Giza eskubideen urraketaren aurkako jarrera pertsonala sustatzea.
- M.<sup>a</sup> Jesús en kasua abiaburutzat hartuta, ikasgelan eztabaida eta iritzi-trukea sortzea, terrorismoak dituen ondorioei buruz.

El Corte Inglés-eko langilea den M.<sup>a</sup> Jesús Oteizaren kasua. Ez zuen inolako afiliaziorik, zorigaiztoko egun batean kaletik pasieran zebilen bilbotar bat besterik ez zen. ETaren lehergailu batek goitik behera aldatu zuen bere bizitza. Kasuaren oinarrian bere lekukotasuna jaso dugu.

### Metodologia

1. Dinamizatzaileak boluntario bat eskatuko du M.<sup>a</sup> Jesús en lekukotasuna ahots ozenez irakur dezan, ahal dela dramatizatuz.
2. Taldeka jarrita, ikasleek esaldi batzuen esanahia eztabaidatuko dute, eta haien iritzi egiazkoak edo gezurrezkoak diren erabakiko dute. Hona hemen esaldiak:

- Kasu hau askoz ere mingarriagoa eta lazgarriagoa da politikari edo ertzain baten kasua baino, errurik gabeko biktima bat delako.
  - Oso gogorra izan behar du goizean bizitasunez gainezka altxatzeak, eta, banku baten ondotik igarotzeagatik, zure bizitza erabat aldatzen dela ikusteak, lastura zure bizitzaz jabetzen dela ikusteak.
  - Lehergailua jarri zuenak beharbada ez zekien kale horretatik jendea ibiliko zela.
  - Honen moduko gertaera baten ondorioak nekez ezabatuko dira, eta biktimak ahalik eta laguntza gehien jaso beharko du senideengandik, lagunengandik, auzokoengandik eta, oro har, gizarte osoarengandik.
3. Azkenik, ikasleak zirkulu handi bat osatuz eseriko dira. Talde bakoitzean lortutako emaitzak aurkeztuko dituzte, eta txandak hasiko dira azaldu diren gaiei buruz eztabaidatzeko. Nahi izanez gero, azken emaitzak bil daitezke, eta, horiek abiaburutzat hartuta, idazlan bat, arte-lan bat edo aurkezpen bat egin dezakete PowerPoint-en. Gero, aurkezpen bat egin daiteke horrekin ikasgelan, edo, bestela, pasilloetan edo ikastetxeko web-ean eskegi daiteke.



## M.<sup>o</sup> Jesús Oteizaren lekukotasuna

Nire istorioa kontatuko dizuet, hogeita sei urte igaro dira ia... [M.<sup>a</sup> Jesús hunkitu egiten da.] Ni orain ikaragarri ondo nago, jende guztiak esaten dit ondo nagoela... Ni neska bat nintzen, hogeita hamar urte nituen. Gaztea nintzen, eta bi urte bete berriak zituen seme bat nuen... [M.<sup>a</sup> Jesús berriz hunkitzen da.] Lan ona nuen, pozik nengoen, dena ondo zihoan. Eta gau hartan, lau adiskide eta lagun bildu ginen, eta Eguberriko afaria egitera joan ginen.

Sortzez Garbiaren bezpera zen. Poza kalean dagoen La Sotera jatetxera joan ginen mahaiaren erreserba egitera. Hantxe geunden geldituta beste lagun batekin, seigarrenarekin. Eta iristen ez zenez, ardotxo bat hartzera joan ginen. Irtetean, Banco de Bilbao ondotik igarotzen ari ginen, eta... Ikusten denez, ni paretaren ondoan egongo nintzen, zeren, bost gindoazen, baina niri tokatu zitzaidan dena. Korderik gabe egon nintzen hainbat egunez. Bi besoak hautsita, hanka ere bai, begi bat galdu nuen. Masaila ere hautsita izan nuen, eta aurpegia hondatuta... Orduan, nire bizitza goitik behera aldatu zen, ospitaletik atera ondoren, nire

gurasoen etxera bizitzera joan behar izan baikenuen... hirurok: senarrak, semeak eta hirurok. Hortaz, gure bizitza errotik aldatu zen. Pixkanaka-pixkanaka gaintzen joan nintzen, nire gurasoei esker, ikaragarri lagundu baininduten. Txarrena da ez genuela inolako informaziorik izan, ezta laguntzarik ere. Garai hartan Gobernuaren ordezkaria zen Ramón Jáuregiaren telegrama jaso nuen, eta ezer gehiagorik ez. Bertan, lehenbailehen susper nendin opa

► **Korderik gabe egon nintzen hainbat egunez. Bi besoak hautsita, hanka ere bai, begi bat galdu nuen. Masaila ere hautsita izan nuen, eta aurpegia hondatuta... Txarrena da ez genuela inolako informaziorik izan, ezta laguntzarik ere**

zidan. Eta, tira, ni gaztea nintzen, bizitzeko gogoak nituen; eta hala, apurka-apurka, gaintzen joan nintzen.

Gertatzen dena da... tira... Gero arazoak besterik ez zeudela, zeren, lanerako

bidean gertatu ez zenez, ez baitzen lan-istripua izan. Hala, bada, urte eta erdi eman nuen lanerako ezgai-egoeran gaixotasuna dela-eta, anginak dituenak bezalaxe. Ez nuen kalte-ordainik jaso, bankuak ez baitzuen bere gain hartu, ni kaletik pasieran zihoan pertsona bat nintzelako. Kontua da nik semea eduki nuenean lanaldi murriztua eskatu nuela, semea zaindu ahal izateko, eta arratsaldez baizik ez nintzela lanera joaten. Hala ere,

kasu honetan, ezin izan nuen hori egin. Istripua izan nuenean haurtzaindegi batera eraman behar izan genuen semea, aholku hori eman baitzidaten, [berriz hunkitzen da]: etxetik eraman nezan, ni hainbeste sufritzen ez ikusteko. Eta nahiko nuke hau dena behingoz buka dadin...

**Iturria:** Biktirmekiko Elkartasuneko Jardunaldiak, Bakearen Aldeko Koordinakundea, 2010.

Oharra: Jarduera osatze aldera, M.<sup>a</sup> Jesús Oteizak Biktirmekiko Elkartasunerako IX. Jardunaldietan esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu. Jardunaldi horiek Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatu zituen, eta Gasteizen egin ziren 2010eko ekainaren 16an. Jardunaldietan egindako esku-hartzeak biltzen dituen DVDa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

11

Inoiz ez dugu jakin nork egin zuen, ezta zergatik egin zuen ere

## Helburuak

- Indarkeriazko gertakari batzuk onartzea, terrorismo gisa sailkatu behar baitira zalantzarik gabe, giza eskubideen urraketa larria sorrarazi baitute gure herrialdean.
- Mariaren lekutasunaren bidez, biktimen sufrimenduarekiko enpatia bultzatzea.
- Estatuak egiten duen indarkeriari buruz hausnarketa egitea, eta terrorismoaren aurka borrokatzeko berak erabiltzen dituen baliabide berberak erabiltzea hutsegite larria dela ikustea, era horretan Estatuaren ekintza terrorismo bilakatzen baita.

## Metodologia

1. Saioaren dinamiztzaileak taldeko neska bati eskatuko dio Mariaren lekukotasuna irakur dezan. Musika egoikia bila daiteke, atzealdean jartzeko.
2. Irakurri ondoren, ikasleek minutu batzuk emango dituzte banaka gertaera horretaz gogoeta egiten, eta ahalegina egingo dute Mariaren larruazalean jartzeko.

José Antonioren kasua: ilusioz eta bizitasunez beterik zegoen gazte bat zen, posta-zerbitzuan lan egiten zuena. Lehergailu-pakete batek eztanda egin, eta hil egin zuen, bera hartzaileari ematera zihoala. GAL taldeak sekula ez zuen ekintza bere gain hartu. María bere arrebak<sup>11</sup> bere esperientziaren berri ematen digu: sentitu zuen mina, etsipena eta gertatutakoa gañditzeko egin zuen lan eredu-garria.

11. Berriemaileak berariaz hala nahi izan duelako, ez dugu bere benetako izena jarri, haren izengabetasuna gordetzeko.

3. Banakako hausnarketa egin ondoren, ideien zaparrada egingo dugu; arbelean idatziko dituzte ideiak, edo, bestela, *post-it* teknika erabiliko dugu (ikasle bakoitzari kolore desberdinetako bi *post-it* emango dizkiogu). Parte-hartzaile bakoitzak hitz bat esan edo idatziko du, kolore batez margotuta, lekukotasunean ikusi duen alderik txarrenari edo krudelenari loturik; eta beste hitz bat paratuko du, beste kolore batez margoturik, lekukotasunean dagoen alderik baikorrenari edo itxaropentsuenari loturik.
4. Parte-hartzaileek iruzkinak egingo dituzte arbelean ageriko den mapari buruz. Iritzi guztiak errespetatu behar dira, betiere, begirunez, hezibidez eta besteak iraintzeko asmorik gabe egiten badira. Hitz egiteko txandak gorde behar dira, parte hartzen duenari ez zaio etenik egin behar, eta moderatzailearen erabakia onartu behar da.
5. Nahi izanez gero, lortzen diren emaitzekin horma-irudi bat presta daiteke, eta gero ikasgelan jarri. Hor idatzitakoa osatzeko, Maríaren lekukotasunean ikasitakoari buruzko arte plastikoko lan bat egin daiteke, edota prosaz nahiz bertsoz eratutako idazlan bat. Ondo egongo litzateke dinamizatzaileak ikasleei helaraztea Maríaren azken hitzek duten mezu baikorra.

## Posta-zerbitzuko langile gazte baten kasuaren lekukotasuna

Nire nebak Correos-en lan egiten zuen, behin-behineko langilea zen. Arratsalde hartan, lehegailu baten eztanda entzun genuen. Nire amak zerbait sumatu zuen, berehala atera baitzen kalera, eta ni bere atzetik. Auzoko batzuek esan ziguten neba larriki zaurituta zegoela. Iñigo Iruin abokatu ezagunaren postontzian pakete bat sartzeraz zihola, paketeak eztanda egin baitzuen. Ospitalera iritsi ginenean, albiste lazgarria eman ziguten: neba hilda zegoen, eztrandak eragin zizkion zauri larrien ondorioz hil zen. Izugarria izan zen. Bera gazte lasaia zen, inorekin eta ezertan sartuta ez zegoena, erabat errugabea, Eta, bat-batean horrela txikitu zuten... Nire amak pasa zuen okerrena, ikaragarri sufritu baitzuen. Nik uste dut ezin izan zuela sekula gainditu. Pozik bizi zen familia bat gainbehera joan zen, iluntasunean eta tristuran murgildurik geratu zen. Eta hala izan zen, nire seme-alabak jaio ziren arte, orduantxe hasi baitzen ama berriz irribarre egiten, orduan aurkitu baitzuen bizitzeko arrazoi bat berriz. Biktimei laguntza ematen dien erakunde batean sartu zen ama, eta, hortik aurrera, sostengua ematen ziotela, eta entzuten zutela ohartzen hasi zen; laguntza

psikologikoa ere jaso zuen. Horrek laguntza handia eman zion, baina beti geratzen zen azken galdera hau zintzilik: Nor izan da? Zergatik?

- **Herrian manifestazioak izan ziren atentatua gaitzesteko eta familiari laguntza emateko, baina politikoki manipulatuta egoten ziren beti. Lagun askok laguntza eta sostengua eman zizkidaten. Hori onartu eta eskertu behar dut. Baina, azken batean, bakarrik sentitzen nintzen**

Herrian manifestazioak izan ziren atentatua gaitzesteko eta familiari laguntza emateko, baina politikoki manipulatuta egiten ziren beti. Onartu behar dut lagun askok, hurbileko jende askok laguntza eta sostengua eman zizkidatela. Hori onartu eta eskertu behar dut. Baina, azken batean, bakarrik sentitzen nintzen. Orain, senarrari eta seme-alabei esker, ondo nago. Hala ere, oroimenak beti irekitzen du zauri hori. Inoiz ez dugu jakin



► Ez dut mendekurik nahi, ez dut gorrotorik sentitzen. Aldaketaren bat sumatuko banu, damua ikusiko banu, nik uste dut barkatzeko gauza ere izan nintekeela, hainbesteko mina eragin ziguten pertsonari edo pertsonari barkatzeko

nork egin zuen ekintza hori, nire nebaren bizitza hondatu zuena. Izan ziren paper eta proba batzuk, GAL taldearen sumarioa izan zenean argitara emandakoak; baina sekula

ez zuten inor atxilotu. Ezintasunez beteriko sentsazio izugarria dugu. Nik neuk nahiko nuke egia ezagutzera ematea. Hala ere, ez nau horretara bultzatzen mendekuzko desirak. Justizia egiteko behar hutsa da. Berriz esango dut: ez dut mendekurik nahi, ez dut gorrotorik sentitzen. Aldaketaren bat sumatuko banu, damua ikusiko banu, nik uste dut barkatzeko gauza ere izan nintekeela, hainbesteko mina eragin ziguten pertsonari edo pertsonari barkatzeko.

**Iturria:** Mariaren lekukotasun zuzena, Gipuzkoa, 2010eko urriaren 14a.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

12

## Kalumnia eta zurrumurrua mehatxu gisa

### Helburuak

- Jazarpeneko indarkeriaren biktimekiko enpatia piztea eta eraginkortasunez entzutea.
- Gure gizartean zenbat pertsona eta/edo talde dauden mehatxatuta jakitea.
- ETA erakunde terroristak mehatxatutako pertsonen artean egoteak ekartzen dituen ondorio sozialak eta pertsonalak zehaztea.
- Alderdi eta ideologia politiko jakin batekoak diren pertsonak, ideia horiek bide baketsuak eta demokratikoak erabiliz babesteagatik, hiltzeko mehatxupean egoteak gizarte demokratiko batentzat duen garrantzia jakitea.

### Metodologia

1. Dinamizatazaileak lau taldetan banatuko ditu parte-hartzaileak (lau edo bost laguneko taldetan, gutxi gorabehera). Kasu honetan, puzzlearen teknika erabiliko dugu. Talde bakoitzari fotokopia bana emango diogu; bertan Pilarren lekukotasuneko lau paragrafoetatik bat baizik ez da egongo.
2. Talde bakoitzak dagokion paragrafoa irakurriko du, eta elkarrizketan oinarritutako iruzkin bat egingo du horri

Pilar Zubiarrainen kasua: EAJ-PNVko zinegotzia Gipuzkoako udalerrri batean. Mehatxuak, hertsatzeak, irainak, kalumniak eta erasoak pairatu ditu, hala berak nola bere familiak. Hala ere, Pilarrek zintzo eusten die bere oinarriei; eta egoera zail horretan izan diren alde onak nabarmentzen ditu. Kasuaren oinarrian, bere lekukotasuna jaso dugu.

buruz. Galdera hauek erabil daitezke: zein esaldirekin identifikatzen zara gehiago? Zein baieztapenekin ez zatoz bat?

3. Talde handian jarrita, talde txiki bakoitzeko ordezkariak beren paragrafoa irakurriko du, eta taldean egindako iruzkinak adieraziko ditu. Azkenean, talde handiak lekukotasun osoa eta talde txiki bakoitzean egindako iruzkinak jasoko ditu. (Ondo egongo litzateke paragrafo bakoitza arbel digitalean proiektatzea, edo fotokopiatutako testua banatzea, denek lekukotasun osoa ikus dezaten.)
4. Bukatzeko, talde txikietan egindako iruzkinei buruzko eztabaida egin dezakegu.

## Pilar Zubiarrainen lekukotasuna

Pintadak, paskinak eta auto-karabanak egin dituzte nire aurka. Kale-agerraldiak egin dituzte nire lantoki eta etxe aurrean, nik jardueraren bat egiten nuen tokian. Jendealdrak etorri zaizkit atzetik pankartekin Tolosako kaleetatik. Telefono-deiak egiten dizkirate mehatxu egiteko. Etxean egindako lehergailuak jaso ditut lan egiten dudan bulegoan, eta lehergailu-abisu faltsuak ere bai. Egun batean autoa erre zidaten. Beste egun batean, familiako baserria, gurasoak eta izeba ezindu bat barruan zeudela. Sugarretatik ihes egin ahal izan zuten denek, ez genuen kalte pertsonalik jaso, baina bertan suntsitu ziren gure jabetza guztiak: gure altzariak eta gauzak, gure aipamenak eta oroimenak, gure historia, azken batean, gure zati bat. Hala ere, jazarpeneko indarkeria ez da soilik aipatu ditudan ekintza zehatz horiek sufritzea. Horrez gain, norberaren ospearen galera dakar, horri loturik zurrumurruek zabaltzen hasten baitira, norberaren aurkako gaitzespenak, erabat baldintzatzen zaituzten txutxu-mutxuak, landa-inguruneetan, herri txikietan, eguneroko bizitzan are latzagoak direnak. Badakizu guztien ahotan zaudela, gehienek saihestu egiten zaituztela, agurtzen zaituzten

pertsona bakan horiek ezkutuka egiten dutela, zurekin harremanetan jarriko dituzten beldur direlako. Eta, horiek horrela, zurrumurruek ugaltzen dira —egiazkoak nahi gezurrezkoak—, gaitzespen pertsonalak eta kalumniak. Hesi ikusezin batek isolatuta uzten zaitu, eta ezin duzu hori gezurtatu, ezin duzu zure burua babestu.

► **Badakizu guztien ahotan zaudela, gehienek saihestu egiten zaituztela, agurtzen zaituzten pertsona bakan horiek ezkutuka egiten dutela, zurekin harremanetan jarriko dituzten beldur direlako. Eta, horiek horrela, zurrumurruek ugaltzen dira —egiazkoak nahi gezurrezkoak—, gaitzespen pertsonalak eta kalumniak**

Batzuek euskal abertzaleen artean biktimarik ez dagoela esaten dutenean, edo euskal abertzale guztiak terroristatzat hartzen gaitzuztenean, mindu egiten naute. Era berean, mintzen naute terrorismoaren

biktima izateagatik batzuek aski abertzalea ez naizela esan didatenean. Izan ere, horien ustez, terrorismoaren biktima izanez gero, zerbait egingo zenuen oker euskal auziaren aurka, beldurraren mende horrela egoteko. Nire ustez akatsa hauxe da: euskal nazionalistatzat, abertzaletzat hartzea faxista baizik ez diren horiek, legezketasun



Pilar Zubiarrain EAJ-PNVko zinegotzia da Gipuzkoako udalerrri batean. Mehatxuak, hertsatzeak, irainak, kalumniak eta erasoak pairatu dituzte, hala berak nola bere senideek.

politikoaren bidez jarrera mafiosoak zuritu nahi dituzten horiek.

Dena dela, kontu txar guztietan beti dago ona den zerbait, eta gauza asko ikasi ditut honekin. Ikasi dudan lehenbiziko gauza da zein diren nire benetako lagunak, eta zein diren nigana hurbiltzen direnak beren interesen arabera. Lehen esan dudanez, gauza asko ikasi ditut, esaterako, pertsonen kalitatea dela benetan axola duena. Alderdi guztietan aurkitu dut jende ona eta jende manipulatzailea, beren interesen atzetik zebilena. Hala ere, biktimek dugun *zortea* hauxe da: beti izango dugula benetan ona den jendea ondoan. Biktima izateak duen alde *ona* hauxe da: aukera izan dudala oso jende ona ezagutzeko alderdi guztietan. Nik uste dut memoria ezinbestekoa dela, oro har, gizarte osoari eskatu behar zaiola ahantz ez dezan, atzera berriz akats berberak ez egiteko. Era berean, eskatu behar zaio gehiegikeriak, mehatxuak, hilketak, hertsatzeak... direnean, beste alde bati begira ez geratzeko. Hiltzaileak eta faxistak berak lotsa daitezten, tankera guztietako indarkeriei zilegitasuna kentzeko. Intentsitate guztietako indarkeriei, hala lehen mehatxuari nola azken lehergailuari.

**Iturria:** Gipuzkoako Batzar Nagusiak, biktimei laguntza emateko gunea, Donostia, 2009ko apirilaren 1a.

Oharra: Jarduera osatze aldera, Pilar Zubiarrainek bi hitzalditan esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu; hona hemen esku-hartzeak: Gipuzkoako Batzar Nagusietan 2009ko apirilaren 1ean egindakoa, eta Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak 2009ko ekainaren 9an antolatutako «Atentatuaren ondorio psikologikoak» hitzaldian egindakoa. Esku-hartze horiek biltzen dituen DVDa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

13

Oihuka eskatu nuen laguntza...,  
baina inork ez zigun eman

## Helburuak

- Gure herrialdean terrorismoaren biktimekiko empatia eza egoteko eragina izan duten aldagaiak edo inguruabarrak aztertzea.
- Enpatiako jarrerak sortzea indarkeria terrorista zuzenean nozitu duten pertsonetikiko, eta eraginkorrez entzutea.
- Indarkeriaren biktimekiko harreman-esparru berriak amesteko gaitasuna sustatzea, behar bezain hurbil sentitu ez zuten gizartearekiko konfiantza berreskur dezaten.
- Kontzientzia hartzea biktimen gaia gure historiarik berrienaren zati gisa hartzeko dagoen beharriaz.
- Gure proiektu politiko, pertsonal eta erlijiosoetan, legezkoa denaren eta legez kanpoko denaren artean dagoen muga bereizteko eta zehazteko laguntza ematea.

## Metodologia

1. Irakasleak, dinamizatzaileak edo taldeko neska-mutil batek Sandraren lekukotasuna irakurriko du.
2. Ikasleei eskatuko diegu minutu batzuk eman ditzaten entzundakoari buruz hausnarrean, eta Sandraren

Isaías Carrascoren kasua: bost tiro eginda hil zuten Gipuzkoako herri batean 2008ko martxoaren 7an. Sandra alabak —amarekin batera— kontsolatu zuen aita azken hatsetan zegoela, eta familiaren bozeramailea bilakatu zen ohiz kanpoko ausardia erakutsita. Gazte honek aditzera emango dizkigu gertaera izugarri hori gertatu zenetik izan dituen bizipenak, sentimenduak, absentiak eta irainak.



lekuan jar daitezten. (Hausnarketa horri lagunduz, musika instrumentaleko entzunaldi arin bat egin dezakegu.)

3. Gero, ikasleei esango diegu biktimaren kontakizuna entzutean sentitu dutena adieraz dezaten. Eztabaidari ekingo diogu, eta hauxe izango da baldintza bakarra: hitz egiteko txandak zaintzea, eta ikaskideekin edo haien iruzkinekin iraingarria ez izatea.
4. Azkenik, nahi izanez gero, horma-irudi batean islatu ahal ditugu hausnarketak, eta aretoan jarri gero (azken ekoizpena prestatzeko, honelakoren bat balia dezakegu: dramatizazio bat, lan poetiko bat, bideo bat grabatzea, margo bat ekoiztea edozein teknika baliatuz, hausnarketak biltzen dituen PowerPoint-eko aurkezpen bat, etab.).

## Sandra Carrascoren lekukotasuna

Nire bizitza eta nire familiaren bizitza era basatian aldatu zen orain dela urtebete. Goiz arrunt bat zen, eta aita txantxetan ari zen gurekin. Irtetera zihoala, Hodeiri —nebari— eta bioi galdetu zigun ea ba genekien non zegoen bere ogitartekoa. Handik gutxira, tiro batzuk entzun genituen —gero jakin genuen bost tiro izan zirela—. Leihora hurbildu nintzen, eta aitaren autoa ikusi nuen, geldirik, eta aita autotik ateratzen ari zela zailtasun handiz. Barrez, zera pentsatu nuen: tripa horrekin kosta egiten zitzaiola ateratzea. Orduan odoletan zegoela ikusi nuen, eta egoeraz ohartu nintzen. Ama eta biok korrika jaitsi ginen. Lurrean zegoen. Bera lasaitzen ahalegindu ginen, egoera horretatik aterako zela esan genion. Nik oihu egin nuen, manta bat, anbulantzia bat eskatu nuen... baina inork ez zigun ezer eman. Anbulantzia iritsi zirenerako, hamabi minutu igaro ziren. Nik

- **Kalera ateratzen zaren bakoitzean, presoekin egiten duzu topo, pankartekin, zure aita hil zutenak gogora ekartzen dizkizuten gauzekin**



Sandra Carrascok 20 urte zituen aita nola hil zuten ikusi zuenean.



Isaiás Carrasco zinegotzi sozialista izan zen Arrasaten 2003. eta 2007. urteen artean. ETA erakundeak hil zuen 2008an.

neuk estali nuen nire txabustinarekin, eta zauriak buxatzen ahalegindu nintzen... baina odola baizik ez nuen ikusten. Ospitalean, albistearen berri eman ziguten. Ezin nuen sinetsi. Denbora gutxi zen harekin hitz egin nuela, barre egin genuela, txantxetan aritu ginela... Berriz galdetu nuen. Eta zera erantzun zidaten: «Bai, hil egin da». Hurrengo egunak oso zailak izan ziren, baina jende askoren laguntza jaso genuen. Deiak, gutunak, besarkadak... Baina herri honetan bizi gara, eta egunero-egunero horrekin bizitzea zaila da, oso zaila. Kalera

Oharra: Jarduera osatze aldera, Sandra Carrascok Gipuzkoako Batzar Nagusietan 2009ko apirilaren 1ean esku hartu zuen uneko irudiak dituen bideoa ikus dezakegu. Esku-hartze hori biltzen duen DVDa Eusko Jauriaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).

ateratzen zaren bakoitzean, presoek karteekin egiten duzu topo, pankartekin, zure aita hil zutenak gogora ekartzen dizkizuten gauzekin. Alkatea atxilotu zutenean, herri osoa mobilizatu zen. Nire aitaren heriotzaren aurrean, berriz, isiltasuna izan zen nagusi. San Joan egunean, nire koadrilako lagunek berek zeramatzen alkatearen aldeko pegatinak. Eta hilik zegoen aita, zer?

► **Oso gogorra da, ikaragarri gogorra. Eta negar egiten dut, negar asko egiten dut, bakarrik edo amarekin. Baina ez dut nahi haiek negarrez ikus nazaten. Ez dut nahi hala ikus nazaten. Gauza bakarra dut buruan: nirekin ezin izango dute. Hari zor diot**

Nire bizitza eta nire familiaren bizitza erabat aldatu ziren. Oso gogorra da, ikaragarri gogorra. Eta negar egiten dut, negar asko egiten dut, bakarrik edo amarekin. Baina ez dut nahi haiek negarrez ikus nazaten. Ez dut nahi hala ikus nazaten. Gauza bakarra dut buruan: nirekin ezin izango dute. Hari zor diot.

**Iturria:** Gipuzkoako Batzar Nagusiak, biktimei laguntza emateko gunea, Donostia, 2009ko apirilaren 1a.

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

14

Nahaste bat, hutsegite bat, zorigaitzoko errakuntza bat

## Helburuak

- Gure elkartasuna eta hurbiltasuna erakustea terrorismoaren biktimei, kasu honetan, Juan Cruzen familiari.
- Gizon bat hiltzea zentzugabekeria eta basakeria bat dela onartzea, eta emaztearen eta semearen bizitza zapuztuei buruz hausnartzea.
- Hausnarketa egitea hilketa batek dakarren atzerazintasunaz, hiltzaileen ekintzaren ondorioak zuzentzeko ezintasunaz. Ekintza terrorista baten bidez bizitza kenduz gero, ezin da osatu, ezin da horren ordainik eman.

## Metodologia

1. Ikasle boluntario batek ahots ozenez irakurriko du testua. Minutu batzuk utziko ditugu hausnarketa pertsonala egiteko.
2. Gero, ikasleak taldeka elkartuko dira, eta esaldi zehatz honi buruzko eztabaida egingo dute (fotokopia bana eman ahal diegu): «Hilketa bat konpondu ezin den bidegabekeria da beti. Alabaina, kasu honetan, are gogorragoa da, nahasketa baten ondorioa delako, hau da, hildakoa guztiz errugabea zelako».

Juan Cruz Montoya Ortueta kasua. Atezaina zen Gasteizko sone handiko ikastetxe batean. Araban dagoen Zambrana herrikoa zen, ezkondua zegoen, eta seme bat zuen. Ikastetxeko ikasleen aurrean hil zuten 1979. urteko abenduaren 18an. ETA talde terroristak guardia zibil erretiratu batekin nahastu zuen. Izan ere, ikastetxe berean bazegoen guardia zibil erretiratu bat atezainlanetan aritzen zena. Taldeak inoiz ez zuen jendaurrean onartu bere hutsegitea. Kasu honen oinarrian, Juan Cruzek lan egiten zuen ikastetxeko antzinako ikasle baten hitzak daude.

3. Bukatzeko, taldeka aztertutakoaren bateratze-lana egingo dugu ikasgelako batzarrean. Talde bakoitzeko ordezkarien ekarpenak hausnarketa honen ingurura bideratu ahal ditugu: «Terrorismoaren biktima guztiak errugabeak dira, biktimak diren aldetik. Berdin dio zein den haien lanbidea, edota zein diren haien ekintzak. Inork ez du merezi hilketaren ondoriozko heriotzarik. Hilketa, berez, bidegabekeria handia da, ez baitu batere aukerarik ematen, eta ate guztiak ixten baititu egindakoa zuzentzeko, ordaina emateko. Une horretatik aurrera, hildakoa —berdin dio aurreko bizitzan zer egin duen— biktima bilakatuko da, bere gogoz bestera».



## Juan Cruz Montoyaren kasuaren kontakizuna

2006ko abenduaren 18an, Marianisten ikastetxeko antzinako ikasle batek gertaera horretaz gogoratzen zuena idatzi zuen orduan eurodiputatua zen Rosa Díezen blogean:

Juan Cruz Montoya Ortueta gizon on bat zen. Gasteizko Marianisten ikastetxeko atezaina zen. Hil baino ordubete lehenago, nik zera esan nion, arratsaldeko zazpiak aldera ateratzen bainintzen entrenamendutik: «Bihar arte, Juan Cruz». «Gero arte, motel», esan zidan. Arratsaldeko zortziak aldera, ikastetxe aurrean hil zuten Juan Cruz, traizioz, hainbat tiro eginda. Ikastetxeko ikasle guztiek berehala jakin genuen gertatutakoa. Ikastetxeko beste atezain batek denbora gutxiago zeraman lanean... Zurrumurruen bidez jakin genuen hori guardia zibila izan zela, atezaina izan aurretik. Hemezortzi urte inguruko mutikoen artean zabaldutako zurrumurru hiltzaile horrek ekarri zuen Juan Cruzen heriotza. Juan Cruz erabat ahaztuta geratu da. Eta batzuek zera

esan zuten, beren kontzientziak lasaitzeko: «Nahastu dira-eta».

- **Ikastetxeko ikasle guztiek berehala jakin genuen gertatutakoa. Ikastetxeko beste atezain bat, lanean denbora gutxiago zeramana, guardia zibila izan zen atezaina izan aurretik**

Horrela gertatu ziren kontuak... Inork ez zuen ezer jakin beste atezainari buruz... Hango lana utzi, eta alde egin zuen. Nik uste dut bere bizitza bitan zatituko zela 1979ko abenduaren 18 hartan.

**Iturria:** Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Madril, Espasa Libros, 2010, 251.





# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

15

## Estatuaren terrorismoaren gaiztakeria

### Helburuak

- Biktimak eta gizartean mina eta zauriak sorrarazten dituen antolatutako indarkeriazko jarduera bakoitza jarduera terrorista dela onartzea, ideologia edo haren ustezko justifikazioa zeinahi delarik ere.
- Gure historiaren denboraldi jakin bat ezagutzea, aldi horretan indarkeriak krudelkeriaz urratu baitzituen herritarren hainbat belaunaldi.
- Hausnarketa egitea hilketa, estortsioa, bahiketa eta desberdina dena xaxatzeko jarduerak justifikatzeak dakarren gaiztakeria etikoaz, kasu guztietan, ideologia desberdinen bidez azaldu arren.
- Zigorgabetasuneko guneak aztertzea, eta terrorismoaren kolpea jaso zutenek nozitu zuten biktimazioari gaineratu beharreko osagai gisa ikustea.
- Hurbiltze enpatiko eta eraginkorra bultzatzea, terrorismoaren mota guztien biktimekiko, giza eskubideen aldeko jarduera eraginkorrak sustatzeko asmoz.

### Metodologia

1. Ikasleak bost laguneko taldetan banatuko dira. Dinamizatzaileak testu bana emango dio talde bakoitzari, beren kabuz irakur dezaten eta horren gaineko iruzkinak egin ditzaten.

Eskuin muturreko taldeen, kontrol-gabeko taldeen eta GAL taldearen jardueraren kasua. Azalpenaren oinarrian, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoen Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren ordezkari Txema Urkijok egindako solasa dago. Esku-hartze honen bidez, hausnarketa egiteko eskatzen du, mota honetako ekintza terrorista asko zigorrik gabe geratu baitira.

2. Taldeei eskatuko diegu ikerketa- eta dokumentazio-lan bat egin dezaten, diktadura frankista bukatu zenetik Euskal Herrian izan diren indarkeria terroristaren mota desberdinei buruz. Horretarako, Internet, ikastetxeko liburutegia, hainbat erakunderen dokumentazioko zentroak, hemerrotekak eta antzeko baliabideak erabili ahal izango dituzte.
3. Lanaren azken emaitza taldeak erabakitzen duen euskarrian aurkeztuko da. Esaterako, euskarri hauek erabil daitezke: horma-irudi bat, ahozko azalpen bat, idazlan bat, ikus-entzunezko aurkezpen bat (PowerPoint-en), soziodrama bat, terrorismoaren biktima baten zuzeneko lekukotasun bat, harekin harremanetan jarri ondoren, etab.
4. Azkenik, talde guztiek beren lana aurkeztu ondoren, eztabaida piztuko dugu, mota guztietako terrorismoek berez duten gaiztakeria etikoari buruz. Ekarpenguztiak izango dira baliagarriak, betiere, hitz egiteko eta esku hartzeko txandak gordetzen badira eta begirunez jokutzen bada.

## Eskuin muturreko taldeek, kontrol-gabeko taldeek eta GAL taldeak egindako indarkeriaren biktimen kasuen kontakizuna

Eskuin muturreko taldeek, kontrol-gabeko taldeek eta GAL taldeak egindako indarkeriaren biktimen eskubideak ere aipatu behar ditugu. Ez dira terrorismo-mota horien biktimak baztertu edo ahaztu behar. Zorionez, terrorismo-mota horiek orain dela urte batzuk desagertu ziren, baina, hala ere, haien biktimak gure artean daude, eta ETAko biktimek dituzten eskubide berberak dituzte, bidezkoa den moduan. Eusko Jaurlaritzako Terrorismoen Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzakoak beti ahalegindu gara argi eta garbi uzten terrorismo-mota guztietako biktimei zuzenduta gaudela.

► **Ez dira terrorismo-mota hauen biktimak baztertu edo ahaztu behar, haien biktimak gure artean baitaude, eta ETAko biktimek dituzten eskubide berberak baitituzte**

Diktadura bukatu ondoren, indarkeria baliatzen zuten jokabide edo jarduera politikoko moldeak azaldu ziren. Sektore nazionalisten aurka jotzen zuten, edo terrorismoaren aurkako ekintzak egiten zituzten, eta nola-halako lotura zuten

poliziarekin, Estatuaren aparatuekin, eta, batzuetan, alderdi politiko batzuen aparatuekin ere bai. Modu lausoan edota antolatu gabean aurkezten ziren maiz. Haien biktimak terrorismoaren biktimak dira. Hori argi zehaztuta dago estatuaren esparruko terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzko 32/99 Legean. Lege horrek 2.1. artikuluan zehazten duenez, terrorismoko ekintzen biktimek eta, orobat, talde armatuetan sartutako pertsonak edota gizarte eta herritarren bakea aztoratzeko asmoz jarduten duten taldeek egindako ekintzen biktimek eskubidea izango dute dagokien ordaina jasotzeko. Biktimen Zuzendaritzak egin duen txosten baten arabera (2008. urtekoa), 74 ekintza terrorista izan ziren guztira, eta Triple A, Batallón Vasco Español, Grupos Anti ETA eta GAL bezalako talde kriminalek egin zituzten. Horren ondorioz, 65 pertsona hil zituzten, 64 zauritu zituzten, eta bahiketa bat ere izan zen. Lehenbiziko hilketa Iñaki Etxabe Orobengoa hil zutenekoa da, 1975. urtekoa. Azken atentatuan, berriz, Josu Muguruza hil zuten, 1989. urteko azaroaren 20an. Jarduera horien grafikoak aztertuz gero, nabaria da talde horiek 1979. eta 1980.

urtean egin zituztela ekintza gehienak. Aldi horretan, ETA taldeak ere ekintza ugari egin zituen, eta, beraz, nolabait esan daiteke talde horien terrorismoa ETAREN ekintzari emandako erantzuna zela. Gero berriz piztu zen, 1984 eta 1985. urteetan, GAL taldeak ekintzak egin zituen garaian. Horren ondoren, urte batzuetan desagertu zen; eta 1989. urtean berriz azaldu zen, lehen aipatu dugun Josu Muguruzaren hilketan urte horretan izan baitzen, eta Erreterriako postaria zen José Antonio Cardosaren hilketan ere bai. Ekintza terrorista horietatik, hogeita bederatzia Euskadin eta Nafarroan izan ziren, 44 Frantziako lurretan izan ziren, eta bat Venezuelan izan zen.

► **ETAk egindako krimen batzuk ere ez dira epaitu, baina kasu horiek ezin dira terrorismo-mota honetako kasuekin parekatu: ETAko krimenei dagokienez, ikertzeko borondatea eta inbertsioa egin zen, eta hauetan, berriz, ez**

Legea Nazioarteko Zuzenbidean dago oinarrituta, eta egia, justizia eta ordaina eskatzen ditu biktima guztientzat. Egiazi dagokionez, gertaera hauen ikerketa-maila guztiz urria da. Kasu guztietan halako susmoak zeuden: garai hartako poliziaren

aparatuetik konplizitate-mailak bazeudela. Horrez gain, oso ardura eta zuzemen gutxiz jardun da ekintza horiek ikertzean. Izan ere, ez da ikerketa egokirik egin justizia egin ahal izateko. ETAko krimen batzuk ere ez dira epaitu, baina kasu horiek ezin dira terrorismo-mota honetako kasuekin parekatu: ETAko krimenei dagokienez, ikertzeko borondatea eta inbertsioa egin zen, eta hauetan, berriz, ez. Egia eta justizia estu-estu lotuta daude. Ildo horretan, aipatu ditugun 74 kasu horietatik, 33 auzi judizial zabaldu dira Audientzia Nazionalean. Bestalde, auzi horietatik, 17 kasutan baizik ez da epai irmoa eman, eta, horietatik, 16 auzitan askatasuna kentzeko zigorrak finkatu ditu zigortzeko erabakiak. Hala, bada, argi esan dezakegu nolabaiteko zigorgabetasuna izan dela kasu hauetan, eta horrek hausnarketa egitera eraman behar gaitu. Biktimak onartzeak, biktima guztiak onartzeak tresna egokia izan behar du euskal gizartearentzat, adiskidetzerantz ibiltzeko. Ildo horretan, biktima guztiek dute indar hau, ETA, GAL edo Batallón Vasco Español taldeek eginak izan: sufrimendua ongari bihurtu ahal dute, mota honetako hain ekimen gutxi dituen gizartean bizikidetzak emankortzeko ongari.

**Iturria:** Biktimekiko Elkartasuneko Jardunaldiak, Bakearen Aldeko Koordinakundea, 2010.

Oharra: Jarraera osatze aldera, Txema Urkijok Biktimekiko Elkartasunerako IX. Jardunaldietan esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu. Jardunaldi horiek Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea antolatzen zituen, eta Gasteizen egin ziren 2010eko ekainaren 16an. Jardunaldietan egindako esku-hartzeak biltzen dituen DVDa Eusko Jauriaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxa: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).

# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

16

## Sufrimenduaren sozializazioa deitutako lastura

### Helburuak

- Gure herrialdean erasoen eta jazarpenaren biktimekiko enpatia eza egoteko eragina izan duten aldagaiak eta/edo inguruabarrak aztertzea.
- Jazarpeneko indarkeria zuzenean nozitu duten pertsonetikiko enpatiako jarrerak sortzea eta eragin-kortasunez entzutea.
- Indarkeriaren biktimekiko harreman-esparru berriak amesteko gaitasuna sustatzea, behar bezain hurbil sentitu ez zuten gizartearekiko konfiantza berreskurara dezaten.
- Kontzientzia hartzea biktimen gaia gure historiarik berrienaren zati gisa hartzeko dagoen beharriaz.
- Gure proiektu politiko, pertsonal eta erlijiosoetan, legezkoa denaren eta legez kanpokoa denaren artean dagoen muga bereizteko eta zehazteko laguntza ematea.

### Metodologia

1. Irakasleak, dinamizatzaileak edo taldeko kide batek Joxean Rekondoren lekukotasuna irakurriko du.
2. Ikasleei eskatuko diegu minutu batzuk eman ditzaten entzundakoari buruz hausnarrean, eta Joxean Rekon-

Joxean Rekondoren kasua. Gipuzkoako udalerrri bateko alkatea izan zen garaian, eta horren ondoren, jazarpeneko indarkeria nozitu zuen. Hala ere, ausardiaren, zentzutasunaren eta zuhurtziaren ereduak izan da beti. «Sufrimenduaren sozializazioaz» egiten duen azterketa gizarte-azterketa interesgarria da.



doren edo haren senide baten lekuan jar daitezzen. (Hausnarketa horri lagunduz, musika instrumentaleko entzunaldi arin bat egin dezakegu.)

3. Gero, ikasleei esango diegu biktimaren kontakizuna entzutean sentitu dutena adieraz dezaten. Eztabaidari ekingo diogu, eta hauxe izango da baldintza bakarra: hitz egiteko txandak zaintzea, eta ikaskideekin edo haien iruzkinekin iraingarria ez izatea.
4. Azkenik, nahi izanez gero, horma-irudi batean islatu ahal ditugu hausnarketak, eta aretoan jarri gero (azken ekoizpena prestatzeko, honelakoren bat balia dezakegu: dramatizazio bat, lan poetiko bat, bideo bat grabatzea, margo bat ekoiztea edozein teknika baliatuz, hausnarketak biltzen dituen PowerPoint-eko aurkezpen bat, etab.).

## Joxean Rekondoren lekukotasuna

Elkartasunaren etikak gure elkartasuna behar duen dramaren edo mehatxuaren izaera eta irismena ezagutzeko erantzukizuna dakar berarekin, bai eta itxaropena adierazteko erantzukizuna ere, horixe baita elkartasunaren esparruan eraginkorra izan nahi duen ekintza orok behar duen oinarria. Biktima duintzatu behar da. Horri behar bezala aurre egitea lagungarria izango da gizartearen arima sendotzeko. Baldintza hori alde politikoaren aurretik dago, politikaren aurrekoa da. Bere kideen sufrimenduaz ahazten den gizartea iraupen gutxikoa izango da, alde gizatiarretik ikusita. Haren nortasuna baldintzatuta egongo da, eta politikoki gaitasunik gabe geratuko da.

► **Bere kideen sufrimenduaz ahazten den gizartea iraupen gutxikoa izango da, alde gizatiarretik ikusita. Haren nortasuna baldintzatuta egongo da, eta politikoki gaitasunik gabe geratuko da**

Nire esperientzian ez da bukaera tragikorik egon, baina estutasun larrian egon naiz. Nire esperientzia hauxe baita: eguneroko bizitzan ETaren inguruan dagoen munduaren jazarpen pertsonala pairatu duen pertsona baten esperientzia. Nire aurka izan den jazarpena sekula ez da izan diziplina handiko eta ondo antolatutako ekintzetan behar den mota horietakoa. Nire aurkako jazarpena egin dutenak alderdikoikerian eta fanatismoan murgildutako giroan heziak izan dira. Jazarpeneko indarkeria deitzen zaio, hau da, indarkeria lausoa, *kale borroka* edo behe-mailako intentsitateko terrorismoa. Beldurrezko erakustaldi hori egunero egiten zutenen bultzatzaile politikoez, zinismo handiz, sufrimendua sozializatzea zela esan zuten. Hona hemen sufrimendua sozializatzeaz arduratzen direnek gehienbat baliatzen dituzten ekintzak: era guztietako mehatxuak eta presio morala, era askotako jarraipenak eta jazarpena bide publikoan, ondasunen aurkako atentatu etengabeak, hertsatzeak etxean —seniderik hurbilenak beldurrarazteko asmoz—, etengabeko erasoak, eta abar.

Azkenean, jazarpena nozitzen duenak behar den prebentzioa hartzen du, bere buruaren eta familiaren segurtasuna bilatzen du; eta, horretarako, gizarteko bizitza nabarmen murriztu behar du. Esperientzia horrek arazo asko ekarri zizkidan lan-arloan. Lehenik eta behin, niretzat eta nire familiarentzat izugarri gogorra zen egoera bati egin behar izan nion aurre; alabaina, horrek aurre egiteko espiritua indartu baizik ez zidan egin. Bigarrenik —ezin bestela izan—, gatazkako egoera hori nozitzeak erabat baldintzatu du nire jarrera politikoa modu erabakigarrian. Eta, hirugarrenez, bi alderdi horiek interes berezia piztu zuten nigan, ETAn munduak, bere ekintza terrorista eta bere logika estrategikoa legezkotzat jotzeko eta autolegezkoetzeko, baliatu duen diskurtsoa aztertzeko eta horren jarraipena egiteko. Sistematika terroristarekiko interesa piztu zitzaidan, eta hauek dira azterketatik atera nituen ondorioak: jazarpeneko indarkeria hori aurrez hausnartutako lan baten barruan zegoela, izaera estrategikoa zuen eta


- **Niretzat eta nire familiarentzat izugarri gogorra zen egoera bati egin behar izan nion aurre; alabaina, horrek aurre egiteko espiritua indartu baizik ez zidan egin. Gatazkako egoera hori nozitzeak erabat baldintzatu du nire jarrera politikoa modu erabakigarrian**

erakundeak berak bultzatzen zuen lan baten barne.

Indarkeria hori hedatuz, hainbat helburu lortu nahi zituzten. Lehenik, beldurraren agerpena biderkatu nahi zuten euskal gizartean, eta erantzukizun kriminala barreiatu, deszentralizatu. Bigarrenik, gizarte-kontrola areagotu nahi zuten, eta beren aldekoak ziren tokietan ordena soziala eta politikoa aldatzen saiatu ziren. Hirugarrenik, indarkeria ulertzearen aldeko giroa hedatu nahi zuten. Bazirudien indarkeria hori gazte errebolitari batzuen bat-bateko ekintzaren emaitza zela, baina, hala ere, xede hau zuen: belaunaldi berrien aurrean indarkeria erabiltzeak duen balioa handitzea.

- **Terrorismoaren mota guztien aurkako gatazka demokratikoa gauzatzeko, justizia eta indar publikoa eraginkortasunez engaiatu behar dira**

Hargatik, eta beste kontu askorengatik, gaur atzo bezalaxe, ezinbestekoa da ETAn eta bere ingurukoek dituzten baliabideak eta xedeak zalantzan jartzea. Terrorismoaren mota guztien aurkako gatazka demokratikoa gauzatzeko, justizia eta indar publikoa eraginkortasunez engaiatu behar dira. Zalantzarik gabe, ETAn sartzeko gaitasuna ahultzea, orain egiten ari den moduan, arrakasta demokratikoa da. Alabaina, horrek ez du esan nahi indarkeria iraultzaileak gazte askoren



Joxean Rekondok jazarpeneko indarkeriari lotutako hainbat eraso pairatu ditu.

begietan sortzen duen lilura desagertuko denik. Azken batean, ETA zera baizik ez da: gure gizarteko sektore batek —gero eta txikiagoa denak— kultura horri eskaintzen dion kultuaren ondorioa. Hargatik, garrantzi handikoa da hautestontziak eta pistolak aldi berean baliatzea bidezkoztat jotzen duten ideologia guztiei legezkotasuna kentzea gizartean.

**Iturria:** Biktimekiko Elkartasuneko IX. Jardunaldiak, Donostia, 2009ko ekaina.

Oharra: Jarduera osatze aldera, Joxean Rekondok «Atentatuen ondorio psikologikoak» hitzaldian esku hartu zuen uneko irudiak biltzen dituen bideoa ikus dezakegu. Hitzaldi hori Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak antolatu zuen, eta 2009ko ekainaren 9an egin zen. Jardunaldietan egindako esku-hartzeak biltzen dituen DVDa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean dago eskuragarri (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxe: 94 4970068 • Posta elektronikoa: eskolabakegune@gmail.com • Web orria: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>).



# Terrorismoaren biktimen kontakizunak lantzeko jarduerak

17

Fernando Buesa Blanco politikari sozialista ezagunaren kasua: 2000ko otsailaren 22an hil zuten. Arratsalde hartan, Sara Buesa, bere alaba, berehala ohartu zen bere bizitza eta bere familiaren bizitza lehertu egin zirela. Bonba-auto baten eztandak hil zuen aita, eta oinaze handia eragin zion familia osoari. Duintasunaren eta gaitzitzeko prozesuaren irakaspen bat da bere lekukotasuna. Bere mezua oso argia da: egoera gaitzitzeko ahal da; biktimek borroka egin behar dute beren esperientzia krudel horrek duen alde ona aurkitzeko, eta, gertatutakoa ahaztu gabe, biktimizazioa gaitzitzeko.

Nire aitaren hilketak sentiberago bihurtu nau era guztietako sufrimenduen aurrean

## Helburuak

- Gure elkartasuna eta hurbiltasuna erakustea terrorismoaren biktimei, kasu honetan, Sara Buesa gazteari.
- Pertsona bat eta bere bizkartzaina hiltzea zentzugabekeria eta basakeria bat dela onartzea (Fernando Buesarekin batera, bere bizkartzaina hil zuten, Jorge Díez Elorza ertzain gaztea); eta hausnartzea bat-batean hondatutako bizitza horietaz, amak eta seme-alabek borroka egin beharko dutela amesgaizto horretatik ateratzeko.
- Hausnarketa egitea Buesa familiako kideek beren burua gaitzitzeko duten gaitasunari buruz, eta ikusketea nola urrutiratzen diren gorrotozko edo mendekuzko jarreretatik, justizia aldarrikatuz, beren biktimizazio-egoeratik atera ahal izateko.
- Gertaera mingarri eta traumatiko bat gaitzitzeko, gizartearen sostengua, adorea eta laguntza jasotzea funtsezkoa dela onartzea.

## Metodologia

1. Lehenik eta behin, ikasleek *Pálpitos de vida* bideoaren zati bat ikusiko dute, Sara Buesaren lekukotasunari dagokiona. Bestela, lekukotasun horretako esaldirik garrantzitsuenak biltzen dituen testua irakurriko dute.



2. Metodologia honi dagozkion oharrak oinarritzat hartuta, dinamizataileak ondo azalduko du zer esan nahi duen *erresilientzia* hitzak.
3. Taldeka jarrita, ikasleek kasu honen amaieran agertzen diren jarduerak egingo dituzte. Jarduera horien bidez, Sararen eredura hurbildu ahal izango dira, eta ondo ohartuko dira zein garrantzitsua den gizartearen sostengua jasotzea dolu- edo biktimazio-prozesu bat gainditu ahal izateko.
4. Talde handian jarrita, ikasleek hausnarketa egingo dute jarduera honetako urrats bakoi-tzean lortutako emaitzei buruz.

## Erresilientzia kontzeptuari buruz

*Erresilientzia* hitza Fisika arlokoa da, eta, presio handiak jasan ondoren, material batek hasierako egoerara itzultzeko duen gaitasunari dagokio. Ihia dugu horren adibide argi bat: haizeak jo arren, ez da puskatzen; tolesten da, eta beti irauten du zutik.

Psikologia positiboaren esparruan, bizitzan aurkitzen ditugun zailtasunei aurre egiteko eta egoera horietatik ikasteko dugun gaitasunari dagokio erresilientzia hitza. Zoritxarren aurrean, pertsona batzuk aderegabetzen dira. Jarrera determinista hartuta, ainguratuta geratzen dira, bizitza guztian zoritxarrekoak izango direla pentsatuz, haiei egokitu behar zitzaieela uste baitute, nahiz eta ez jakin oso ondo zergatik izan behar zuen horrela.

Erresilientzia da pentsamendu deterministaren aurrean dagoen hautabidea. Erresilienteak diren pertsonak gai dira beren burua berriz asmatzeko edo eraikitzeko, zauriak gorabehera. Pentsamendu erresilientea lagungarria izango zaigu egoera gogorrari aurre egiteko, eta, orobat, etorkizun hobe baterako ilusioak piztu eta helmugak zehazteko.

## Azken iruzkina

Ez da erraza nortasun erresilientea garatzea eta moldatzea. Ordu asko eman behar dira lanean, gizakiarekiko desilusioak maiz sorrarazten digun etsipenari eta adoregabetasunari aurre egiteko. Sara bezala, pertsona asko aritu dira borrokan, isilean, beren familien altzoan, pertsonengan eta justizian atzera berriz sinetsi ahal izateko. Garai batean, terrorismoaren biktimek ezin zioten eutsi ezta gizartearen laguntzari ere; eta zutabe hori oso garrantzitsua da, Sara Buesaren lekukotasunean eta bizitzan ikusi dugunez. Garai ilun horietan biktimak bakar-bakarrik sentitu ziren, gizartearen laguntzarik gabe eta gizartearen oroimenetik baztertuta. Lekukotasun honek agerian uzten du Sarak izan dituen adorea eta kemena; eta, era berean, argi erakusten du indarkeriaren biktimek gizartearen laguntza eta sostengua merezi eta eskertzen dituztela.

## Sara Buesaren lekukotasuna

Ikusi bideoa: <<http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-victimas.htm>>.

135

or.

Aita hil zutenean, nik 19 urte nituen, eta karrerako bigarren ikasturtea egiten ari nintzen. [...] Urte asko igaro dira, baina egun hori atzo izan balitz bezala gogoratzen dut [...]. Beti dut gogoan, hori betiko markatzen zaituen gauza bat baita. Erabateko haustura da, dena aldatzen baitu. Egundatik bestera, ohartzen zara pertsona erabat desberdin bat zarela. Zure adineko edozein pertsonak izan ditzakeen ohiko kezka, nik neuk bezperan izan nituenak, bat-batean desagertzen dira, eta txorakeria bat direla iruditzen zaizu, zentzurik ez dutela. Ematen du bat-batean harlauza bat jarri dizutela gainean, urte mordo bat erori zaizkizula gainera. [...] Zure burua aurkitzeko bidea topatu behar duzu berriz. Nor ote naizen ni, Sara, egoera honetatik kanpo. Eguneroko gauzetan, zentzua aurkitu behar duzu berriz, poza, ilusioak... Une horietan, horrelako zerbait gertatzen denean, burua zulo batean sartu nahiko zenuke, eta hortik ez atera. Beldur zara bizitzari aurre egiteko. Nik ez nuen atera nahi. Kalera irteten nintzenean, lurrari begira joaten nintzen, lotsa bezalako zerbait sentitzen nuen. Hala ere, gure familian argi genekien [...] ez ginela horregatik

hondoratuko; aurrera egin behar genuela, bizitzak gauza eder asko baitzuten artean, eta merezi baitzuen horiek bizitzea [...]. Atentatua izan eta handik lau egunera, amarekin atera nintzen pasieran ibiltzera. Neguko egun eguzkitsu bat zen, egun ederra; eta amak zera esan zidan: «Gertatutakoak gertatu ondoren, hala ere, nik uste dut bizitza ederra dela, gauza eder asko dituela».

► **Zure adineko edozein pertsonak izan ditzakeen ohiko kezka bat-batean desagertzen dira, eta txorakeria bat direla iruditzen zaizu, zentzurik ez dutela**

Lehenbiziko egun horietan, gizartearen sostengua ordainezina da: ezagutzen ez duzun jendeak telegramak edo gutunak bidaltzen dizkizu, [...] loreak edo kandelak eramatera joaten dira. Atentatu bat izan ondoren, kale-agerraldiak egiten direnean, baten bati entzuten baldin badiot esaten «Ba!, zertarako joan, ez du ezertarako balio-eta», nik zera pentsatzen dut: «Horixe balio

duela! Horixe da, hain zuzen, une horretan bihotza arintzen dizun gauza bakarra!». Ez zait ezer ikaragarriagorik etortzen burura, une horiek bakarrik igaro behar izatea baino. Inoiz ez naiz babesik gabe edo bakarrik sentitu. Hori gertatu zenetik, nik uste dut aingeru zaindari bat dudala. [...] Norbait niri begira dagoela han goitik, eta pozten dela nire arrakastak ikustean, edo keinua egiten didala ustekabeko zerbait ondo ateratzen zaidanean, edo babesten nauela gaizki



Sara Buesak 19 urte zituen aita hil zutenean.

nagoenean. Lotura hori, nire aitaren babes hori nabaritzen dut.

Hau gertatu zitzaidanetik, askoz ere bihozberagoa naizela iruditzen zait. Hobeto uler dezaket beste pertsona batzuen sufrimendua, enpatizatu ahal dut sufritzen

► **Hau gertatu zitzaidanetik, askoz ere bihozberagoa naizela iruditzen zait. Hobeto uler dezaket beste pertsona batzuen sufrimendua, enpatizatu ahal dut sufritzen ari direnekin**

ari direnekin, eta horrek balio handia du nire ustez. Ikaragarria iruditzen zait hotzepela izatea. Era guztietako indarkerien zentzugabekeriak ohartzen zara. [...] Nire ustez, ikaragarriko garrantzia du bakeak, gauzak arrazoitu ahal izateak, eta tolerantziak ere bai, desberdina denarekiko begiruneak. [...] Nik uste dut orain lehen baino toleranteagoa naizela, ez dudala arinkeriak epaitzen.

Beti egongo da itxaropena. Izan ere, sufrimenduzko bizipenek gauza asko irakasten dute [...].

**Iturria:** *Pálpitos de vida. Testimonios de hijos e hijas de víctimas del terrorismo*, Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa, 2008 [bideoa].

Oharra: Testu honetan, Sara Buesaren lekukotasuneko zatirik garrantzitsuenak jaso ditugu. Lekukotasuna osorik ikusteko eta entzuteko, jo helbide honetara: <<http://www.fundacionfernandobuesa.com/inmemorian08-victimas.htm>>. DVDaren kopia bat eduki nahi izanez gero, eskatu doan Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioari (Posta kalea 15, 1. ezk. • 01001 Vitoria-Gasteiz • Tel.: 945 234047 • Faxa: 945 233699 • Posta elektronikoa: [info@fundacionfernandobuesa.com](mailto:info@fundacionfernandobuesa.com) • Web: <<http://www.fundacionfernandobuesa.com/>>).

## Sara Buesa, jarrera erresiliente bat: nola ikasi ur-lasterraren kontra igeri egiten, nahiz eta urak gogor jo gure gorputzaren kontra

137

or.

ETAk 2000ko otsailaren 22an hil zuen Fernando Buesaren alaba da Sara Buesa. Bere jokabidea jarrera erresilientearen adibide argia da, gizaki bati gerta dakiokkeen egoerarik gogorrenetako baten aurrean egon arren: maite dugun pertsona baten heriotzaren aurrean.

1. Pertsona erresilientea emozioaz jabetzen da, azaldu dugun egoeraren moduko egokiera gogorretan izaten diren emozio mordoa sentitu ahal ditu, eta argi ikusten du emozio horiek bere gorputzean duten adierazpena. Bila itzazu lekukotasunean Sarak aitaren hilketaren ondoren izan zituen emozioak. Lotu emozio horiek Sarak berak deskribatzen dituen pentsamenduekin eta gorputz-jarrerekin.

| Emozioa | Sentimendua | Gorputzaren jarrera |
|---------|-------------|---------------------|
|         |             |                     |
|         |             |                     |
|         |             |                     |
|         |             |                     |
|         |             |                     |
|         |             |                     |

2. Emozio horietaz jabetu ondoren, era egokian bideratzen ikasi behar da, hala pentsamenduaren ikuspegitik, nola ekintza aldetik. Sufrimendua jasateko dagoen modu bat hauxe da: sufrimendu hori aldatzea, eta edertasun, konpromiso politiko edo gure bizitza zentzuz bete-ko duen zerbait bilakatzea. Sarak eta bere familia osoak bizirik iraunarazi nahi izan zuten aitaren oroimena. Ildo horretan, denbora, maitasuna eta jakintza eskaini zituzten, Buesaren



izena duen fundazioa sortzeko. Neurri handi batean, horrek zentzua eman zien atzera berriz beren bizitzetara. Sorkuntza baita sufrimenduari aurre egiteko dagoen lehen modua.\*

Hutsunea eta ulermen gabezia atzera elikatzen duten egoeretan hondoratuta geratu beharrean, jarrera erresilientea duen pertsonak zutabeak bilatuko ditu, bere konfiantza eraikitze-ko edo berreraitzeko, eta bere burua berreraikitze-ko edo sendotzeko. Bila ezazu lekukotasunean ondoko galderen erantzuna:

- Zein izan ziren zutabe horiek Sararentzat?
- Zer sentiarazi zioten?

3. Bestalde, Sarak bere bizitzan egon den beste zutabe handi bat aipatzen du. Aita fisikoki galtzea izugarriko ezbeharrak izan zen berarentzat. Hala ere, lotura bat sortu ahal izan zuen aitarekin; era horretan, ondo ohartu zen aitak sekula ez zuela utziko, eta berak beti izango zuela gogoan.

Pertsona erresilienteak, gainera, esker ona erakusteko gai izaten dira, aurrera egiteko indarra ematen dieten gauza guztiak eskertzeko. Batzuetan, adorea emateko hitz bat, agur bat, irribarre bat, edo bostekoa ematea ohiz kanpoko balioa duten keinuak dira.

Orain, badakizu zenbateko garrantzia izan zuen Sararentzat gizartearen sostengu hori jasotzeko. Hala, bada, erantzun galdera hauei, eta arrazoitu zure erantzuna:

- Une haietan zein sostengu eskertu zuen Sarak bereziki?
- Zer iruditzen zaizkizu gure gizartean egoera zail batean daudenei enpatia, sostengua edo maitasuna erakusteko dauden bideak?
- Horiez gain, zein bide bururatzen zaizu helburu hori betetzeko?
- Zure ustez, une horietan, garrantzitsua al da sufritzen ari den pertsonari gure hurbiltasuna eta sostengua erakustea?

4. Sarak 19 urte zituela pairatu zituen zuzeneko indarkeriaren ondorioak, indarkeriarik ikusgarrienaren adierazpena. Hala ere, Sarak dioenez, gorrotozko eta mehatxuzko sentimenduak eduki beharrean, izan zituen bizipenen ondorioz, bihozberagoa da orain, hurbilago sentitzen ditu gizakien oinaze guztiak, eta toleranteagoa da beste era batera pentsatzen duten horiekin. Prozesu hori ez da batere erraza, eta argi adierazten du pertsona erresiliente baten aurrean gaudela, ezbeharrak gainditzeaz gain, gai baita egoera horretan hazteko. Har-  
gatik, haren lekukotasunaren oinarrian, erresilientzia eta eskuzabaltasuna dira nagusi.

---

\* Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioaren webgunean, informazioa eskuratu ahal duzu, bakean oinarritutako kulturaren alde egitea duten lanari buruz (<http://www.fundacionfernandobuesa.com/>).



Sararen lekukotasuna eta egindako jarduerak abiaburutzat hartuta, bete ezazu ondoko koadroa:

| Zer ikasi duzu, kontzeptuei dagokienez? | Zein emozio sentitu duzu? | Zein konpromiso hartuko zenuke Sarak bezala zuzeneko indarkeria pairatu duen pertsona batekin? |
|---|---------------------------|--|
|   |                           |  |
|   |                           |  |
|   |                           |  |
|   |                           |  |



Fernando Buesa Euskadiko Alderdi Sozialistako kidea zen.



## KONPROMISOAK

Bake-hezkuntzak dituen oinarri nagusietako bat hauxe da: gatazka giza izaerari berez dago-kion zerbait dela onartzea. Ohitura gehiegi dugu kaltegarria den eta saihestu behar den zer-bait balitz bezala hartzeko. Hargatik, bake-hezkuntzaren bidez lortu nahi dugun helburuetako bat hauxe da, hain zuzen: gaiari ondo heltzen bazaio, lor daitekeen indar pedagogiko guztia askatzea.

Sarritan, inguruan ditugun errealitateek ez gaituzte erabat asebetetzen, baina ez ikusiarena egitea erabakitzen dugu; eta geure buruari esaten diogu horrek ez duela eragin zuzenik gudan, eta, beraz, ez dela gure arazoa, hau da, ez dugula indarrik xahutu behar hori kon-pontzeko lanetan. Gida didaktiko honetan, ahalegina egin dugu errealitate horietako batera hurbiltzeko: gure ingurune hurbilean indarkeria terrorista —hala ETArena nola Estatuarena— zuzenean nozitu duten pertsonen errealitatera. Haien aurrean jarri behar dugu, haien erreali-tatea eta horren ondorioak ezagutu behar ditugu, bai eta errealitate horiek sorrarazi dituzten beharrizanak ere, sarritan adierazi ere egiten ez direnak. Orobat, etorkizunari begira duten itxaropena zein den ere jakin behar dugu. Izan ere, hori da dagoen modu bakarra haiekin batera sentitu ahal izateko, haien larruazalean jartzen ikasteko, haien begietatik errealitatea ikusteko. Nork bere sentimenduak adierazi behar ditu, eta besteen ikuspegira hurbildu behar du. Era horretan, gure buruko eskemak pixkanaka aldatzen joango dira, eta dagokion eran jokatuko dugu, hau da, asebetetzen ez gaituen eta dagoeneko saihestezina den errealitate hori aldatzeko urratsak egingo ditugu. Zalantzarik gabe, indarkeria zuzenean pairatu duten pertsonak atzera berreskuratu behar dute ondoan duten gizartearekiko konfiantza. Bestela esanda, pertsona horiek haien herrikideen berotasuna sentitu nahi dute. Gure lurrean, gizar-tearen besarkada hori oso dosi txikietan jaso dute, hain zuzen, haien errealitatearekin oso sen-tiberak diren herritarrek eta taldeek eman dietena. Izan ere, ez dugu lortu harrera egiteko eta laguntza emateko prest dagoen gizarte modura azaltzen. Sarritan, indarkeria terroristaren biktimek axolagabekeria eta mespretxua sumatu dituzte, hurbiltasuna, maitasuna eta ulerpe-na jasotzea espero zuten pertsonengandik.

Gure ustez, bakean oinarritutako balioak erakusten dituen hezkuntzak gure jardueran islatu behar du argi eta garbi. Gure jarduerak elkartasuna erakutsi behar die indarkeria zuzenean pairatu dutenei. Jarduera zaindu baten bidez, etorkizunerako agertoki atseginagoak sortu behar ditugu, era sortzailean eta baketsuan, kaltea hartu duten pertsonen konfiantza izan dezaten berriz gizakiarengan. Izan ere, elkargunea bultzatzen duen pedagogiaren azken helburua pentsaera eta sentiera solidarioago bat eraikitzea da, horrek ezinbestez eramango baikaitu konpromisorantz.

Pertsona bakoitzak eguneroko bizitzan aurkituko du zein diren modurik egokienak bidegabekeria edo hemen aipatu dugun tolerantzia eza ezabatzeko konpromisoa hartzeko. Hala ere, hemen konpromiso batzuk proposatuko dizkizuegu, ikastetxean balioets ditzazuen, bide egokiak izan baitaitezke zuen elkartasuneko sentimenduak adierazteko.

Konpromisoen hartzailleek hurbilen sumatzen dituzten heinean, sendatzeko indar gehiago izango dute hartzailleengan eta beren familiengan. Batzuetan, errealitate horiek zure auzoan, zure ikastetxean edo zure ikasgelan bertan egongo dira. Lehenengo konpromiso eraginkorra, beraz, sentiberatasun-maila handia izatea izango da, hartara, ezkutatuta dauden errealitate horiek aurkitu ahal izateko.

Esperientzia honetan aipatu ditugun hausnarketa eta sentimendu guztiak ikusita, ondo egongo litzateke geure buruari galde egin diezaiogun: zer egin ahal dut nik deserosoa den eta arrotza ez zaidan errealitate hau onerako aldatzen hasteko. Jarraian, burura etorri zaizkigun konpromiso batzuk paratu ditugu. Ziurrena, zuei are sortzaileagoak diren beste konpromiso batzuk bururatuko zaizkizue. Besteak beste, konpromiso hauek har daitezke:

- ETAk edo beste talde terrorista batzuek gure ingurune hurbilean hildako pertsona bakoitzeko zuhaitz bat landatzea. Ingurumenaren Nazioarteko Eguneko ospakizunarekin batera egin dezakezue jarduera hau, hau da, ekainaren 5ean. Ikastetxe askok urteak daramatzate soilduta zeuden alderdietan zuhaitzak landatzen, ekitaldi horri jarraiki. Hala, oroimenari, memoriari eta elkartasunari lotuta dagoen beste balio hori gaineratuko diogu.
- Zuhaitz bat sortzea ikastetxeko toki ageri batean, era askotako materialak baliatuz, eta, hosto bakoitzetik, indarkeria terrorista pairatu duen pertsona baten izena zintzilikatzea. Ondo egongo litzateke, horren ondoan, beste zuhaitz bat jartzea, eta, bigarren zuhaitz horren hostoetan, etorkizunerako itxaropenezko mezuak jartzea —mezu horiek zuek proposatu ahal dituzue—.
- Zuhaitzaren irudiari jarraiki, ikasturtean barrena konpromisoak asmatzea, eta, horien bidez, zuhaitza elikatzeke eta ureztatzeko ekintza sinbolizatzen duten ekintzak egitea. Horrela, gure eguneroko konpromisoaren irudi bizi eta dinamiko bat izango dugu ber-

matuta. Konpromiso horiek ikastetxe barruan egingo diren ekintza bilaka daitezke; edo, bestela, ikastetxeak bultzatu ahal ditu, baina gizartean oihartzun gehiago izan nahian. Adibidez, gutunak bidali ahal ditugu egunkarietara, datak gogoratzeko edota terrorismoaren biktimekiko oroimena eta enpatia erakusteko. Gutun horiek beste komunikabide batzuetara ere bidali ahal ditugu (irradi, telebista, aldizkarietara), bai eta gure herriko udaletxera, edo une horretan egoki iruditzen zaigun erakundeari edo pertsonari ere. Egokia iruditzen bazaigu, biktimaren familiari ere berari bidaliko diogu.

- Ikuspegi kritikoz berrikustea indarkeriaren bidez lortu diren helburu guztiak, edo xede bat lortzeko pertsona bat baliatzen duten helburu guztiak.
- Gure arbuioa erakustea norbaitek pertsona bati bizitza kentzen dion bakoitzean, ideologia bera edo iritzi bera ez duelako. Hori isilezko ekintza txiki baten bidez egin dezakegu: elkartasunezko giza kate bat osatuz, pertsona batzuek eskolako patioan bake-ikurrak marraztuz. Bestela, marrazkiak edo esaldiak prestatu ahal ditugu, gure desadostasuna erakusteko, eta hautabide sortzaileak eta baketsuak proposatu ahal ditugu gatazkak konpontzeko.
- Gai honen inguruan sortzen diren albisteak jasotzea, eta aztertzea, alde batetik, kazetaritzaren ikuspegitik, komunikabideek gatazkak tratatzeko duten modua ikusita (nola tratatzen dituzten, erabilitako izenburuak eta hizkuntza), eta, bestetik, gatazka bera aztertuz (tartean dauden pertsonak edo protagonistak, beharrianak, ondorioak, gatazkari heltzeko erabilitako moduak).
- Kontakizun baikor eta sortzaile bat eratzea dagokigun gatazka aztertzeko, eta, horretarako, ildo horretan doazen ekitaldi eta ekintza onuragarriak biltzea. Horrez gain, agenda bat sortu ahal dugu, gure ingurunean aurreikusita dauden ekitaldiak jasota.
- Indarkeriaren inpaktua jaso zuten pertsonen bizipenak eta lekukotasunak ezagutzera ematea. Dramatizazioen, marrazkien eta antzeko baliabideen bitartez gida didaktiko honetan aipatutakoa hedatuz gero, konpromiso-maila altua izango dugu.
- Eraginkortasunez parte hartzea bakearen eta giza eskubideen alde. Horretarako, sistematikoki edo noizean behin, esku hartu ahal dugu ikastetxean, elizan eta gizartean dauden erakundeekin, erakunde bakezaleekin... Haiekin benetan gauzatu ahal izango dugu gida didaktiko honetan teoria gisa aurkeztutakoa.





## ERANSKINAK

Eranskinen kapitulu honetan, testu hauek jaso ditugu: Euskal Herriko indarkeriaren kiribila testuinguru historikoan kokatzen duen testu labur bat, zinema-foroko lau jarduera, jarduera pedagogikoak egiteko bi proposamen, eta argitalpenen eta baliabide didaktikoen hautaketa bat.

- 1** Testuinguru historikoan kokatzea
- 2** Zinema-foroko jarduerak
  - 'Trece entre mil'**
  - 'Asesinato en febrero'**
  - 'Yoyes'**
  - 'Perseguidos'**
- 3** Soziodrama
- 4** Rol-jokoak
- 5** Argitalpenak eta baliabide didaktikoak
  - Lekukotasunak**
  - Fikzioa**
  - Saiakerak, txostenak eta baliabide didaktikoak**

### Testuinguru historikoan kokatzea

ETA (Euskadi Ta Askatasuna) 1959. urtean sortu zen, gazte-talde batek EAJ-PNVrekin zuen harremana hautsi zuenean. Diktadura frankistaren zapalkuntza eta tradiziozko nazionalismoaren ekintzarik eza ikusita, borroka armatuari ekiteko arrazoiak aurkitu zituzten.

Lehenengo batzarrean (1962an), askapen nazionalerako euskal mugimendu iraultzaile gisa agertu zuten beren burua. Hirugarren Munduan piztutako iraultzen eragin handia izan zuten, eta Euskadi Espainiaren eta Frantziaren kolonia zela zioen tesia adierazi zuten.

Laugarren Batzarretik aurrera (1965etik aurrera) estrategia hau onartu zuten: ekintza-zapalkuntza-ekintza. Euskal herriaren aurkako zapalkuntza piztu zedin nahi zuten, horrela erakundeak erantzuna eman ahal izango baitzion horri, gero eta ekintza indartsuagoak eginez, beti gorantz zihoan kiribil baten moduan. Nolanahi ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehen urteetan, ETAk gero eta ekintza gehiago antolatu zituen (pintadak, atrakuak eta abar).

1966. eta 1967. urteetan V. Batzarra egin zuen. Batzar horretan, Euskadiren independentziarekin batera uztartu zituen azterketa marxista eta sozialismoaren xedea. ETA lau frontetan egituratu zen: militarra, politikoa, kulturala eta langilea. Teorian, azken fronteari eman zion lehentasuna, baina lehenengo frontea nagusitzen hasi zen. Ba-

tzar horren ondorioz, bestalde, sektore bat kanporatu zuen, «espainolizatatzat» jo baitzuen. Horiek ETA-berri izenpean jarraitu zuten, baina ekintza armaturik egin gabe.

1968tik 1970era bitarteko hiru urteak oso garrantzitsuak izan ziren. 1968. urtean eragin zituen lehen hildakoak, nahita eragindakoak. Diktadura garaiko poliziaren zapalkuntza basatiaren ondorioz, ETAREN sonak gora egin zuen. Hala, 1970. urtean Burgosko Gerra Kontseilua izan zen ETAKO 16 kideren aurka, eta horrek elkartasunezko eztanda izugarria eragin zuen, hala Euskadin, nola bertatik kanpo. Urte horretan beste bereizketa bat izan zen: VI. Batzarrean, gehiengoak gutxiengoa kanporatu zuen, nazionalistegiak zirela jo baitzuen. Hala, ere, ETAREN izena gutxiengo horri loturik geratu zen (ETA V izena hartu zuen, aurreko batzarreko oinarriei eusten zietelako). Gehiengoak biltzen zuen sektoreak, bestalde, Liga Komunista Iraultzailearekin egin zuen bat, eta, azkenean, alde batera utzi zituen armak.

ETA V sektorea handituz joan zen pixkanaka, batetik, kide gehiago zituelako, eta, bestetik, jarduera armatua ere ugaltu zelako. Ildo horretan, aktibismo hori gorenera iritsi zen 1973. urtean, orduan gobernuko presidentea zenaren aurkako atentatua egin baitzuen: Carrero almirantea eta berarekin zihoazenak hil zituen.

Urte horietan, ETAK teoria hau bereganatu zuen: borroka armatuak ez du goi mugarik, masen borrokak, berriz, goi muga du. Gero, 1974. urtean beste zatiketa bat izan zen, itxuraz arrazoi taktikoek eraginda —borroka armatuarekin batera lan politikoa sartzearen ondorioz—, eta, hala ETA militarra eta ETA politiko-militarra sortu ziren.

Franco 1975. urtean hil ondoren, demokraziara igarotzeko trantsizio politikoa jarri zen abian.

1977. eta 1979. urteen artean, hauteskunde politikoak izan ziren, Konstituzioa eta Gernikako Autonomia Estatutua onetsi ziren, eta amnistien bidez ETAKO preso guztiak espetxeetatik atera ahal izan ziren.

1981. urtean ETA pm-k su-etenaldi bati ekin zion, eta 1982. urtean desegin egin zen, eta ETA pm-ko kideak birgizarteratzeko prozesuarekin hasi ziren. Dena dela, VIII. Batzarra izeneko sektore txiki batek borroka armatuarekin jarraitzea erabaki zuen, baina, jarduteko autonomia gutxi zuenez, azkenean, ETA (m) barruan sartu zen.

ETA militarrek, hau da, gaur egun hortxe irauten duen erakundeak, alderdi politiko bat sortzea eta talde armatuarekin jarraitzea proposatu zuen; talde armatuaren eginkizuna erasotzailea izango zen erabat. Hala, ETA militarrek ekintzak egiten jarraitu zuen, eta, batez ere 1977. urte-tik aurrera, hildakoak eragin zituen eta atentatuak nabarmen egin zuten gora.

1977. urtera arte ETArekin ekintzak 70 hildako eragin zuen. Urte horretatik 1986. urtera arte, berriz, 450 hildako izan ziren, mota eta izaera guztietakoak, erakunde barruko disidente batzuk barne hartuta.

Denboraldi horretan, ETArekin aurkako hainbat taldek hogeita hamar lagun hil zituzten ia, gehienak Frantzian. Talde hauek, hain zuzen: lehenik, ATE (Antiterrorismo ETA), Batallón Vasco Español (BVE), eta gero GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación). Hildako horietaz gain, hainbat lagun zauritu, mehatxatu eta bahitu zituzten. Estatuaren segurtasun-indarretako zuzendariak eta kideak erantzukizun handiak izan dituzte GAL taldearen jardueran eta haren finantziazioan. Garai horretan, gainera, segurtasun-indarretako kide batzuk hainbat ekintzetan sartuta ibili ziren, eta, ekintza horien ondorioz, torturak, tratu txarrak eta heriotzak ere izan ziren.

Laurogeiko hamarkadaren bukaeran, GAL taldea desagertu zen, eta Frantziak eta Espainiak akordioak egin zituzten jarduera terroristari aurre egiteko. Laurogeita hamarreko hamarkadan, kale borroka hasi zen. ETArekin kidetasuna zuten gazteek egiten zuten. Erakunde terroristak iraupen luzeko bahiketak egin zituen, baita hilketak ere, batez ere Alderdi Popularreko eta PSOEko buruzagien eta hautetsien aurka. Herritarrek erantzuna eman zieten bahiketa horiei, eta, hala, manifestazio jendetsuak eta elkartasuneko kanpainak izan ziren. 1997. urtean Ermuko Alderdi Popularreko zinegotzia zen Miguel Ángel Blanco bahitu eta hil zuen, eta horrek herritarren protesta eragin zuen, ordura arte terrorismoaren aurka sekula izandako protestarik handiena.

1998. urteko irailaren 16an, ETAk su-etena iragarri zuen, baina handik hamasei hilabetera hautsi zuen. Horren ondoren, Antonio García Blanco teniente koronela hil zuen Madrilen (2000ko urtarrilaren 20an) eta, handik hilabete eta bi egunera, Fernando Buesa Blanco buruzagi sozialista eta bere bizkartzaina, Jorge Díez Elorza ertzaina, hil zituen (2000ko otsailaren 22an).

Hilketa horiek egin zituenetik su-eten iraunkorra iragarri zuen arte, hau da, 2006ko martxoaren 22ra arte (2004. eta 2005. urteetan geldialdi bat eginda), ETAk 43 pertsona hil zituen, besteak beste, politikari, epaile eta enpresaburu nabarmen batzuk. Bitartean, 2001eko irailaren

11n Dorre Bikien aurkako atentatuak izan ziren New Yorken, eta 2004ko martxoaren 11n aldirietako tren baten aurkako atentatua izan zen Madrilén. Bi gertakari horiek goitik behera aldarazi zuten nazioarteko erakunde eta gobernu askok terrorismoari buruz zuten jarrera.

2006ko abenduaren 30ean, ETAk lehegailu indartsu bat leherrarazi zuen Barajasko T.4 terminalean. Atentatu horretan, Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio hil ziren, eta euskal gizarte gehienak bakea lortzeko zituen itzaropenak hondatu ziren.

2007. urtean, ETAk ahaleginak egin zituen atentatuei berriz ekiteko, baina poliziaren ekintzak galarazi zion. Hala ere, 2007ko abenduaren 1ean, ETAk bi guardia zibil hil zituen Capbretonen, Frantzian (Raúl Centeno eta Fernando Trapero). Gero, 2008. urtean, ETAk pertsona hauek hil zituen: Isaías Carrasco zinegotzi ohi sozialista Arrasaten, Juan Manuel Piñuel guardia zibila, Luis Conde de la Cruz militarra eta Ignacio Uria enpresaburu azpeitiarra.

Azkenik, 2009. urteko ekainaren 19an, Eduardo Puelles polizia bizkaitarra hil zen, autoari erantsitako lehegailuak eztanda egin zuenean; eta handik aste batzuetara, hain zuzen, uztailaren 30ean, Carlos Sáenz de Tejada eta Diego Salvà Lezáun guardia zibil gazteak hil ziren Mallorcan egindako atentatu batean. ETAREN basakeriak lurralde espainiarrean eragin dituen azken biktimak dira horiek. Egia esan, ETAREN azken hildakoa Jean-Serge Nérin da, Frantziako lurrean tirokatutako jendarmea.

2010eko irailaren 5ean, erakundeak «ekintza erasotzaileen su-etena» iragarri du. Hala ere, pertsona askok «jazarpeneko indarkeria» izenekoa pairatzen dute oraindik. Jazarpena eta irainak nozitzen dituzte; eta, maiz, beren sorterritik kanpo egin behar dute gizarte-bizitza, edo bizkartzainaren laguntzaz bestela, segurtasuna zaintzeko. Era berean, enpresa txiki eta handietako enpresaburu askok estortsioa eta mehatxua pairatzen dituzte, eta erakunde terroristari laguntza ekonomikoa eman behar diote.

Ez da adostasunik lortu biktimen kopurua zenbatzerakoan. Dena dela, kopuru hauek eman ditzakegu: ETA (m), ETA (pm) eta CAA (Comandos Autónomos Anticapitalistas) taldeek 850 pertsona baino gehiago hil dituzte; GAL, BVE eta Triple A taldeek 50 pertsona baino gehiago hil dituzte; eta bahitutakoak 40 baino gehiago izan dira. Kalkuluen arabera, 42.000 pertsona baino gehiago dira —edo izan dira— indarkeria zuzenaren edo jazarpeneko indarkeriaren biktima, eta enpresaburu askok estortsioa pairatzen dute. Gaur egun, lan hau argitaratzeko dagoela, euskal gizartea zain dago, armak behin betiko noiz isilduko diren.

### Zinema-foroko jarduerak<sup>12</sup>

Jarduera hauek prestakuntza gisa egitea proposatzen dugu, terrorismoaren biktimak ikasgelan aurrez aurre zuzenean izan aurretik ikasleak prestatzeko.

#### 'Trece entre mil'

---

##### 1. Filmari buruzko datuak

- **Iraupena:** 95 minutu gutxi gorabehera.
- **Ekoiztu zen urtea:** 2005.
- **Zuzendaria:** Iñaki Arteta (Leize Producciones).
- **Aktore nagusiak:** gaur egun hitz egiteko aukerarik ez duten pertsona horien gurasoak, senarrak, emazteak, seme-alabak, lagunak, anaia-arrebak eta abar.

##### 2. Laburpena

Zuri-beltzean dauden irudi zaharrekin batera, koloretan dauden irudiak agertzen dira. Horiek, gaur egungoak izan arren, ez dute pozik islatzen. Dokumentu

---

12. Lau film hautatu ditugu gida didaktiko honen gairi loturik dagoen ekoizpen zabaletik.



grafiko osoa lausotuta dago, eta hori nahita eginda dago, zorigaitzoko aura batek kamera-  
ren objektiboa bera inguratuko balu bezala.

Toki guztietako biktimak igarotzen dira kameraren aurretik: euskal herritarrak, madrildarrak,  
katalanak, Leongoak eta abar. Haien lekukotasunean ez dago gorrotozko edo mendekuzko  
zamarik. Saminetik eta urraduratik sortutako adierazpena dira, eta bihotzeraino iristen dira.

Film hau malko artean baizik ezin da ikusi. Malkoak ez dira Hollywood-eko estiloko melo-  
drametan bezala sortzen. Pantailatik hitz egiten diguten horiek sentitu duten bakardadea  
eta ahanzturaren emaitza dira. Hainbat aldiz hil direnen kontakizun lazgarria. Terrorismoa-  
ren biktimena.

### 3. Gaia

Filmak dokudramaren formatua du, eta biktimen lekukotasun batzuk aurkezten ditu. Aten-  
tatu batetik bizirik atera zen pertsona bat agertzen da, bala batek burezurra txikitu baitzion.  
Bera kenduta, gainerako guztiak ETA talde terroristak hildakoen senideak dira.

Filmak hasieran eta bukaeran baizik ez dio eusten argumentuaren ildoari. Pasarte horretan,  
Jesús Ulayar-en senidea agertzen dira. Terrorismoaren biktimen aldeko erakundeen lagun-  
tzaz, edukiontziak kentzen ari dira haien aita eta senarra hil zen lekutik, kandelak eta loreak  
jartzeko.

### 4. Adina

Ez dago gomendatuta 13 urtetik beherakoak diren lagunentzat.

## 5. Eztabaidatzeko iradokizunak

### *Iruzkindu daitezkeen eszenak*

- Etxarri Aranatzen ETAk hildako pertsona baten emazteak eta seme-alabek nola hil zen azaltzen digute, eta horren ondoren sentitu zuten hutsunea aipatzen dute. Haien etxe aurreko pintadak, leiho azpian entzun zituzten «Gora ETA!» oihuak. Malkoak begietan. Senarra eta aita izandakoa hilda erori zen lekuan, herriko edukiontziak daude jarrita.
- María Ángelesen guraso zaharrek beren alabari buruz hitz egiten dute. Neska gazte eta ederra zen María Ángeles, ikaslea. Mahaia gordetzen ari zen bere lagunentzat, Madrilgo Rolando kafetegian. Atentatu batean hil zen, bizitzaren lorean zegoela, eta gurasoak bakarrik... eta hilik geratu ziren bizitzan. Malkoak.
- Alianza Popular alderdiko militantea izan zen Alberto López Jaureguizarren emazteak bere senarraren hilketa azaltzen du. Bera euskal herritarra sentitzen da, maite-maite du bere euskal lurra, baina galdera hau egiten dio bere buruari: «Ezin nuen han jarraitu, alabengatik. Hartu nituen, eta Euskaditik joan nintzen. Askotan, zera galdetzen diot neure buruari: koldarra izan ote nintzen?». Malkoak.
- Vicente Zoritaren alargunak senarrari buruz hitz egiten du. Nor zen senarra, bere seme-alaben aita, berak hainbeste maite zuena. Alianza Popular alderdiko militantea zen. Bahitu zuten. Kaputxa bat jarri zioten buruan, eta Espainiako bandera bat sartu zioten ahotik. Gero, tiro batzuk egin zizkioten buruan. Esaten digunez, senarra hil ondoren, bera eta bere alaba iraindu zituzten kaletik zihoazela. Euskal Herritik alde egitea erabaki zuten. Malkoak.
- Pilar UCD alderdiko militantea zen Ramón Bagliettoren alarguna da. Berak aditzera ematen digu nola jarraitzen duen senarrak egiten zuen lan politikoa egiten, nola ahalegintzen den senarraren oroimena eta duintasuna bizirik iraunarazten.
- Ramónen anaiak azaltzen duenez, 1962. urtean Ramónek haur bati salbatu zion bizitza, kamioi batek harrapa ez zezan lortu baitzuen. Handik urte batzuetara, haur horrek —gizona zela— tiro batzuk egin zizkion eta hil zuen. Malkoak.
- Francisco Marañón bizirik dago, ohean sartzan duen eta bertatik altxatzen duen pertsonak ematen dion laguntzari esker. Asteburuan, pertsona horrek egun librea duenean, ezin da ohetik altxa. Francisco bizirik dago. Bala batek txikitu zion burua, eta, horren ondorioz, egoera makal horretan dago, eszenan argi ikusten denez. Almirante baten txoferra zen: horra bere bekatua. «Balak burezurra zeharkatu zidan... Zergatik ez ote naiz hil?... Begiak dituen haragi-puska bat besterik ez naiz.» Malkoak.
- Álvaro Cabrerizok gogora ekartzen du emaztea eta bi alabak galdu zituen eguna: Bartzelonako Hipercor-eko atentatuaren eguna. Familiako bideoaren irudietan haiek ikusten dituenean, berriz zabaltzen zaio zauria.

- Vic-eko kuartel-etxean sarraski bat izan zen. Vanesa Ruiz-en amak eta ahizpak zorigaiztoko egun hura ekartzen dute gogora. Malkoak.
- Luis Andrés Samperioaren alarguna senarra hil zuten egunaz gogoratzen da. Familiako sekuentziak agertzen dira ondoz ondo: senarra, bera eta alaba txikia. ETAk Samperio hiltzeaz gain, familia honen poza ere hondatu zuen. «Nik ez dut errukirik jaso nahi, ez dut nahi errukiz begira nazaten, eta esan dezaten “gaixoa!”. Nik nahi dudana zera da: gizarte honek behingoz “Aski da!” esan dezan». Malkoak.

### *Eztabaidatzeko esaldiak*

- Begira. Gure aita erori zen lekuan, omenaldi gisa, zera dago... zaborraren edukiontzi eder batzuk.
- Ia bakarrik geunden lurperatu genuenean, ezagun asko ez baitziren ausartu ezta etortzera ere.
- Gaztea eta ederra zen. Adin horretan, zein neska ez da ederra, ezta? Eta egun hartan..., kafetegian..., alde egin zuen. Eta hemen utzi gintuen bakarrik. Zergatik?
- Nik uste dut koldar bat naizela, alabak neurekin hartu eta Euskal Herritik alde egin dudalako.
- Nire senarra hil zuten, eta, gainera, alabarekin pasieran ibiltzen nintzela, iraindu egiten gintuzten.
- Haur txiki bati bizitza salbatu zion, eta haur horrek, handitu zenean, hil egin zuen.
- Nire senarra hil zuena hor parean bizi da, berarekin gurutzatzen naiz kaletik noanean.

## **6. Metodologiako iradokizunak**

### *1. jarduera*

- Filma ikusi ondoren, minutu batzuk utziko ditugu hausnarketa pertsonala egiteko.
- Isilean, ikasle bakoitzak gogoeta egin beharko du filmak iraun duen bitartean bere begi aurretik igaro den guztiaz.
- Orri batean esaldi bakar bat idatzi beharko du, eta, hor, galdera hauetako bati eman beharko dio erantzuna: zein esaldik laburbiltzen du hobeki filma ikusi bitartean zuk sentitu duzuna? Zer egin dezakegu guk bere mina arintzeko?
- Horren ondoren, txandaka, ikasleek ahots ozenez irakurriko dute idatzi duten esaldia, eta nahi duenak oharrak edo iruzkinak egin ahal izango dizkio.
- Eztabaidaren ondoren, saioa bukatutzat jo aurretik, ikasle bakoitzak bere orri-puska erantsiko du ikasgelan jarriko den horma-irudi batean.

## 2. jarduera

- Dinamizatzaileak eztabaidarako esaldi bat hautatuko du; aurrez, zenbakia jarriko zaie esaldiei.
- Esaldia arbelean idatziko du. Minutu batzuk utziko ditu hausnarketa egiteko.
- Gero, eztabaida hasiko da, esaldia eta barruan biltzen duen mezua aztertzeko.
- A posteriori lan egiteko, ikasle guztiek saiakera, ipuin, poesia edo antzeko idazki labur bat idatzi beharko dute esaldiaren inguruan sortutako hausnarketei buruz (inoiz ez orri bat baino luzeagoa).

## ‘Asesinato en febrero’

---

### 1. Filmari buruzko datuak

- **Iraupena:** 95 minutu gutxi gorabehera.
- **Ekoiztu zen urtea:** 2001.
- **Zuzendaria:** Eterio Ortega.
- **Gidoia:** Elías Querejeta.
- **Aktore nagusiak:** Jorge Díez Elorza eta Fernando Buesa Blancoren senideak eta lagunak.

### 2. Laburpena

Egun arrunt bat, hiri txiki eta eder batean. Udaberria hurbil dago, nabaria da zuhaitzetan, muinoetan eta inguruko zelaietan. Egunero bezala, bi gizonak lantokirantz jotzen dute, ingurune txukuna zeharkatuz. Ehunka urteko zuhaitzen artetik doazen bitartean, hil egiten dituzte. Bere begitartea erakustera ia ausartzen ez den edertasunaren barruan, larderia bihozgabea. Zergatik? Nork egin zuen? Zertarako?

2000ko otsailaren 22an, ETA erakunde terroristak bomba-auto bat jarri zuen, eta Fernando Buesa Blanco politikari sozialista ezaguna eta haren bizkartzaina zen Jorge Díez Elorza ertzain gaztea hil zituen.

Buesaren emaztea den Natividad Rodríguez Lajok adierazi zuenez, ez ziren hil arrazoi batengatik. Bizitza kendu, harrapatu, lapurtu egin zieten.

Filmak otsail goibel hartako gertaerak kontatzen ditu, hildakoak maitatu zituzten pertsonen bidez, eta hiltzaileen jarrera adierazten duen *off-eko* ahots baten bitartez.

### 3. Gaia

Filma dokudrama gisa dago filmatuta, eta Fernando eta Jorge maite zituzten pertsonen samurtasuna jasotzen du. Hainbat tokitako paisaiak agertzen dira hurrenez hurren: Gasteiz, Arabako Harana ibarra, Landak. Batetik, Buesaren emaztea, seme-alabak eta lagunak, eta, bestetik, Jorgeren gurasoak, aitona-amonak eta lagunak agertzen dira. Hautsitako maitasunaren adierazpen zintzoen ondoren, terroristen *modus operandi-aren* hoztasuna nabarmentzen da. Maitasuna gorrotoaren aurrean. Samurtasuna zakartasunaren aurrean. Bero-tasuna hoztasunaren aurrean. Bizitza heriotzaren aurrean.

### 4. Adina

Ez dago gomendatuta 13 urtetik beherakoak diren lagunentzat.

### 5. Eztabaidatzeko iradokizunak

#### *Iruzkindu daitezkeen eszenak*

- Fernando Buesa bere familiarekin elkartuta jasotzen duten irudiak. Familiaren edo lagun-irudiak Fernando gabe.
- Jorge Díez bere familiarekin elkartuta jasotzen duten irudiak. Familiaren edo lagun-irudiak Jorge gabe.
- Natividad bakarrik pasieran Landetako hondartzetatik.
- Buesa familiaren autokarabana.
- Jorgeren gurasoak, Haraneko Done Bikendiko hilerrira autoz doazela.
- Jorgeren lagunak, herriko txokoa bera gogora ekartzen.
- Jorgeren aitona-amonak iloba gogora ekartzen dute herriko ohiko lanak egiten dituzten bitartean.
- Hiltzaileak *ekintza* nola garatuko den azaltzen du.

#### *Eztabaidatzeko esaldiak*

- Berak ez zuen bizitza arrazoi baten alde eman, indarrez kendu zioten. Ez dezagun nahastu. Bizitza kendu zioten, maite zituen pertsonekin bizitzeko aukera lapurtu zioten.

- Trajea jantzita ateratzen ikusten nuenean, nik zera pentsatzen nuen: «Zein eder dagoen!». Hain gaztea zen, hain altua, hain...
- Jaungoikoak ni eraman izan banu, zaharra bainaiz dagoeneko... Baina gaztetxo bat... bizitzaren loretan dagoela. Haiei gauza bera egin diezaieten! Ederki ikusiko genuen...
- Taldeko kideek helburua behatzen dute, eta ekintza nola egin aztertzen dute.

## 6. Metodologiako iradokizunak

- Dinamizatzaileak filmean azaldu den esaldiren bat errepikatuko du, iradokitzeko.
- Denen artean aztertuko dute hautatutako esaldia, eta, hala, eztabaida sortuko da ikasgelan.
- Azkenik, bakoitzak hausnarketa pertsonal bat idatziko du; eta, gero, erdialdeko pasilloko horma-irudian itsatsiko dute. Denen artean filmak helarazi nahi duen mezua ondo azaltzen duen kanta bat aukeratuko dute. Gero, ikasgelan entzungo dute, gorrotoaren ondorioz hildakoen omenez.

Horretarako, galdera hauek hartu beharko dituzte aintzat:

- Zer lortu da bi heriotza horiekin?
- Zer sentituko du bonba-autoa leherrarazi zuen terroristak film hau ikusiz gero?
- Nola hurbildu ahal gara familia horien minera, elkartasun eraginkorra izanik?

‘Yoyes’<sup>13</sup>

### 1. Filmari buruzko datuak

- **Iraupena:** 99 minutu gutxi gorabehera.
- **Ekoiztu zen urtea:** 1999.
- **Zuzendaria:** Helena Taberna.
- **Aktore nagusiak:** Ana Torrent, Ernesto Alterio, Florence Pernel, Iñaki Aierra, Ramón Langa, Isabel Ordaz, Juan Jesús Valverde, Laura Ballesta.

13. Bakearen Aldeko Koordinakundeak landutako proposamena.



## 2. Laburpena

Oraina eta iragana korapilatu egiten dira, puzzle bateko piezak emanez, ikuspegi berriak eta paisaia ez-ohikoak agerraraziz, Yoyesen harremanen munduari buruz, eta gizonen mundu batean emakume gisa egin zuen borrokari buruz. Yoyes, ETA barruan erantzukizuneko karguak izan zituen lehenengo emakumea, Mexikoko erbestetik itzultzen da, eta bere bizitza berreraikitzen saiatzen da. Bere itzulera ez da erraza, baina. Berak barne-bilakaera izan du, karrera bat ikasi du unibertsitatean, Nazio Batuen Erakundean aritu da lanean, ama izan da... Bitartean, bere herrialdean oraindik ere indarkeria da egunkarietako orrialdeak betetzen dituen argudio nagusia. Yoyesek ahaleginak egin ditu ahazteko eta ahaztua izateko, baina kanpoan eman dituen urteetan mito bilakatu da. Lehen erakunde armatuan bere kide zirenek traiziotzat jotzen dute itzulera. Berak maite du bere lurra, paisaiarekin bat egin nahi du, baina udazkenak orbela baino zerbait gehiago ekarriko du.

## 3. Gaia

ETA erakundearen barruko katramilek, GAL taldeak egindako atentatuek, Espainiako gobernuaren interesek eta prentsaren jazarpenak sare bat josiko dute; eta, azkenean, horren ondorioz, erakunde armatuko kide zaharren jomuga bilakatuko da Yoyes. Hala ere, berez, Yoyes ez da film politiko bat. Izan ere, argumentuaren ardatza, protagonistaren barneko gatazka da: barre eta negar egiten duen, maitatzen duen emakume bat, bilakaturik aldatzeko eta bere bizimodua aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen duen emakume bat. Gizakiaren kontraesanik sakonenak hezurramitzen dituen emakume bat.

Yoyesen istorioa biografia moduan dago landuta, baina filma intrigaren eremuetan sartzen da. Era horretan, ikusleak urratsez urrats suma dezake tranpa hilgarri bat dagoela protagonistaren gainean. Yoyes filmean, ekintzako sekuentzia ikusgarriak ikusiko ditugu, protagonistaren bizitzako gatazka aztertzeko hartzen duen tratamendu poetikoz txirikordatuta.

Filmean, ETA talde terroristaren bilakaera ikusten da. Hasieran, Frankoren diktaduraren garaian, oso nabarmena zen aukera ideologikoa eta politikoa. Denbora aurrera joan ahala, berriz, joera hori aldatuko da, eta indarkeria itsua azaleratuko da existitzeko molde bakar gisa.

## 4. Adina

Ez dago gomendatuta 13 urtetik beherakoak diren lagunentzat.

## 5. Eztabaidatzeko iradokizunak

### *Iruzkindu daitezkeen eszenak*

- Yoyesi ongietorria egiteko bazkaria, familiaren etxean egindakoa. Yoyes pozik dago, etxean baitago berriz, eta atzean utzi nahi du iragana. Nebak agiraka egiten dio, eta gogora ekartzen dio hemen arazo politiko bat dagoela konpondu gabe, eta berak erantzukizuna duela konponbidea aurkitzeko. Aitak amaiera ematen dio errietari, eta argitzen du bere etxean ez dela gehiago politikaz hitz egingo.
- ETako goi karguek bilera egiten dute, eta Yoyesekin zer egin aztertzen dute. Taldearekin zuen lotura ideologikoa asko ahuldu da. GAL taldearen atentatuek dardarka jarri dituzte erakundearen oinarriak. Yoyes Gobernuaren gizarteratze-planetan sartuz gero, atea zabalik geratuko da: litekeena da gainerako kideak arrapaladan barreiatzen hastea. Irtenbide bakarra zuten: Yoyesi eredu zigorra ematea, kide guztiei ohartarazteko zein bide jarraitu behar zuten.
- ETaren biktima baten emaztea Yoyesekin topatzen da etxeko atarian. Emakumeak agiraka egiten dio Yoyesi. Senarraren heriotza leporatuta, iraintzen du, eta zera esaten dio: «Nik sufritu dudan beste sufrutuko ahal duzulu!».
- Yoyesi buruzko albistea argitaratzen duen kazetariaren jarrera. Berak jendea irakurri nahi duena bilatzen du. Morboa oso ona da egunkariak saltzeko. Yoyesi buruzko dokumentazioa jaso eta argitaratzea erabakitzen duenean, badaki zer egiten ari den —«lehoietara bota dut»—. Hala ere, aldi berean, mailaz igotzeko izan ditzakeen aukerak ikusten ditu.

### *Eztabaidatzeko esaldiak*

- Etorkizunean, gudari gutxiago eta politikari gehiago beharko dira.
- Nik herriaren alde borrokatzea aukeratu dut, hala behar bada bitzta emango dut herriaren alde; aske naiz, horrela erabaki dut.
- Orain jende gazteagoa etorri da gauzak egiteko gogoekin; orain gehiago jokatzen da eta gutxiago hausnartzen da.
- Beharbada izango da asko sufritu dugulako, baina kontua da orain jendeari negar eginarazi besterik ez dakigula egiten.
- Borroka armatuaren eztabaida politikoa, horixe da gure helburua.
- Ez nuen etorri behar; orain ez didate bakerik emango, ez batzuek, ez besteek.

## 6. Metodologiako iradokizunak

Lehenik, taldea handia bada, deigarri egin zaizkien esaldien edo eszenen iruzkina egingo dute, filma proiektatu bitartean jaso dituzten esaldi horiena. Gero, aztertu nahi ditugun esal-

dien edo eszenen orria banatuko dugu (lehen iradoki ditugunak erabil daitezke), eta haien esanahia aztertuko dugu talde txikitan jarrita (zer esan nahi dute?, zergatik gertatzen dira?..).

### *Gure errealitatera hurbilduz*

- Ikasleek adieraziko dute haien ustez filmak benetan gertatutakoa islatzen duen edo ez.
- Gero, egoera horren erantzuleak zein diren aztertuko dute, eta egon daitezkeen hautabideak azalduko dituzte.
- Ikasle bakoitzak orri batean idatziko du zer egingo lukeen Yoyesen tokian egonez gero eta zergatik egingo lukeen (Yoyesen egoera aintzat hartuta, hau da, senarra, alaba, lurrarekiko maitasun handia... barne hartuta). Sortzen diren aukeren aniztasunaren araber, hainbat gai aztertu ahal izango ditugu, hala nola, barkamena, damutzea...
- Eztabaidari buru emateko, guk zer egin ahal dugun aztertuko dugu.

## 'Perseguidos'

### 1. Filmari buruzko datuak

- **Iraupena:** 86 minutu gutxi gorabehera.
- **Ekoiztu zen urtea:** 2004.
- **Zuzendaria:** Eterio Ortega.
- **Ekoizpena:** Elías Querejeta.
- **Aktore nagusiak:** benetako bost aktore, aktore ezezagunak, jazarpeneko indarkeriaren bost adibide direnak.

### 2. Laburpena

Ezezagunak dira. Inork ez ditu ezagutzen. Mugitzen diren ingurune txikian ere —hau da, auzokoen eta lankideen artean—, haiek saihesten dituzten begiradak nabaritu dituzte. Haien lagunen zirkulua, gizarteratzeko eta, azken batean, bizitzeko duten zirkulua, gero eta txikiago ari da egiten.

Goizeko lehen ordutik, lanera joateko prestatzen ari diren une horietatik, ondoan dituzten bi bizkartzainen esku utzi behar dute beren burua. Lanaldia bukatzen denean eta etxeko atarira iristen direnean, egiten duten azken keinua haien bizitza babesten duten pertsona horiei zuzenduta dago. Bihar arte!

Haien familia, haien oroimenak, maitasunerako galdutako guneak, haien ilusioak...

Jazarrita, etxean preso bizitzeko esperientzia izugarria.

### 3. Gaia

Filma dokudrama gisa dago filmatuta, eta jazarpeneko indarkeria deitutakoa sufritzen duten bost pertsonaren eguneroko bizitza azaltzen du. Bizkartzainen esku utzi behar dute beren burua, bizi ahal izateko, heriotza ziurretik ihes egin ahal izateko. Filmean barrena, tortura-mota krudel horren berri jasoko dugu. Askatasun eta mugimendu ezaz gain, familiako eta lagunekiko harremanak erabat baldintzatuta geratuko dira, aurrez hartu beharreko neurrien ondorioz, eta beren bizitza babesten duten bizkartzainen lanen ondorioz. Hurbilpen bat, askatasun eza zer den jakiteko.

### 4. Adina

Ez dago gomendatuta 13 urtetik beherakoak diren lagunentzat.

### 5. Eztabaidatzeko iradokizunak

#### *Iruzkindu daitezkeen eszenak*

Talde bakoitzari eskatuko diogu bereziki hunkigarria iruditu zaien eszena bat hautatzeko. Taldeko kideek eztabaida egingo dute eszena bakar bat adosteko.

#### *Eztabaidatzeko esaldiak*

Talde bakoitzari eskatuko diogu bereziki hunkigarria iruditu zaien esaldi bat hautatzeko. Taldeko kideek eztabaida egingo dute esaldi bakar bat adosteko.

### 6. Metodologiako iradokizunak

- Dinamizatzaileak filmean azaldu den esaldiren bat errepikatuko du, iradokitzeke.
- Denen artean aztertuko dute hautatutako esaldia, eta, hala, eztabaida sortuko da ikasgelan.

- Azkenik, bakoitzak hausnarketa pertsonal bat idatziko du; eta, gero, erdialdeko pasilloko horma-irudian itsatsiko dute. Denen artean, filmak helarazi nahi duena ondo azaltzen duen kanta, margolan edo testu bat aukeratuko dute. Gero, ikasgelan entzun, ikusi edo irakurriko dute, beldurrez eta hiltzaileen jomugan egoteko ziurtasunez bizi behar duten pertsona horien omenez.

Horretarako, galdera hauek hartu beharko dituzte aintzat:

- Zuk zer egingo zenuke, bost lagun horiek nozitzen duten egoeraren batean egonez gero?
- Filmeko zein sekuentziak hunkitu zaitu gehien?
- Nola hurbildu ahal gara pertsona horien eta beren familien egoerara, elkartasun eragin-korra izanik?

### Soziodrama<sup>14</sup>

#### Helburuak

- Pentsamendu kritikoa garatzea gizarteko errealitatek hurbilenarekiko.
- Elkartasunezko jokabideak izatea.
- Kontzientzia hartzea kultura desberdinak onartzeko dagoen beharrez, eta horrek dakarren aberastasunez.

#### Metodologia

Jarduera honen bidez, tolerantzia ezaren adierazgarri diren eta gure ingurune hurbilean izaten diren egoerak aztertuko ditugu. Hona hemen orientabide batzuk:

1. Lau edo bost laguneko taldetan jarrita, xenofobian eta arrazakerian oinarritutako jarrerak agerian dituen egoera bat asmatuko eta antzeztuko dute. Jarrera horiek jokabide toleranteak izateko modukoak izango dira, hau da, desberdintasunekiko begirunea azaltzeko modukoak.
2. Egoera horiek antzeztuko dira, eta amaieran beti egongo da galtzaile bat.

---

14. Bakearen Aldeko Koordinakundeak landutako eranskina.



3. Gero, bukaera aldatuko dute, eta arazoaren konponbidea bilatuko dute. Konponbide hori aurkitzeko, ahalik eta gehien erabili behar da irudimena. Horrez gain, elkarrizketa baketsuan oinarritutako jarrera izan beharko da, desberdintasunarekiko begirunea oinarritzat hartuta. Antzezenaren iraupena 15 edo 20 minutukoa izango da.
4. Proposamen horren ondorioz, elkarrizketari ekingo diote.
5. Beste ikasle batzuek bestelako amaierak proposatuko dituzte, edo arrazakerian, indarkerian edota tolerantzia ezan oinarrituta dauden eta antzezenak gogora ekarri dizkien jokabideak azalduko dituzte.

## Baliabideak

- Papera.
- Apaintzeko material soila.

### Rol-jokoak<sup>15</sup>

#### Helburuak

- Pentsamendu kritikoa garatzea, dagokigun gaiari buruz gure inguruan sortzen diren egoerei begira.
- Gure gizartean dauden kultura desberdinen ondorioz, eta bakoitzak errealitatea ulertzeko duen era desberdinaren ondorioz, sortu diren edo sor daitezkeen gatazkei buruzko kontzientzia hartzea; eta desberdintasun horiek arazo gaindiezina direla pentsatu beharrean, gizarteak aurrera egiteko duen moldea direla pentsatzea.
- Ondo ezagutu ondoren, gatazka horiei modu onuragarrian heltzeko ahalegina egitea, eta irtenbide baketsuak eta sortzaileak bilatzea.
- Gainerako pertsonetikiko dugun enpatia erakustea, hau da, eraginkortasunez entzuten ikastea, haien lekuan jarriz, eta egia absolutuaren jabeak garela sinetsi gabe.
- Aurrekoari loturik, gure jarrerarik irmoenak erlatibizatzen ikastea.

#### Metodologia

1. Paperen zozketa egingo dugu. Bakoitzari pertsonaia jakin baten papera egokituko zaio. Pertsonaia horren

---

15. Bakearen Aldeko Koordinakundeak landutako eranskina.

munduan kokatuko da, hau da, pertsonaia horren arazoak, beldurrak eta kezkek barnertuko ditu.

2. Pertsona batek pertsonaiei dagozkien egoeraren berri irakurriko du. Bestela, egoera horren berri banatu ahal diegu idatziz ikasleei.
3. Parte-hartzaile bakoitzak minutu batzuk izango ditu bere pertsonaiaren lekuan jartzeko, eta dagokion jarrera aurkitzeko.

## Jarduerak

### 1. JARDUERA

► *Egon daitezkeen pertsonaiak.* Magrebeko etorkin bat, kaskamotz bat, etorkin batekin ezkondu nahi duen gazte baten aita, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako erakunde bateko kide bat, politikari bat, segurtasun-indarretako kide bat, eskulan merkea kontratatu nahi duen enpresaburu bat, langabetu bat, kantautore engaiatu bat.

► *Egoera.* Legez kanpoko etorkinen talde bat iritsi da Algecirasera. Hango Algeciras Acoge erakundeak harrera egin die, ostatu eman die, eta ahaleginak egin ditu haientzako lan bat aurkitzeko, hartara, haien egoera legez tatu ahal izan dezaten.

Ceutan liskar batzuk egon ondoren, gobernuak erabakitzen du legez kanpoko etorkinak haien jatorrizko herrialdera bidaltzea, nahiz eta ondo jakin herrialde horietan erregimen demokratikorik ez dagoela eta oinarrizko giza eskubideak betetzen ez direla. Etorkinak legez kanpo eramaten dituzte beren sorterrira, isiltasun osoa gordez. Giza eskubideen aldeko erakunde batzuen ustez, etorkinak kanporatzerakoan ez dira etorkinen oinarrizko giza eskubideak bete, eta, beraz, gobernuak salatzen dute.

## 2. JARDUERA

- ▶ *Egon daitezkeen pertsonaiak.* Erronda egiten duen polizia, auzokideen talde bat, kaleko patruilen aurka dagoen auzoko bat, magrebtarren talde bat, delituaren biktima bat, arrazakeriaren aurkako talde bateko kide bat, ijitoen erkidegoko kide bat, kale-garbitzaile bat...
- ▶ *Egoera.* Hiri handiko auzo batean, droga-trafikoarekin zerikusia duen delitu bat izan da. Auzo horretan ijitoen erkidego bat dago, eta drogekin trafikatzeari leporatzen diete. Poliziak ez du auzoa gehiegi kontrolatzen, eta, hargatik, auzokoek justizia beren kabuz egitea erabakitzen dute.

## 3. JARDUERA

- ▶ *Egon daitezkeen pertsonaiak.* ETAko preso baten senide bat, GAL taldeko biktima baten senide bat, ertzain bat, gazte bakezale bat, indarkeria helburu jakin bat lortzeko bide gisa justifikatzen duen gazte bat, herritar epel bat —arazoaren konponbidea bere esku ez da-goela uste duena—, politikari bat, atzerriko kazetari bat.
- ▶ *Izan daitezkeen egoerak*
  - Orain dela bi egun, odol-delituak zituen ETAko kide batek birgizarteratzeko neurriei heldu zien. Hala, zigor osoa bete ez badu ere, borroka armatuari uko egin dionez, etxera itzultzeko aukera izango du.
  - Astelehen batean liskarrak sortzen dira plaza batean. Plazan, batera elkartu dira Bakearen Aldeko Koordinakundeak —bahitutako pertsona baten askatasuna eskatzen ari direla—, eta «Euskal Herria askatu» izenpeko agerraldikoak. Ertzaintza agertzen da, istiluen aurkako materialez hornituta, eta ekin egiten dio.
  - Kanean zaude ostiral arratsalde batean. Bat-batean txanodun batzuk agertzen dira, autobus bat gurutzatzen dute kanean, su ematen diote, eta kalea oztopatzen dute zaborrerako edukiontziak jarritz. Horrez gain, irainak eta mehatxuak botatzen dituzte haien jarrera arbuiatzen dutenen aurka. Ertzaintzaren patruila bat agertzen da, liskar horretan parte hartu duten batzuen aurka jotzen du, eta atxilo hartzen ditu.
  - Bakearen Aldeko Koordinakundeak ekitaldi bat antolatzen du GAL taldearen biktimen oroimenez. Ekitaldia egin bitartean, lagun-talde bat agertzen da, eta irainak botatzen hasten da. Era berean, pankarta kentzen ahalegintzen dira, arrautzak botatzen dizkiete, jotzen dituzte, eta zera oihukatzen diete: «Ez ukitu gure hildakoak».



### Argitalpenak eta baliabide didaktikoak<sup>16</sup>

#### Lekukotasunak

BAGLIETTO, Pedro Mari: *Un grito de paz. Autobiografía póstuma de una víctima de ETA*, Madril, Espasa Calpe, 1999.

EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA: *Bake Hitzak/Palabras de Paz* (aldizkari honen hainbat aletan, biktimen lekukotasun interesgarriak agertzen dira; ikusi: <<http://www.gesto.org>>.)

CUESTA, Cristina: *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*, Madril, Temas de Hoy, 2000.

PORTELL, Verónica: *Y sin embargo te entiendo*, Donostia, Hiria, 2006.

VILLA, Irene: *Saber que se puede. Recuerdos y reflexiones de una víctima del terrorismo*, Madril, Martínez Roca, 2004.

---

16. Argitalpenen eta baliabide didaktikoen aukeraketa hau ez da guztiz sakona edo zehatza. Argitalpen guztiak Eusko Jaurlaritzaren Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Eskola Bakegunean daude ikusgai (Zumalakarregi, 21 • 48903 Barakaldo • Tel.: 94 4902300 • Faxa: 94 4970068 • Posta elektronikoa: [eskolabakegune@gmail.com](mailto:eskolabakegune@gmail.com) • Web: <<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>>). Haietako batzuk euskarri elektronikoan eskuratu ahal dira.



## Fikzioa

ARAMBURU, Fernando: *Los peces de la amargura*, Bartzelona, Tusquets, 2006.

CARRIÓN, Vicente: *Padre patria*, Donostia, Hiria, 2010.

ETXENIKE, Luisa: *El ángulo ciego*, Bartzelona, Bruguera, 2008.

GONZÁLEZ SAINZ, J. Á.: *Ojos que no ven*, Bartzelona, Anagrama, 2010.

LERTXUNDI, Anjel: *Zorion perfektua*, Irun, Alberdania, 2002.

ZUBIZARRETA, Patxi: *Pikolo*, Irun, Alberdania, 2008.

## Saiakerak, txostenak eta baliabide didaktikoak

ALONSO, Rogelio, Florencio DOMÍNGUEZ eta Marcos GARCÍA REY: *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Madril, Espasa Libros, 2010.

ANTOLÍN, Matías: *Agur, ETA. Soares Gamboa. El adiós a las armas de un militante histórico*, Madril, Temas de Hoy, 2001.

ARANA, Ricardo: *Respuestas educadoras frente a la intolerancia*, Bilbo, Bakeaz, 2005 (Escuela de Paz, 8).

AULESTIA, Kepa: *Días de viento sur. La violencia en Euskadi*, Bartzelona, Empuries, 1993.

AZKARATE, Gorka, Lourdes ERRASTI eta Maite MENA: *Materiales para la educación en derechos humanos. Educación Secundaria: ESO y Bachillerato/Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak. Bigarren Hezkuntza: DBH eta Batxilergoa*, Vitoria-Gasteiz, Ararteko, 2000.

- BILBAO, Galo: *Jano en medio del terror. La inquietante figura del victimario-víctima*, Bilbo, Bakeaz, 2009 (Escuela de Paz, 17).
- eta Xabier ETXEBERRIA: *La presencia de las víctimas del terrorismo en la educación para la paz en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz, 2005.
- Cristina de la CRUZ eta Pedro M. SASIA: *Víctimas: todas iguales, todas diferentes*, Bilbo, Bakeaz, 2010 (Escuela de Paz, 22).
- BLOOMFIELD, Sir Kenneth: *Las recordaremos. Informe de Sir Kenneth Bloomfield, Comisionado sobre Víctimas de Irlanda del Norte*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz, 2001.
- CALLEJA, José María: *La diáspora vasca. Historia de los condenados a irse de Euskadi por culpa del terrorismo*, Madril, El País-Aguilar, 1999.
- CIUDADANÍA Y LIBERTAD/HIRI LIBERTATEAK: *Guía de recursos para la libertad*, 2003, Vitoria-Gasteiz, Ciudadanía y Libertad/Hiri Libertateak, 2004.
- EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA: *Carpeta didáctica. Educarnos en la tolerancia*, Bilbo, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea, 1997.
- ETXEBERRIA, Xabier: «*Lo humano irreductible*» de los derechos humanos, Bilbo, Bakeaz, 1998 (Cuadernos Bakeaz, 28).
- *La educación ante la violencia en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz, 1999 (Cuadernos Bakeaz, 31).
- *La noviolencia en el ámbito educativo*, Bilbo, Bakeaz, 2000 (Cuadernos Bakeaz, 37).
- Ignacio Ellacuría: *testimonio y mensaje/Ignacio Ellacuría: testigantza eta mezua*, Bilbo, Bakeaz, 2001 (Cuadernos Bakeaz, 47).
- *La educación para la paz ante la violencia de ETA*, Bilbo, Bakeaz, 2003.
- *Sobre la tortura: perspectiva ética y propuesta pedagógica*, Bilbo, Bakeaz, 2006 (Escuela de Paz, 10).
- *Educación sentimental en la ciudadanía*, Bilbo, Bakeaz, 2008 (Escuela de Paz, 14).
- *La educación para la paz vertebrada por las víctimas*, Bilbo, Bakeaz, 2009 (Escuela de Paz, 21).
- *Virtudes para la paz*, Bilbo, Bakeaz, inprimatzen (Escuela de Paz, 24).
- FERNÁNDEZ SOLA, Susana: *Actitudes y comportamientos hacia la educación para la paz en Euskadi*, Bilbo, Bakeaz, 2004 (Escuela de Paz, 2).
- FITZDUFF, Mari: *Más allá de la violencia. Procesos de resolución de conflicto en Irlanda del Norte*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998.

- GALTUNG, Johan: *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución. Afrontando los efectos visibles e invisibles de la guerra y la violencia*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998.
- GARMENDIA LASA, Elixabete, eta beste batzuk: *Yoyes, desde su ventana*, Iruñea, Garrasi, 1987.
- HERNÁNDEZ, Carmen: «Testimonio», hemen: EQUIPO DE EDUCACIÓN DE ALBOAN eta CENTRE D'ESTUDIS CRISTIANISME I JUSTÍCIA: *La reconciliación. Más allá de la justicia*, Bartzelona, Cristianisme i Justicia, 2003.
- JARES, Xesús R.: *Educación y derechos humanos*, Bilbo, Bakeaz, 1998 (Cuadernos Bakeaz, 29).
- *Educar para la paz después del 11/09/01*, Bilbo, Bakeaz, 2002 (Cuadernos Bakeaz, 49).
- *Educar para la paz en tiempos difíciles*, Bilbo, Bakeaz, 2004.
- *La educación para la convivencia como proceso de alfabetización en conflictos. Propuestas de formación*, Bilbo, Bakeaz, 2004 (Escuela de Paz, 1).
- JOSU UGARTE, MIKEL MANCISIDOR eta MARÍA OIANGUREN (koord.): *El papel de la investigación para la paz ante la violencia en el País Vasco*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 2006.
- LEDERACH, John Paul: *Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 1998.
- LEVIN, Leah: *Derechos humanos: preguntas y respuestas* (Plantu-ren ilustrazioak), Bilbo, Bakeaz/Ediciones UNESCO, 1999.
- NOVALES, Félix: *El tazón de hierro*, Bartzelona, Crítica, 1989.
- OIANGUREN IDIGORAS, María, eta KARMELE SOLIÑO QUEIRUGA (koord.): *Experiencias pedagógicas en torno a la memoria de las víctimas del terrorismo y las dictaduras*, Bilbo, Bakeaz/Gernika Gogoratuz, 2010.
- ROSENBERG, Marshall: *La comunicación no violenta, un lenguaje de vida*, Buenos Aires, Gran Aldea Editores, 2009.
- SÁEZ DE LA FUENTE, Izaskun: *La opinión pública vasca ante la violencia de ETA. Una mirada retrospectiva*, Bilbo, Bakeaz, inprimatzen (Escuela de Paz, 23).
- SAN SEBASTIÁN, Isabel: *Los años de plomo. Memoria en carne viva de las víctimas*, Madril, Temas de Hoy, 2003.
- VARONA, Gema, eta beste batzuk: *Atención institucional a las víctimas del terrorismo en Euskadi*, Vitoria-Gasteiz, Ararteko, 2009.

# Marka uzten diguten istorioak

Orain dela gutxi arte, Euskal Herrian landu den bake-hezkuntzak ia ez du kontuan hartu terrorismoaren biktimak gure hezkuntza-sisteman zuzenean agertzeko aukera.

Gure iritziz, bake-hezkuntzak, bere zentzurik sakonenean, ezin uko eginezko helburu pedagogikoak eduki behar ditu biktimei dagokienez. Bake-hezkuntzak indarkeriazko egoerei egin behar die aurre, bereziki indarkeria horren biktimei eta haien biktimazio-esperientziari; eta, horretarako, hori pairatu dutenen lekukotasuna jaso behar du. Bestetik, biktimei zor zaizkien eskubideen artean, besteak beste, onarpena egin behar zaie gizarteko hainbat arlotan, bai eta hezkuntza-arloan ere. Eta zein onarpen izango ote da hobea, rol nagusia ematea baino? Bestalde, bake-hezkuntzak helburu hau izan behar du: justiziaren eta, ahal dela, adiskidetzearen bidez, baketutako gizartea eraikitzea. Alabaina, justizia horren irismen zehatza zentzuz ulertzeko, eta adiskidetzeko prozesuetarantz era zuzenean bideratzeko, elkarrizketa enpatikoa egiten hasi behar dugu eragin gehien jaso duten horiekin, hau da, biktimekin. Hortaz, arrazoi berri hori dela-eta, aurrean egon behar dute eraginkortasunez.

Hala ere, hezitzaileak oztopo handiak aurkituko ditu —saiatzen baldin bada—, ingurune eta pedagogia aldetik, biktimak hezkuntza-sisteman agerian jartzeko lan zail horretan. Gida didaktiko hau tresna lagungarria izan daiteke lan horri ekiteko, hemen bilduta dauden material pedagogikoen ardatza biktimen kontakizunak baitira, eta hezitzaileek erabiltzeko prest baitaude.

**Susana Harillo Caballero** maistra eta psikopedagogo da.

**Jesús Prieto Mendaza** maisua eta Antropologian lizentziaduna da.

**Josu Ugarte Gastaminza** Bakeaz erakundeko zuzendaria da.

**bakeaz**  
↑

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HERRIZAINGO SAILA  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN